- Kontzeptu horrek hirigintzan baino ez dauka balioa. Horregatik, lurzoruaren araubideari eta hiri-antolamenduari buruz indarrean dagoen legeriak antolamenduari ematen dizkion ahalmenen arabera zehazten da.

1.3.1.2 artikulua Erabilera nagusia, erabilera osagarria eta zerbitzu-erabilera. Erabilera asimilatua

- Sarritan, hirigintzako jarduera baten garapenak espazio baten barruan funtzio edo antolakuntzari dagokionez elkarrekin lotuta dauden erabilera batzuk biltzen ditu. Kasu horietan jardueraren funtsezko helburua den erabilera **erabilera nagusia** da; erabilera hau da espazioko bereizgarria.
- Beste alde batetik, **erabilera osagarriak** dira nagusiari lotuta egonik hura behar bezala burutzeko ezinbestekoak direnak (edo komenigarriak, behintzat).

Erabilera jakin bat, kasuaren eta kokapenaren arabera, batzuetan erabilera osagarri gisa eta beste batzuetan erabilera nagusi gisa ari daiteke.

- Erabileraren kontzeptuaren barruan, nagusia zein laguntzailea izan, erabilerak hartzen dituzten instalazio edota eraikuntzek egokiro funtzionatzeko ezinbestekoak diren zerbitzu jarduera guztiak sartzen dira. **Zerbitzu-erabilerak** dira eraikuntzetako instalazioak, esate baterako: zaborra biltzeko lokalak, igogailuko makineria, erregaien biltegiak eta galdara gelak, etab.
- Erabilera nagusi bati lotutako **erabilera asimilatuak** dira beren ezarpen baldintza eta partzela berean edo ondoko partzeletan dauden lokaletan gauzatutako erabileren gaineko eraginak erreferentziatzeko erabileren antzekoak direnak (ondorioz sarritan erabilera nagusiaren antzera ezartzen dira).

Erabilera bat erabilera nagusi batekin asimilatzeko baldintza hauetako bat bete behar da:

- Erabileren edukia arautzen duten hurrengo artikuluetan edo azpiguneetako eraikuntza eta erabilera baldintza berariazkoetan hala adierazita egotea.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 10 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Horretarako bideratutako hirigintzako udal-ordenantza batean jasota egotea.
- c) Udalak adostuta egotea, txosten teknikoa egin ondoren; txostenean zalantzarik gabe frogatu behar da puntu honetako lehenengo paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen direla. Erabaki hori udalerrri osoan aplikatuko da, plangintzak gune eta azpigune bakoitzerako ezarritako helburuen arabera asimilazio desberdinak ezartzeko eragozpen izan gabe; ondorioz, bide hau ezingo da inoiz erabili arazo partikularrak konpontzeko.

1.3.1.3 artikulua Hirigintza-araudi honetan ageri ez diren erabilerak

- Ondoren azalduko den sistematizazioa, bai eta beraren garapena ere, definizio irekia eta ez baztertzailera da; beraz, Udalak hirigintzako eraginak eta aipatutako beste erabilera batzuetakoen arteko analogiagatik zehaztu ahal izango ditu bertan berariaz araututa ez dauden erabilerak.
- Erreferentzia falta dela eta asimilazio hori posiblea ez denean, Udalak erabileren sailkapena aldatuko du eta antolamendu orokorraren aldaketa gisa izapidetuko du.

2. atala. - Lurzoruaren erabileren sailkapena

1.3.1.4 artikulua Lurzoruaren erabileren sailkapena

- Lursailetan eta eraikuntza eta instalazioetan lurzoruen erabileren kokapena arautzeko helburuarekin, lurzoruen erabilerak mota hauetan sailka daitezke:
 - Lurraldean kokatu ahal diren ala ez kontuan hartuta.
 - Baimendutako erabilerak.
 - Erabilera debekatuak.
 - Jabetza-araubidearen arabera.
 - Erabilera publikoak.
 - Administrazio Publikoko erabilerak.
 - Erabilera pribatuak.
 - Erabilerak eraikuntza edo instalazioaren batekin lurzoria okupatzen duen ala ez kontuan hartuta, hori erabileraren oinarrizko ezaugarria baita.
 - Eraikuntzak edo instalazioak eutsitako erabilerak: eraikuntzako erabilerak.
 - Eraikuntzak edo instalazioak eutsitakoak ez diren erabilerak: eraikuntzakoak ez diren erabilerak.
 - Jardueren izaeraren arabera, erabilerak mailatan eta azpimailatan antolatzen eta ordenatzen dira. Hau da lehenengo maila:
 - Etxebizitza.
 - Industria.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 11 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- d.3 Hirugarren sektorea.
- d.4 Komunitatearen ekipamendua.
- d.5 Komunikazioak eta garraioak.
- d.6 Olgeta eta aisialdia aire zabalean.
- d.7 Zerbitzu-azpiegiturak.
- d.8 Landa-erabilerak.

2. Hurrengo ataletan, aipatutako erabilerak dagozkien azpimailetan banatuko dira.

1.3.1.5 artikulua **Baimendutako erabilera, berezko erabilera, lehenetsitako erabilera eta erabilera bateragarria. Erabilera debekatua**

1. Baimendutako erabilera da, erabilera nagusi gisa, gune bakoitzeko kalifikazio orokorreko erabilera baimenduen zerrendan eta azpiguneetako kalifikazio xehatuan agertzen dena.

Erabilera osagarriak, zerbitzu erabilerak eta erabilera asimilatuak ere baimendutaz joko dira (ez dago zertan zehaztu).

2. Esparru edo eraikin batean baimendutako erabileren barruan berezko erabilera deritzo planeamenduan onartutako sestra gaineko eraikigarritasunaren zatirik handiena agortzen duelako edo planeamenduan ezarritako lehenetsun hurrenkeran lehenengoa delako esparruaren bereizgarri den erabilerari.

Planeamenduak berezko erabilera modu irekian, orokorrean edo berezi gabe adierazten badu, berezko erabileratzat hartuko dira hark exijitzen dituen betekizunak betetzen dituzten beheragoko azpimailetako erabilera zehatzak.

3. Eremita bateko (gunea, azpigunea, partzela edo eraikina) arautegiak ez badu finkatzen berezko erabileratzat baimendutako erabileraren bat, lehenetsitako erabilerak ezarri ahal izango ditu (batzuk edo bat bakarrik). Erabilera horiek eremua ondo antolatzeke komenigarritzat jotzen direnak izango dira; horien ezarpena hirigintzako edota eraikuntzako parametro onuragarriagoak emanda sustatuko da.

Hirigintza-eremuen araudian sartutako erabilera baimenduei dagokienez, gehienez hiru erabilera baimendu aipatzen dira. Horretan ezarritako ordenak derrigorrezko lehenetsunezkoa edo, hala badagokio, antolamenduak lehenesten duena adierazten du.

4. Oro har, erabilera debekatuak dira segurtasun, osasungarritasun eta lasaitasunaren alorretan, kultura-ondarea eta natura-ingurunearen babeserako, uren eta komunikabideen alorretan emandako xedapen orokorren eta kalifikazioen zehaztapenek debekatzen dituztenak.

Zehazki, erabilera debekatuak dira kalifikazioak onartzen dituen erabileren zerrendetan espresuki aipatzen ez direnak, arau orokor hauetako 1.3.1.3 "Hirigintza-arau hauetan ageri ez diren erabilerak" eta 1.5.2.2 "Erabileren ezarpenari dagozkion baldintza komun orokorrak" artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 12 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Dulantzi udalerrriak berariaz adierazi du fracking gabeko udalerrria dela, eta, ondorioz, **fracking bidezko erauzketa debekatu da.**

1.3.1.6 artikulua Erabilera publikoak

1. Erabilera publikoak dira bizitza sozialaren ondorioz biztanleriak dauzkan beharrak asetzen dituztenak; administrazio organoek egiten dituzte sistema orokorretako guneetan eta tokiko sistemetako azpiguneetan dauden lurretan edota eraikinetan eta instalazioetan.
2. Aurreko ezaugarrien parte izanik kontzesio administratiboaren bitartez beste erakunde bati emanda dauden erabilerak publikotzat joko dira ondorio guztietarako.
3. Derrigorrez eta dohainik lortutako tokiko zuzkidura publikoen erabilerak baimendutzat joko dira beti, eta ez da beharrezkoa izango hori kalifikazioan berariaz adieraztea.

1.3.1.7 artikulua Erabilera pribatuak edo irabazteko erabilerak

1. Aurreko artikuluko erabilera publikoen definizioan jasota ez dauden erabilera guztiak erabilera pribatu edo irabazteko gisa kontsideratuko dira, eta aprobetxamenduaren parte izango dira, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian kokatuta daudenean.
2. Halaber, antolamenduaren arabera sistema orokorrak edo toki-sistemak osatu behar ez dituzten lursailetan Administrazio Publikoak garatzen dituen jardueri dagozkien Administrazio Publikoaren erabilerak ere erabilera pribatutzat joko dira.

3. atala. - Bizitegi-erabileraren edukia

1.3.1.8 artikulua Definizioa eta motak

1. Bizitegi-erabilera hauxe da: familiaren ohiko jokaera duen taldea eratzen duten pertsona batzuk bizi diren egoitza iraunkorrek (pertsona horiek ahaideak izan daitezke edo ez).
2. Bizitegi-erabileraren barruan azpimaila edo modalitate hauek daude:
 - a) Araubide orokorreko babes sozialeko etxebizitza.
 - b) Araubide bereziko babes sozialeko etxebizitza.
 - c) Prezio tasatuko etxebizitza librea.
 - d) Etxebizitza librea.
3. Gainera, aurreko erabilerak ondoko hauetan bereizten dira eraikinaren motaren arabera:
 - a) A mota: Familia bakarrekoko etxebizitza isolatua.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 13 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) B mota: Bi etxebizitzako eraikinean dagoen etxebizitza edo bi familiako etxebizitza.
- B.1 mota: bi familiako etxebizitza atxikia.
 - B.2 mota: bi familiako etxebizitza isolatua, horizontalean.
 - B.3 mota: bi familiakoa, isolatua, bertikalean.
- c) C mota: Familia bakarreko etxebizitza atxikia edo lerroan multzokatua.
- d) D mota: Familia anitzeko etxebizitza.
- D.1 mota: Familia anitzeko etxebizitza konpaktu irekia, dentsitate txikikoa.
 - D.2 mota: Familia anitzekoa, familia anitzeko eraikin orokorrean.
4. **Familia bakarreko etxebizitza isolatua** eraikin bakar eta isolatua da, partzela independente batean dagoena eta bertan familia-unitate bakar bat bizitzeko dena. Eraikinak ezkaratz propioa izango du solairuetako batean, eta bide publikotik edo bide-zor batetik ibilgailu-sarbide eta oinezkoentzako sarbide propio eta eskusiboa izango ditu.
5. **Bi familiako etxebizitza** eraikin bakar eta isolatu bakarrean dago, eta bi familia-unitate edo etxebizitzatarako erabiliko da. Hiru modalitatearen arabera sailka daiteke:
- a) Bi familiako binakako etxebizitza partzela independenteetan dauden bi etxebizitza multzokatzearen ondorio den eraikina da. Multzokatze horrekin, bi etxebizitzek ezkaratz propioa izan ahalko duten edozein solairutan, eta bide publikotik edo bide-zor batetik ibilgailu-sarbide eta oinezkoentzako sarbide propio eta eskusiboa izango dituzte. Multzokatzea horizontala izango da; hortaz, etxebizitzetako gela bat ere ezingo da bat etorri plano bertikalean. Eraikinak itxura konpaktua izango du, eta elementu edo gorputz bolumetrikoko bat baino gehiago badu, bi etxebizitzaren arteko lotura bolumen handieneko gorputzak atxikiz egingo da, fatxada etengabea sortuz. Bi gorputz txikien bidez (altueragatik eta/edo zabaleragatik) familia bakarreko eraikuntza-motako bi eraikin lotzeko amarruaren ondoriozko soluzio arkitektonikoa ez da inoiz familia bakarreko etxebizitza atxikitat hartuko.
 - b) Bi familiako etxebizitza isolatua, horizontalean, arkitekturari dagokionez bat dator familia bakarreko binakako etxebizitzaren definizio eta baldintzekin, baina, salbuespen gisa, partzela independente bakarrean dago.
 - c) Ardatz bertikalean multzokatutako bi familiako etxebizitza eraikin bakar eta isolatua da, partzela independente batean dagoena, eta bertan bi familia-unitate bizitzeko da.
- Eraikinak ezkaratz propioa izan beharko du solairuetako batean, eta tokiko bide-sistemetatik eta orokorretatik edo bide-zor batetik ibilgailu-sarbide eta oinezkoentzako sarbide propio eta eskusiboa izango ditu. Etxebizitza-unitate bakoitzerako sarbidea, orokorrean, eraikinean bertan dauden elementu komunetatik egingo da.
- Izan ere, familia bakarreko binakako etxebizitzak eta ardatz horizontalean multzokatutako bi familiako etxebizitza isolatuak hurrengo puntuan deskribatutako familia bakarreko etxebizitza atxikiaren ezaugarriak dituzte. Hala

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 14 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

ere, puntu honetan eraikin-erabilera eta -mota espezifiko gisa sartzea erabaki da, ohiko interpretazioa eta jarduera ez aldatzeko.

6. Familia bakarreko etxebizitza atxikia edo lerroan multzokatua.

- a) Familia bakarreko etxebizitza atxikiak edo lerroan multzokatuak familia bakarreko bi etxebizitza baino gehiago lerroan multzokatuak eratzen diren eraikinak dira, elkarrekin eraikin bakar eta isolatua sortuz.
Multzokatzea horrela egiten da: etxebizitzak ardatz horizontalean atxikitzen dira, bakoitzak ezkaratz propioa izan dezan edozein solairutan, eta bide publikotik edo bide-zor batetik ibilgailu-sarbide eta oinezkoentzako sarbide propio eta eskusiboa izango dituzte. Etxebizitzaren multzokatze horizontal horretan, etxebizitzetako gela bat ere ezingo dira bat etorri plano bertikalean. Era berean, eraikinari aurreko puntuko a) ataleko bigarren paragrafoan adierazitako arkitektura-konposizioko baldintzak aplikatuko zaizkio.
- b) Kasu berezi gisa, familia bakarreko etxebizitza atxikitat hartuko dira partzela bakarrean dauden etxebizitza bat edo biko eraikina ere, baldin eta egoera hauetako bat ematen bada:
- b.1 Mugetako batean lehendik dagoen eraikin bati atxikitzen bazaio, aurrealde eraiki bat osatu, mehelinak ezkutatu eta abar egin nahi denean.
- b.2 Muga baten edo gehiagoren bidez mota bereko eraikin berri bati edo gehiagori atxikitzen zaionean.
- c) Kalifikazio xehatua arautzeko, horiek bereizteko, eraikin horietan egiten diren erabilerei familia bakarreko etxebizitza atxiki indibidual eta bi familiako etxebizitza atxiki deituko zaie.

7. **Familia anitzeko etxebizitza** hainbat etxebizitza-unitate elkartzen diren eraikinean kokatuta dago, eta, bazterketa bidez, unitateok ez dituzte aurreko puntuetan deskribatutako etxebizitzaren multzokatze-baldintzak betetzen.

Erabilera horren ezaugarria da etxebizitza-unitate bakoitzera eraikineko elementu komunetatik sartzen dela. Hala ere, ezaugarri hori ez da ezinbesteko baldintza erabilera familia anitzeko etxebizitzat hartu behar izateko; izan ere, familia bakarreko etxebizitza atxikirako ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten arren, etxebizitza bakoitzera bide publikotik edo bide-zorretik sarbide propio eta independentea ahalbidetzen duten bestelako etxe-multzoak izan daitezke.

Honako mota hauek bereizten dira familia anitzeko etxebizitzetan:

- a) "Dentsitate txikiko eraikin trinko eta irekian" dagoen etxebizitza, hiru eta hamasei etxebizitza bitartean dituen eraikin trinko bakartu batean dagoena, partzela independente batean. Gainera, ezingo du sestra gainetik lau solairu baino gehiago izan.
- b) "Familia anitzeko eraikin orokorrean" kokatutako etxebizitzak familia anitzeko etxebizitzaren eraikinetan dauden guztiak dira, aurreko atalean zehaztutakoak izan ezik.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 15 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

8. Etxebizitza-erabileraren erabilera osagarritzat jotzen dira aire zabaleko edo eraikuntzen barruko aparkalekuak, kiroleko instalazioak (pistak, pilotalekuak eta abar), txokoak, etxolak eta abar. Hala ere, igerilekuak ez dira etxebizitza-erabileraren erabilera osagarritzat hartzen.
9. 1. mailako industria-erabilera parekatutzat hartzen dira 18 oherainoko ostatu edo egoitzak, bulegoak (herri-administrazioenak barne) eta bulego profesionalak, jendearentzako zerbitzuak eskaintzen dituen txikizkako merkataritza, esaterako ile-apaindegia eta antzekoak, eta nekazaritza-turismoko edo landa-turismoko establezimenduak.

4. atala. - Industria-erabileraren edukia

1.3.1.9 artikulua Definizioa eta motak

1. Industria-erabilera da energia produktuak ateratzeko eragiketak aurrera eramatea nahiz produktuak egiteko, eraldatzeko edo konpontzeko eragiketak aurrera eramatea helburu duen erabilera. Era berean, erabilera honetan ondasun eta produktuen gordailutze-, zaintza- edo biltegitratze-jarduerak sartzen dira, baita handizkako salerosketak berezkoak dituen biltegitratze- eta banaketa-funtzioak ere.
2. Industria-erabileraren barruan azpimaila edo modalitate hauek daude:
- a) Meatzaritza, erauzketa-industriak.
 - b) Manufaktura-industriak.
 - b.1 Eraldatze-industriak.
 - b.2 Nekazaritza eta basozaintzakoak.
 - c) Artisautza eta arte-produktuak.
 - d) Lantegiak:
 - d.1 Etxetresna elektrikoak konpontzeko lantegiak.
 - d.2 Ibilgailuak konpontzeko lantegiak.
 - d.2.1 Konponketa elektromekanikoak.
 - d.2.2 Txaparen eta pinturaren konponketak.
 - d.3 Eraikuntzako lanbideetarako lantegiak.
 - e) Biltegiak eta handizkako saltegiak:
 - e.1 Nekazaritza eta basozaintzako ustiategiei lotutako biltegiak.
 - e.2 Gainerako biltegi eta handizkako saltegiak.
3. Meatzaritza edo erauzketa-industriak aire zabaleko ustiategietan edo zorupekoetan mea baliabideak ateratzera bideratutako jarduerak dira, bai eta horiekin zuzenean erlazionatutako jardura lagungarriak ere.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 16 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Manufakturako eraldaketa-industrietan nekazaritza, abeltzaintza edo basozaintzarekin (hazitokia, animalien eta landako produktuen tratamendua, sotoak eta abar) zerkusia ez duten gaiak transformatzen eta eskuztatzen dituzte.
5. Eskulan eta produktu artistikoen erabilera seriekoak ez diren edo serie txikietakoak diren prozedurak erabiliz produktuak lortzea edo eraldatzea eginkizun nagusi duten jarduerak dira.
6. Lantegien erabilera etxeko kontsumoko produktuen konponketa eta tratamendua da; etxeko kontsumoko produktuak berreskuratu edo aldatzeko helburuarekin, baina beren hasierako izaera galdu gabe, produktu horiek konpontzea helburu nagusi duten jarduerak dira.
Eraikuntzako lanbideetako lantegiek bai eraikinak, bai urbanizazio-obrak egiten parte hartzen duten eraikuntzako berezko jarduerak barne hartzen dituzte.
7. Biltegi eta handizkako saltegiatarako erabileratzat hartzen dira jarduera hauek: jarduera lokabeak (edota produkzioko jarduera nagusi bati lotuta daudenak baina horretatik banandutako kokagunea behar dutenak), baldin eta ondasun zein produktuak gorde edo biltegitratzeko helburua badute, bai eta handizkako salerosketarako ondasunak bildu eta banatzeko helburua badute ere.
8. Erabilera osagarritzat jotzen dira establezimenduko administrazio- eta salmentabulegoak, jardueraren ikerketa eta garapenerako erabiltzen diren lokalak, langileen aldagelak eta atseden hartzeko guneak, zerbitzuko biltegiak, ekoizteko eta mantentzeko baliabideenak, suteen kontrako babes-zerbitzuak, sortzen diren hondakinen arazketa eta erabilera nagusia modu egokian garatzeko beharrezkoa den beste edozein. Edozein kasutan, zaindariaren etxea ez da industriarako erabilera osagarritzat hartzen.

1.3.1.10 artikulua Industria-erabileraren kategoriak

Industria-erabileraren barruan kategoria hauek daude:

1. 1. kategoria. Etxebizitzarekin bateragarria den industria-jarduera.
2. 2. kategoria. Etxebizitzekin bateragarria ez den industria-jarduera.

1.3.1.11 artikulua Etxebizitzarekin bateragarria den industria-jarduera

1. Eskuz edo 1 kW baino gutxiagoko potentzia duten motorrekin mugitzen diren makina edo aparatuek erabiltzen dituzten jarduerak dira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 17 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

2. Etxebizitzaren eraikinetan onartuko dira 0,03 kW/m²-ko batez besteko potentzia muga eta gehienez ere 5kW-ko guztizko potentzia dutenak.

3. Potentzia mekanikoari, zarata-malei eta gas eta hautsen emisioei buruzko datuak, egoeraren arabera baimenduko direnak, ondoren aipatzen direnak dira:

Batez besteko potentzia (kW/m ²)	0,03
Gehieneko potentzia, guztira (kW)	5
Kanpoko gehieneko zarata-maila egunez (dBA)	40
Kanpoko gehieneko zarata-maila gauzez (dBA)	0
Barruko gehieneko zarata-maila egunez (dBA)	55
Barruko gehieneko zarata-maila gauzez (dBA)	0
Ringelmann indizea martxan	0
Ringelmann indizea abiatzean	0
Gehieneko hauts-isuria (Kg/ordu)	1,5

4. Goizeko 08:00etatik gaueko 10:00etara arte izango da eguna, eta gainerakoa, berriz, gaua.

Bien egiaztapena industria guztiz geldi dagoela eta elementu guztiak funtzionatzen ari direla egingo da.

5. Ringelmann-en belzte indizea errekuntzako gasei buruzkoa da.

6. Soinu-mailak fatxadatik 1,5 metrora neurtuko dira, industria jardueretarako erabiltzen den eraikuntzaren kanpoko aldean eta barruan ere bai, eta hondoko zarata-mailatik gehienez 3 dBA-ko igoera onartuko da. Industriako lokalaren barruan maila handienaren neurketa ate eta leiho guztiak itxita daudela egingo da.

Bien egiaztapena industria guztiz geldi dagoela eta elementu guztiak funtzionatzen ari direla egingo da.

1.3.1.12 artikulua Etxebizitzarekin bateragarria ez den industria-jarduera

1. Honen barruan hauexek sartzen dira: etxebizitzaren ondoan onartzen ez diren jarduera deserosoak; industria txikia, ertaina eta handia, oro har.

2. Kalifikazio orokorra dela eta berezko erabilera industria-erabilera duten zonetan soilik baimentzen da (ez dago lanpostu, potentzia eta azalera mugarik).

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 18 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

3. Beste jarduera batzuk gertu izatearekin bateragarria ez izateagatik berezita eta toki jakin batean egon behar duen jarduera osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsua kasu berezia da. Industria-mota hori ez dago baimenduta udalerrian.

5. atala. - Hirugarren sektoreko erabileren edukia

1.3.1.13 artikulua Definizioa eta motak

- Hirugarren sektoreko jarduerak dira helburutzat jendeari zerbitzuak ematea dutenak, komunitatearen ekipamenduak salbu.
- Bertan, mota hauek bereizten dira:
 - Bulegoak.
 - Txikizkako merkataritza:
 - Merkataritza, oro har.
 - Saltoki handiak.
 - Ostalaritza.
 - Hotelak.
 - Kanpinak eta epe laburreko beste ostatu-mota batzuk.
 - Kanpinak.
 - Gazteentzako aterpetxeak eta mendikoak.
 - Oporretako udalekuak.
 - Landetxeak eta nekazaritza-turismoa.
 - Beste ostatu batzuk.
 - Jatetxeak eta tabernak.
 - Jantoki kolektiboak eta prestatutako janarien banaketa.
- Erabilera osagarritzat jotzen dira langile eta erabiltzaileentzako aparkalekuak, erabilera nagusiko ekoizpen eta mantentze-lanetarako baliabide eta zerbitzuen biltegiak, baita bulegoek ondo funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako erabilera guztiak ere.
- Bulegoak administrazio-zerbitzuak, zerbitzu teknikoak, finantza-zerbitzuak eta informatikoak eta abar ematea eginkizun nagusi duten jarduerak dira. Administrazio publikoaren bulegoak multzo honetatik kanpo geratzen dira.
- Txikizkako merkataritzaren erabilerak barne hartzen ditu jendearentzako artikulua eta produktuen salmenta eta jendearentzako zerbitzu prestazioa, hala nola ile-apaindegiak, tindategiak eta antzeko beste jarduera batzuk.
- “Saltoki handiak” autonomia-erkidegoko sektoreko legerian halakotzat jotzen direnak dira.
- Ostalaritzako erabileraren barruan sartzen dira jendeari aldi baterako ostatu emateko jarduerak, modalitatea zeinahi dela ere.
Alokairuan dauden apartamentu-multzoek hotel-apartamentu gisa hartuak izateko dagokien sektoreko legerian ezartzen diren betekizunak betetzen ez dituztenean,

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 19 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

apartamentu horiek ezartzeari dagokionez, "egoitza kolektiboa" erabileraren barruan sartuko dira, erabilera horrek berezko dituen batasun funtzional eta antolamenduzkoaren baldintzak betetzen badituzte. Bestela, etxebizitzak izango dira. Landa-ingurunekeo turismo-ostatuko establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretuan daude araututa.

8. Kanpinak, kanpalekuak eta autokarabanentzako guneak turistak oporretako elkarbizitza aire zabalean dastatu ahal izateko eraman eta egonaldia amaitzean kentzen dituen aterpeekin (kanpadendak, autokarabanak edo antzekoak) aldi batera betetzeko mugatutako eta egokitutako tokiak dira; gune horietan azalera txikiko eraikinak egon ahal dira zerbitzu osagarrietarako (harrera, komunak, aldagelak, taberna, sukaldea, langileen ostatua, etab.), baita sektoreko araudiak baimendutako beste instalazio batzuk. Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kanpaldi-turismoko modalitate batzuk arautzeari buruzko uztailaren 30eko 396/2013 Dekretuan daude araututa.

6. atala. - Komunitatearen ekipamenduen erabileren edukia

1.3.1.14 artikulua Definizioa eta motak

1. Komunitatearen ekipamenduen erabileratzat hartzen dira gizarteko kide guztien banakako nahiz taldeko beharizanak asetzeko helburua duten jarduerak.
2. Sailkapen xehatuan, honako mota hauek bereizten dira:
 - a) Irakaskuntza:
 - a.1 Lehen eta bigarren hezkuntza (haur-hezkuntza barne).
 - a.2 Goi-mailako irakaskuntza.
 - a.3 Etengabeko trebakuntza eta irakaskuntzako beste jarduera batzuk.
 - b) Aisia eta kultura:
 - b.1 Liburutegiak, museoak eta bestelako kultura-erakundeak.
 - b.2 Ikuskizunak.
 - b.2.1 Antzokiak eta zinema-aretoak.
 - b.2.2 Dantza-aretoak, diskotekak eta antzeko jarduerak.
 - b.2.3 Azokak eta antzekoak.
 - b.2.4 Zezen-plazak.
 - b.2.5 Beste batzuk.
 - b.3 Biltzar-jauregiak.
 - b.4 Produkzio artistiko eta ikus-entzunezkoak eta ikuskizunen produkzioak.
 - b.5 Jolasak eta ausazko jokoak.
 - b.6 Beste batzuk.
 - c) Kirola:
 - c.1 Estadioak eta kiroldegiak:
 - c.1.1 Estadioak, futbol-zelaiak eta abar.
 - c.1.2 Kiroldegiak, pilotalekuak, tenis-pistak eta abar.
 - c.2 Golf-zelaiak.
 - c.3 Zaldiketa eta zalditegiak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 20 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- c.4 Beste instalazio batzuk.
 - d) Osasuna:
 - d.1 Osasun-arloko jarduerak.
 - d.1.1 Ospitaleko jarduerak.
 - d.1.2 Medikuntzako eta odontologiako jarduerak.
 - d.1.3 Osasun-arloko beste jarduera batzuk.
 - d.2 Albaitaritzako jarduerak.
 - e) Gizarte-zerbitzuak.
 - e.1 Ostatu ematen duten gizarte-zerbitzuak. Egoitza kolektiboak.
 - e.2 Ostatu ematen ez duten gizarte-zerbitzuak.
 - f) Erljioa.
 - g) Erakundeak.
 - h) Zerbitzu publikoak.
 - h.1 Defentsa, segurtasuna eta babes zibila.
 - h.2 Posta eta telekomunikazioak.
 - h.3 Hiri-zerbitzuak.
 - h.3.1 Hiriko zerbitzuak:
 - h.3.2 Hiltegiak.
 - h.3.3 Ehorztetxeak: hilerriak, beilatokiak eta errausketa-labeak.
 - h.3.4 Autobus publikoen garajeak eta antzekoak.
 - h.3.5 Beste hiri-zerbitzu batzuk.
 - i) Beste ekipamendu batzuk.
3. Erabilera osagarritzat jotzen dira administrazioiko eta kudeaketa-bulegoak, ekoizpen-eta mantentze-lanetarako baliabide eta zerbitzuen biltegiak, langile eta erabiltzaileen aparkalekuak, zaindariaren etxea, baita helburu horietarako beharrezkotzat jotzen diren gainerako erabilera guztiak ere.
4. Irakaskuntzako erabileraren barruan gizakien adimena hezteko jarduerak sartzen dira: araututako irakaskuntza (maila guztiak), haurtzaindegiak, arautu gabeko irakaskuntza eta ikerkuntza.
5. Aisia eta kulturako erabileraren barruan sartzen dira ezagutza zaindu eta transmititzea, eta, nagusiki kultura izaera duten jardueren bidez, pertsonen aisia aberasgarria eta olgeta sustatzea
6. Kirol-erabileraren barruan sartzen dira hiritarrek kirolean jarduteko eta haien kultura fisikoa lantzeko instalazioak.
7. Osasunaren barruan hauexek sartzen dira: anbulatorioan nahiz ospitaleratuta laguntza medikoa eta kirurgia-zerbitzuak emateko jarduerak. Albaitaritzako jarduerak ere hortxe sartzen dira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 21 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

8. Barne hartzen du pertsonen gizarte-zerbitzuen bitartez ematen zaien laguntza, ez espezifikoki sanitarioa, hala nola adinekoentzako arreta.
9. Erlijio-erabileraren barruan nor bere erlijioko errituak egiteko jarduerak sartzen dira.
10. Erakunde-erabileraren barruan organo publikoek dauzkaten eskumenen arabera beren ardurapekoak diren zerbitzuei lotuta egiten dituzten administrazio-jarduerak sartzen dira.
11. Defentsa, segurtasun eta babes zibilaren barruan sartzen dira defentsa nazionalerako, ordena publikoa zaintzeko eta herritarrek babesteko jarduerak, hala nola su-hiltzaileen instalazioak eta antzeko beste batzuk.
12. Hiri-zerbitzuak dira hiri-zerbitzu publikoen (garajeak, hiltegiak, hornidura azokak eta abar) eta hilerrien hirigintzako hornidura-beharrak asetzea helburu duten jarduerak.

7. atala. - Komunikaziorako eta garraioetarako erabileraren edukia

1.3.1.15 artikulua Definizioa eta motak

1. Komunikabideetako eta garraioko erabileratzat hartzen dira jardura hauek: pertsonak eta garraiorako ibilgailuak mugitzeko, eta azken horiek aparkatzeko ere, egiten diren jarduerak.
2. Erabilera horretan, mota hauek bereizten dira:
 - a) Errepideetakoak.
 - a.1 Errepideak.
 - a.2 Udalerriko bideak:
 - a.2.1 Galtzadak.
 - a.2.2 Espaloiak.
 - a.2.3 Aparkaleku atxikiak.
 - a.2.4 Babeserako espazioak.
 - a.3 Aparkalekuak:
 - a.3.1 Aire zabaleko aparkalekuak, bideei lotuta ez daudenak.
 - a.3.2 Eraikuntzakoak.
 - a.4 Erregai-hornikuntzako guneak.
 - a.5 Atxikitako jarduerak:
 - a.5.1 Autobus-geltokiak.
 - a.5.2 Errepideko garraioaren zentroak.
 - a.6 Landa-bideak.
 - b) Oinezko eta/edo bizikletentzakoak:
 - b.1 Oinezkoentzako kaleak eta pasealekuak.
 - b.2 Oinezkoentzako kale tolerantziadunak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 22 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b.3 Bizikletentzakoak.
- c) Trenbidekoak.
- d) Airekoak.
- e) Garraio intermodaleko zentroak.
3. Errepideetako erabileraren barruan, erabilera osagarritzat jotzen dira zirkulazioaren beharrak asetzera bideratutakoak, adibidez, edukiera kontrolatzeko instalazioak, zamak pisatu eta kontrolatzeko direnak, aparkalekuak eta atsedenlekuak, eta errepideen erabiltzaileen zerbitzura daudenak, kontrol-zentroak, makineria-parke eta -biltegiak, eta zirkulazioaren eta errepideen erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna erraztera bideratutako antzeko beste erabilera batzuk, bai eta kontserbazio eta ustiapen egokiak izatera bideratutakoak ere.
4. Hauek dira errepideko garraio zentroen erabilera osagarriak: salgaien garraioa antolatzeaz arduratzen diren enpresentzako eta aduana agenteentzako bulegoak; zentroko langileentzako eta bisitarietarako gasolindegia, garajeak, ibilgailuen mantentze- eta konponketa-lanetarako lantegiak, jatetxeak, txikizkako merkataritza, hotelak eta abar; eta erabilera nagusia egoki gauzatzeko ezinbesteko gainerako erabilerak.
5. Aparkalekuak.
- a) a.2.3.2 erabilera, "aparkaleku atxikiak": bide publikoetan atxikitako aparkalekuak aplikatu beharreko hirigintzako legerian ezarritakoak izango dira.
- b) a.3 erabilera, "aparkalekuak": oin berriko eraikinak, eraikinaren barruan edo partzelako kanpoko espazio librean jarraian adierazitako gutxieneko hornidura izan beharko dute, eraikin-motaren arabera:
- b.1 Bizitegi-eraikinetan: 1,5 plaza etxebizitza bakoitzeko, aintzat hartuta koefiziente hori aplikatzean zatikizko zenbakia geratzen denean, zifra handiagora biribilduko da.
- b.2 Industria-erabilerako eraikinetan: toki bat 200 metro karratu eraikiko edo zati bakoitzeko.
- b.3 Bulego-eraikinetan: toki bat 100 metro karratuko azalera erabilgarriko edo zatiko.
- b.4 Merkataritza-eraikinetan: toki bat 70 metro karratuko azalera erabilgarriko edo zatiko.
- b.5 Hotel eta landetxeen eraikinetan: lau logelako toki bat.
- b.6 Jatetxe eta tabernen eraikinetan: ematen den lau laguneko zerbitzu bakoitzeko toki bat.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 23 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b.7 Kanpin eta aterpetxeetan: aplikatu beharreko legeria sektorialak ezarritakoa.
- b.8 Osasun-ekipamenduen eraikinetan: bi oheko toki bat.
- b.9 Ikuskizunetarako gizarte-ekipamenduetako eraikin, dantza-areto, zezen-plaza eta antzekoetan: edukieraren 15 lekuko toki bat.
- b.10 Liburutegi, museo eta antzekoen eraikinetan: toki bat 200 metro karratuko azalera erabilgarriko edo zatiko.
- b.11 Beste ekipamendu edo erabileretarako eraikinetan: bi langileko toki bat eta/edo bost zerbitzuko plaza bat, hartzaileak helduak badira.
- Edonola ere, urbanizazioaren bidez finkatu gabe dagoen hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian hirigintza-legeriak ezarritako estandarrek beteko dira.
- c) Hornidura horien aldaketa hirigintzako udal-ordenantza baten bitartez egin ahal izango da.
- d) Urbanizazioak finkatutako hiri-lurzoruan dagoen eraikin batean edozein motatako obra edo aldaketa egin nahi bada eta etxebizitza-kopurua areagotzea badakar, lursailaren barruan (eraikinaren barruan edo kanpoaldean) gehitutako etxebizitza berrien plaza-kopuru berbera aurreikusi beharko da.
6. Autobus-geltokien erabilera osagarrien barruan sartzen dira paketeak banatzeko zentroak, kafetegiak, jatetxeak, autobusen konponketa txikietarako eta mantentze-lanetarako lantegiak, merkataritza-gune txikiak, langile eta erabiltzaileentzako aparkalekuak, eta geltokiak modu egokian funtzionatzeko beharrezkoak diren gainerako erabilera guztiak.
7. "Trenbideko garraioaren" erabileraren barruan bidaiarien geltokiak sartzen dira, eta erabilera osagarritzat hartzen dira trenbideko garraioaren antolakuntzan aritzen diren enpresen bulegoak, eta bidaiaria-agentziak, langileen eta erabiltzaileen aparkalekuak, paketeak banatzeko zentroak, kafetegiak eta jatetxeak, merkataritza-gune txikiak, eta erabilera nagusiak modu egokian funtzionatzeko beharrezkoak diren gainerako erabilera guztiak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 24 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

8. atala. - Aire zabaleko aisia eta jolaserako erabileraren edukia**1.3.1.16 artikulua Definizioa eta motak**

- Aire zabaleko aisia eta jolas erabileraren barruan sartzen dira biztanleen osasungarritasuna, atsedena eta aisia bermatzeko jarduerak, hiri-espazioen ingurumen baldintzak hobetzeko direnak, haurren jolasak garatzeko direnak, natura begiratzeko direnak eta abar.
- Honako mota hauek barne hartzen ditu:
 - Hiriko aire zabaleko aisia eta jolasa. Espazio libreak:*
 - Hiri-parkeak.*
 - Berdegunak.*
 - Haurrentzako jolas- eta olgeta-eremuak.*
 - Oinezkoentzako eremuak.*
 - Hiritik kanpoko aire zabaleko aisia eta jolasa.*
 - Jolas trinkoa.*
 - Jolas estentsiboa.*
 - Bainuak eta uretako kirolak.*
- Hiri barruko aire zabaleko aisia- eta jolas-erabilerak honako hauek biltzen ditu nagusiki: lorategiak eta zuhaiztiak, oinezkoentzako pasealekuak, zumardiak, kioskoak, glorietak, urmaelak, aire zabaleko terrazadun taberna txikiak eta beste hornidura txiki batzuk, aisia-, jolas- eta josteta-jarduera gauzatzeko eta herriko espazioak apaintzen laguntzeko beharrezkoa den giroa osatzen dutenak.
- Hiri/hiritik kanpoko aire zabaleko aisia- eta jolas-erabileraren barruan, honakoak nagusitzen dira: pikniketako eta naturarekin kontaktuan jartzen gaituzten jarduerak, normalean hiriguneetatik urrun dauden tokietan, lurzoru urbanizaezinean, ekipamendu osagarriak (adibidez tabernak, aparkalekuak, bainatzeko tokiak eta abar) dauzkaten tokietan gauzatzen diren jarduerak.
Toki horietan luraren egoera naturala gailentzen da eta hirigintzako obren kopurua oso murrizta da.

Jolas trinkoa honela sailka daiteke:

- Olgeta eta aisia gune eraikietan:
Erabilera horietarako bakarrik diren eraikinetan egiten diren jolas-, olgeta- eta aisia-jarduerak hartzen dituzte, eta ez dute zertan lotuta egon lurzoru-azalera handietara.
Erabilera horiek maila zehatzagoetan banatu ahal dira, barne hartzen dituzten jardueren izaeraren arabera.
Adierazteko bakar-bakarrik, honako hauek bereizi dira: estadioak eta kirol-pabiloi handiak, ikuskizun-aretoak, kasinoak eta jolas-aretoak, etab.
- Olgeta eta aisia aisia-esparruetan:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 25 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Xedeari eta bertaratuak hartzeko edukierari dagokienez, ezaugarri bereziko instalazioak dituzten eta azalera handia duten eremuetan garatuetako jarduerak hartzen ditu barne.

Erabilera horiek barne hartzen dituzten jardueren ezaugarri eta funtzioen araberako kategoria zehaztuz daude banatuta.

Adierazteko bakar-bakarrik, honako hauek eman daitezke adibide gisa: jolas-parkeak; ur-parkeak; landa-erabilerekin lotuta ez dauden parke tematikoak; hipodromoak, hipika-zentroak, kanodromoak, belodromoak edo teilaturik gabeko antzekoak; kirol-guneak, klub nautikoak, tenis-klubak edo tamaina handiko beste kirol-klub batzuk; golf-zelaia; karting-zirkuituak; etab.

5. Hiritik kanpoko jolas-jarduera estentsiboen artean honakoak dira nagusiak: mendiko ibilaldiak eta naturarekin bat egiteko jarduerak, lurzoru urbanizaezineko eremu zabaletan gauzatzen direnak; jarduera horietarako ekipamendu-gune txikiak daude, ingurune naturalean erabat integratuak. Erabilera hori modu automatikoan baimenduko da, zehaztasun gehiagorik egin behar gabe, eta muga bakarrak beste edozein eskumen konkurrente batek ezarritakoak izango dira.

Jolas-jarduera estentsiboa honela sailka daiteke:

1. Olgeta eta aisia gune ez-egokietan:

Beste xede nagusi bat duten (sarritan, lurzoru urbanizaezineko berezkoak) lur-eremuetan aldi baterako garatzen diren jarduerak dira, eta erabilera nagusi horrekin bateragarriak direla irizten da, baldin eta bermatzen bada jarduera horiek amaitzean ez dela azterna nabarmenik geratzen.

Erabilera horiek, duten izaera dela eta, ez dakarte eraldaketa-jarduerarik egitea. Hala ere, ezarpen-baldintzak eta lursail zehatzen gaineko onargarritasuna modu berezian erregulatzeko, gutxienez bi talde zehatz bereizi behar dira, jarduera horien erabilerean ezaugarrien arabera:

- Olgeta elementala:
Animalia, baliabide, osagarri edo beste edozein ekipo osagarrikerik erabiltzen ez duten eta banaka edo talde txikietan egiten diren jarduerak dira.
Adibidez, honako hauek: naturari begiratzea, mendi-ibilgarritza, mendizaleatasuna, kanpadenda gabe gaua aire zabalean igarotzea, bainatzea, etab.
- Aisia ekipo arinarekin:
Landako edo itsasoko natura-inguruneari lotutako kirol- eta aisia-jarduerak dira, eta horietarako animalia, baliabide, osagarri edo beste edozein ekipo osagarri erabiltzen dira, baina arinak direnak eta motorrik ez dutenak bakarrik.
Taldea handietan antolatuta dauden eta/edo publikoak duten aisia-jarduerak ez dira talde horretan egongo.
Horien adibide dira honako hauek: zaldizko ibilaldiak, mendiko txirrindularia, kanpaldia, eskalada, kirol-ehiza, urpekarritza, lurreko kirol-arrantza, surfa, windsurfa, belazko nabigazioa, hegala egitea parapentean edo ala deltan, kometak hegatzeko, aerodelismoa, etab.

2. Olgeta eta aisia gune egokietan:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 26 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Behin betiko edo normalean jarduera horietarako prestatzen diren eremuetan egiten diren jarduerak dira; hala ere, jarduerak ez du eragin nabarmenik lursailean, eta ez da eraldatze handirik egiten inguru naturalaren gainean.

Erabilera horiek kategoriatan sailkatzen dira, eremua egokitzea dakarten jardueren ezaugarrien arabera, eta ingurunean egin behar diren aldaketan eta hartzen den azaleraren arabera.

Honako hauek dira kategoría espezifiko horien zenbait adibide: landa-erabilerekin lotutako parkeak, zoologikoak, lorategi botanikoak, zaldizko zentroak, aire zabalean kirola egiteko instalazioak, golfa ikasi eta entrenatzeko zelaia, plater-tiroa, arku-tiroa, kanpatzeko guneak, etab.

6. Oro har, "aire zabaleko aisia eta jolas" erabilera orokorraren erabilera osagarritzat jotzen dira mantentze-lanetarako beharrezkoak diren tresnak gordetzeko biltegi txikiak, mintegiak, eta erabilera nagusia garatu eta sustatzeko beharrezkoa den eta eraikuntzarik gabeko espazio librearen izaerari eragiten ez dion beste edozein erabilera.

1.3.1.17. artikulua. Espazio libreen sistema orokorreko espazioetan onartzen diren instalazio eta eraikinak

1. Aurreko artikuluko 3. puntuan adierazitakoaz gain, espazio libreen sistema orokorrari atxikitako espazioetan honako hauek onartuko dira:
 - a) Kirol, kultura edo aisialdirako ekipamenduko erabilerei lotutako instalazio eta eraikuntzak.
 - b) Edariak, loreak, aldizkariak eta abar saltzeko kioskoak (guztira 10 m² baino gehiagoko azalera ez badute eta erlaitzeraino gehienez 2,50 m-ko altuera badute) eta haien zerbitzurako lekuak (mahai eta aukietarako guneak).
 - c) Barneko bideak eta gainazaleko aparkaleku publikoak, bi kasuetan espazio librearen zerbitzurako direnak.
 - d) Lurpeko aparkaleku publikoak.
2. Instalazio horietako bakoitzak, gehienez, kalifikatutako azalera osoaren ehuneko 5 okupatuko du, d) paragrafoko kasuan izan ezik, kasu horretan azalera osoa hartu ahal izango baitu.
3. Nolanahi ere, aurreko puntuko c) eta d) paragrafoetako eraikuntza eta instalazioak alde batera utzita, sistema orokorreko beste osagaien azalera osoak hirigintza-legeriak eskatzen den gutxieneko estandarra bete beharko du.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 27 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.3.1.18. artikulua. Espazio libreen tokiko sistemari atxikitako lorategietan onartzen diren instalazio eta eraikinak

- 1.2.1.16. artikuluko 3. puntuan adierazitako erabilerez gain, espazio libreen tokiko sisteman sartuta dauden lorategietan aurreko artikuluko 1. puntuko a), b) eta d) paragrafoetan adierazten diren eraikuntza eta instalazioak onartuko dira.
- Instalazio horietan, gehienez, aurreko artikuluko 2. paragrafoan adierazitako okupazioa onartuko da, lur-azpiko aparkalekuen kasuan izan ezik. Horiek, izan ere, kalifikatutako azalera osoaren ehuneko 100 hartu ahal izango dute.
- Nolanahi ere, aurreko artikuluko 2. puntuko d) paragrafoko eraikuntza eta instalazioak alde batera utzita, tokiko sistemako osagaien azalera osoak hirigintza-legeak eskatzen den gutxieneko estandarra bete beharko du.

9. atala. Zerbitzu-azpiegituretarako erabileren edukia.**1.2.1.19 artikulua Definizioa eta motak**

- Zerbitzu-azpiegituretako erabileratzat hartzen dira azpiegiturei eta telekomunikazioei lotutako zerbitzuak hornitzeko egiten diren jarduerak.
- Mota hauek ditu:
 - Ur-hornidura.
 - Uraren saneamendua.
 - Energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura:
 - Energia-ekoizpena.
 - Energia elektrikoaren banaketa, transformazio-guneak.
 - Hondakinen tratamendua:
 - Hiri-hondakin solidoen tratamendua.
 - Hondakin geldo eta geldotuen zabortegiak.
 - Hondakin geldo eta geldotuak birziklatu eta aprobetxatzeko estazioak.
 - Lohien tratamendua eta araztegiak.
 - Beste tratamendu batzuk.
 - Gasaren eta petrolio-produktuen ekoizpena, garraioa eta banaketa:
 - Gasaren ekoizpena, garraioa eta banaketa.
 - Petrolioaren produktuen garraioa eta banaketa; oliobideak.
 - Telekomunikazio-azpiegitureak.
- Erabilera osagarritzat jotzen dira bulegoak, aparkalekuak eta ekoizpen- eta mantentze-lanetarako baliabide- eta zerbitzuen-biltegiak, beren jarduerak gauzatzeko beharrezkoak direnak, baita helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren beste guztiak ere.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 28 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Telekomunikazioetako azpiegituren erabileraren barruan ez dira sartzen soinua, irudiak, datuak eta bestelako informazioa igarotzea errazteko publikoarentzako bulegoak, irrati eta telebistako ekoizpen-zentroak, irratiak eta telebistak; horiek komunitateko jolas eta kulturarako ekipamenduen erabileran sartzen dira.

10. atala. - Landa-erabilerak

1.3.1.20 artikulua Definizioa eta motak

1. Landa-erabileratzat hartzen dira lehen sektoreko jarduerekin lotura zuzena dutenak eta, ondorioz, lurzoru urbanizaezinaren berezko jarduerak. Lehengai berriztagarriak diren baliabide naturalak ekoizteko eta erazteko jarduerak barne hartzen ditu, eta kanpo geratzen dira industria-erabilerakoak diren energia- edo meatzaritza-baliabideak erazteko jarduerak.
2. Erabilera horretan, mota hauek bereizten dira:
 - a) Nekazaritza.
 - b) Abeltzaintza.
 - b.1 Intentsiboa.
 - b.2 Erdi-intentsiboa.
 - b.3 Estentsiboa.
 - b.4 Hegatizaintza.
 - b.5 Ganaduaren beste ustiapen batzuk.
 - b.6 Nekazaritzarekin konbinatutako abeltzaintza.
 - c) Basogintza eta baso-ustiategiak.
 - d) Ehiza.
 - e) Arrantza eta akuikultura.
3. Jarduerak ekoizpenaren eraginkortasunerako berehalako eta lehenengo jarduera eraldatzaile bat behar duenean, azken hori dagokion erabilera nagusiaren barruan sartzen da.
4. Erabilera osagarritzat jotzen dira ekoizpen- eta erazketa-prozesuaren kudeaketarako eta administrazioarako bulego txikiak, langile eta erabiltzaileentzako aparkalekuak, produkzio-jarduerako ekoizpen- eta mantentze-lanetarako baliabide eta zerbitzuen biltegiak, baita erabilera nagusiak funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako erabilera guztiak ere.
5. Abeltzaintza intentsiboko erabileraren barruan funtsean abereak eraikuntzetan ukuiluratzea duen ekoizpena sartzen da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 29 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

6. Abeltzaintza erdi intentsiboaren barruan oinarrian abereak eraikinetan ukuiluratzea duten abeltzaintzako ekoizpeneko berezko jarduerak sartzen dira, eta txandakako larratzea ere bai.
7. Abeltzaintza estentsiboko erabileran sartzen dira larratzea funtsezkoa duten ganadu-ekoizpeneko jarduerak; horietan estabulazioa jarduera osagarria da.
8. Hegazti hazkuntzaren barruan sartzen dira: oilarrak, oiloak, indioilarrak, ahateak etab. haztea eta arrautzak eta beste produktu batzuk ekoiztea; hegazti basatien ustiapena ez da sartzen erabilera honetan.
9. Ganaduaren beste ustiategi-erabileren barruan daude Gune zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan zehaztutako gune zoologikoak.

11. atala. - Haztapan-koefizienteak

1.3.1.21 artikulua Haztapan-koefizienteak

Jarduketa Programaren eta Bideragarritasun Ekonomiko eta Finantzarioaren Azterketaren Memoriaren 7. kapituluari, 7.2.3 atalean, erabileren haztapan-koefizienteak kalkulatu dira orokorrean (4. taula).

Honako hauek dira koefiziente horiek:

Etxebizitza babestua BOE	1,00
Etxebizitza babestua Prezio tasatuko etxeb.	2,80
Etxebizitza kolektibo librea	3,09
K. historikoko fam. etxebizitza	2,22
K. historikoko fam. etxebizitza, lorategiarekin	2,94
Landa-eremuko fam. etxebizitza	2,58
Familia bakarreko etxebizitza atxikia	2,81
Familia bakarreko binakako etxebizitza	4,98
Familia bakarreko etxebizitza isolatua	5,25
BOEn eranskinak, garajeak	0,52
Prezio tas. etxeb. eranskinak, garajeak	0,59
EKLn eranskinak, garajeak	0,66
K. historikoko etxebizitzen eranskinak, garajeak	0,62
Landa kokaguneko etxebizitzen eranskinak, garajeak	0,62
F. B etxeb. atxikien eranskinak, garajeak	0,62
F.B. binakako etxebizitzen eranskinak, garajeak	0,71
F. B. etxebizitza isolatuen eranskinak, garajeak	0,71
Beheko solairuko lokalak	2,07
Nekazaritza eta abeltzaintzako pabiloia	0,70
Industria-erakina	2,40

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 30 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍA



HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Hirugarren sektoreko eraikina

3,14

Ezarritako koefizienteak azpiguneen edo horien zatien ekonomia- eta hirigintza-errealitatera egokitzen ez direla uste eta justifikatzen bada, errealitate horretara egokitu eta/edo eguneratuko dira, eta koefiziente ordezko berriak zehaztuko dira horiek egikaritzeko sustatu beharreko dokumentuetan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 31 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.3.2 KAPITULUA. KALIFIKAZIO GLOBALA

1.3.2.1 artikulua Gune, kalifikazio eta zonakatze globala. Definizioak eta edukia

1. Gunea hirigintza-ezaugarri orokor berdinak dituzten lursail homogeneoen multzo bat barne hartzen duen Planeko esparru bat da; ezaugarri horiek dira lurzoruaren erabilera, hirigintza-eraikigarritasuna eta eraikin-motak. Guneak, funtsean, hiri-egitura espezifiko bat du.
2. Plangintza orokorrean ezarritako lurzoruaren erabilerean arabera udal-mugartea bi gune-multzo handi hauetan zatitu da:
 - a) Sistema orokorretarako zona publikoak.
 - b) Gune pribatuak, zeinetan titulartasun pribatuko erabilera, eta, ondorioz, hirigintza-aholamenduaren ahalmenak definitzen dituen oinarritzko zehaztapenak ezartzen ditu horietako bakoitzerako

Kalifikazio orokorraren kontzeptuaren barruan, zonakatzearena sartzen da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 53.1 artikuluko b eta f paragrafoetan sartutako zehaztapena). Hori P1 "Lurzoru urbanizaezinenaren kalifikazioa" eta P4 "Egitura-antolamendua" planoetan jasotakoaren osagai grafikoa da.
4. Ildo horretatik, kalifikazio orokorrak honako zehaztapen hauek ezartzen ditu hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren gune bakoitzarentzat eta lurzoru urbanizaezineko sistema orokorretzat:
 - a) Gunearen izaera; hain zuzen ere pribatua, irabazteko erabilera pribatuekin, edo publikoa, irabazteko aholamendurik gabe eta zuzkidura publiko orokorrak jartzeko.
 - b) Bereko erabilerearen definizioa eta, hala badagokio, erabilera lehenetsiarena eta gainerako erabilera baimendu edo bateragarriena (Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.1 artikuluko b eta f paragrafoetan sartutako zehaztapena).
 - c) Zona pribatuetan, erabilera baimendu edo bateragarrien gehieneko eta gutxieneko hirigintza-eraikigarritasunak (Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.2. artikuluko c paragrafoan sartutako zehaztapena).

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 32 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

D) Lurralde-plangintzaren zehaztapenak beteko direla bermatzeko, zuzenean edo zeharka bizitegi-erabilera nagusia definitua duten guenetan, nahiz eta urbanizazioaren bidez finkatutako hiri-lurzoruan izan, librea izango da gehieneko etxebizitza-kopurua, edo orientagarria izango da.

e) Aukeran, eraikin-motak.

f) Aukeran, eraikinetan gehienez egon daitezkeen solairuen kopurua, zuzenean arautua.

g) Aukeran, eraikinek gehienez okupa dezaketen azalera, zuzenean arautua.

Zehaztapen horiek zona bakoitzerako definitzen dira dagokien hirigintza-eremuko (HE) arau berezian. Alabaina, berezko erabilerei eta, hala badagokio, lehenetsiei eta kalifikazio xehatu motari dagozkienak kapitulu honetan arautzen dira, hurrengo artikuluetan.

Aukerako zehaztapenak antolamendu xehatukoak dira.

5. Halaber, kalifikazio orokorrak ondokoak zehazten ditu lurzoru urbanizaezineko landa-gune bakoitzerako:

a) Gune bakoitzean baimendutako eraikigintzako jarduera edo erabilerak.

b) Partzelaren gutxieneko azalera eta lotutako gutxieneko azalera, lurzoruaren erabilera onartu bakoitzaren arabera.

c) Hirigintza-eraikigarritasunak, eraikin-motak, gehieneko solairu-kopurua eta eraikin berrien gainerako ezaugarri arkitektoniko guztiak.

Zehaztapen horiek zona bakoitzean definitzen dira, kapitulu honetako hurrengo artikuluetan eta bosgarren tituluan. "Lurzoru urbanizaezineko erabilera eta eraikuntzei buruzko ordenantzak".

1.3.2.2 artikulua Kalifikazio orokorraren sistematizazioa

1 Arabako hirigintza-plangintza normalizatzeko sistemak kalifikazio orokorra sistematizatu du zonakatzeko hiru maila hauen arabera:

a) Oinarrizko gune-motak: guneak berezko erabileraren arabera sailkatzen dira lehendabizi.

b) Gune-multzoak: mota bakoitzaren barruan multzoak sortzen dira oinarrizko hirigintzako ezaugarrien, eraikin-moten eta antolamendu-sistemen arabera.

c) Zonak: oro har jarraituak diren eremu espezifiko eta bereziak dira, aurreko puntuan adierazitako baldintzak betetzen dituztenak. Hala ere, gerta daiteke gune batean hori bereizten duten beste baldintza eta eraikin-mota dituzten azpiguneak egotea.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 33 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

2. Gune bakoitzak identifikazio zehatz bat dauka, hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian edo lurzoru urbanizaezinean kokatzen den kontuan hartuta.
3. Hauek dira erabilera orokorreko oinarrizko zona-motak:
- A. Bizitegi-guneak.
 - B. Industriaguneak.
 - C. Hirugarren sektoreko erabileretako guneak.
 - D. Gizarte-ekipamendu pribatuko guneak.
 - E. Komunikazioetarako gune publikoak.
 - F. Espazio libreen sistema orokorreko gune publikoak.
 - G. Komunitatearen ekipamenduaren sistema orokorraren gune publikoak.
 - H. Zerbitzu-azpiegituren sistema orokorren gune publikoak.
 - I. Sistema orokor hidraulikoko gune publikoak.
 - J. Landa-guneak.
4. Aurreko puntuan aipatutako gunen "oinarrizko motak" ondoren definitzen diren taldeen arabera garatzen dira, eta talde horietako bakoitzaren ezaugarri da erabilera eta eraikuntzako araubide espezifikoak:
- A. Bizitegi-guneak.
 - A.1 Hiri-kokagune zaharretakoak.
 - A.2 Landa-kokagune zaharretakoak.
 - A.3 Zabalgunekoak.
 - A.4 Eraikuntza irekikoak.
 - A.5 Garapen txikiko eraikuntzakoak.
 - A.6 Etxebizitza isolatuko eraikuntza.
 - B. Industriaguneak.
 - B.1 Arruntak.
 - B.2 Industria berezikoak.
 - B.3 Parke teknologikoak.
 - C. Hirugarren sektoreko erabileretako guneak.
 - C.0 Orokorrak.
 - C.1 Merkataritzakoak:
 - C.1.1 Arruntak.
 - C.1.2 Saltoki handiak.
 - C.2. Ostalaritzakoak.
 - C.3 Bulegokoak.
 - C.4 Enpresa-parkeetakoak.
 - D. Komunitatearen ekipamendu pribatuko guneak:
 - D.0 Orokorra.
 - D.1 Irakaskuntzakoak.
 - D.2 Kulturakoak.
 - D.3 Aisiakoak.
 - D.4 Kirola:
 - D.5 Osasunekoak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 34 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- D.6 Gizarte-zerbitzuetakoak.
- D.7 Zerbitzu publikoak.
- D.8 Erlijioakoak.
- E. Komunikazioetarako gune publikoak.
 - E.1 Bideak.
 - E.1.1 Errepideak.
 - E.1.2 Kaleak.
 - E.2 Oinezkoentzako eta/edo bizikletentzakoak.
 - E.3 Trenbideak.
- F. Espazio libreetako sistema orokorreko gune publikoak.
 - F.1 Hiri-parkeak.
 - F.2 Hiritik kanpokoak: Atsedenukuak.
 - F.3 Bainu-guneak eta hondartzak.
- G. Komunitatearen ekipamenduen sistema orokorraren gune publikoak.
 - G.0 Orokorra.
 - G.1 Irakaskuntzakoak.
 - G.2 Kulturakoak.
 - G.3 Aisiakoak.
 - G.4 Kirola.
 - G.5 Osasunekoak.
 - G.6 Gizarte-zerbitzuetakoak.
 - G.7 Zerbitzu publikoak.
 - G.8 Erlijioakoak.
 - G.9 Erakundeetakoak.
- H. Zerbitzu-azpiegituren sistema orokorren gune publikoak.
 - H.1 Ur-hornidurakoak.
 - H.2 Ur-saneamendukoak.
 - H.3 Energia elektrikoaren ekoizpen eta hornidurakoak.
 - H.4 Hondakinak tratatzekoak.
 - H.5 Gasaren eta petrolio-produktuen azpiegituretakoak.
 - H.6 Telekomunikazio-azpiegituretakoak.
- I. Jabari publiko hidraulikoko sistema orokorreko gune publikoa.
- J. Landa-guneak.
 - J.1 Babes bereziko guneak.
 - J.1.1 Balio naturalekoak.
 - J.1.2 Balio historiko eta kulturekoak.
 - J.1.3 Ingurumena hobetzekoak (A).
 - J.1.4 Baso-baliokoak.
 - J.1.5 Nekazaritza eta abeltzaintzakoak eta landazabalekoak.
 - J.1.6 Mendiko larreetakoak (A).
 - J.1.7 Azaleko urak babestekoak.
 - J.2 Gune babestuak.
 - J.2.1 Natura-interesekoak.
 - J.2.2 Interes historiko eta kulturekoak.
 - J.2.3 Ingurumena hobetzekoak (B).
 - J.2.4 Baso-interesekoak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 35 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- J.2.5 Nekazaritza- eta abeltzaintza-intereseakoak.
J.2.6 Mendiko larreetakoak (B).
J.2.7 Hiri-garapenerako ezegokiak izateagatik.
J.3 Landaguneak.
5. A, B, C, D eta J guneek gune pribatuak osatzen dituzte, eta, gainerakoek, gune publikoak edo sistema orokorretakoak.
6. Gainera, lurzoru urbanizaezinean, udalerriko antolamendua gainjarritako baldintzatzaile hauekin osatzen da:
1. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna duten eremuak.
 2. Higatu daitezkeen edo higadura-arriskua duten eremuak.
 3. Uholde- eremuak.
 4. Interes geologikoko tokiak.
 5. Interes komunitarioko habitatak.
 6. Naturgune babestuak.
 7. Igarobide ekologikoak.
 8. Ustezko eremu arkeologikoak.
 9. Paisaia bereziak eta apartekoak.
 10. Kultura-ondarea.
 11. Kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruen eremuak.
 12. Onura publikoko mendiak.
 13. Bide-komunikazioak babesteko eremuak.
 14. Trenbideko babes-eremuak.
 15. Bide berdea babesteko eremua. Vasco-Navarro trenbidearen trazadura zaharra, GR25 eta Donejakue bidea.

1.3.2.3 artikulua Dulantziko HAPOan dauden guneen zerrenda

P-1 "Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa" eta P-4 "Egitura-antolamendua" planoetan HAPOko guneak jaso dira.

1.3.2.4 artikulua Guneei aplikatu beharreko eraikuntzako eta erabilerako oinarrizko araubidea Irudikapen grafikoa:

1. Guneei aplikatu beharreko eraikuntza- eta erabilera-araubide orokorra zehaztaper hauen bidez osatzen da:
 - a) Dauden gune-talde bakoitzari aplikatu beharreko eraikuntzako eta erabilerako oinarrizko araubidea, hurrengo artikuluan jasotakoa.
 - b) Dagokion hirigintza-eremuaren arau partikularrean gune bakoitzerako ezarritako "Kalifikazio globaleko" zehaztasunak.
2. Kalifikazio globalaren mugaketa grafikoa P1 "Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa" eta P4 "Egitura-antolamendua" planoetan dago.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 36 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

**1.3.2.5 artikulua Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza Plangintza Normalizatze
Sistema osatzen duten eta plan honetan dauden gunemoten
definizioa****1. A1. Hirigune zaharretako bizitegi-guneak.**

- a) Kontzeptua: XIX. mendearen bigarren erdia baino lehenagoko herriguneek osatzen dituzten gunek dira, eta beren berezitasun eta interes historiko, kultural eta urbanistikoa dela-eta babestu egin nahi dira; horrez gain, funtsezkoan jatorrizko partzela-banaketa mantendu nahi da, baita espazioaren eta eraikuntzaren morfologia ere, eta balio nabarmena duten eraikuntza- eta urbanizazio-elementu guztiak zaintzea ziurtatu nahi da. Udalerrri honetan, gunehori AL.01 Hirigune Historikoan eta hurbil dauden AL.02 eremuen zati batean dago.

Ehundura kalearen tradiziozko irudia osatzen duelako bereiz daiteke; izan ere, elkarri atxikitako eraikuntzek mugatzen dute.

Eraikuntza berriak ere, tipologiaren funtsezko alderdietan, gunean dauden jatorrizko eraikuntza eta eraikinetako elementuei jarraikiz egingo dira.

- b) Kalifikazio xehatu bereizgarria: "a.1 Garai bateko hiriko bizitegi-guneak" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Bizitegi-erabilera.

2. A2. Landa-gune zaharretako bizitegi-guneak.

- a) Kontzeptua: Landa-biztanleria sakabanatuak eratutako gunek dira, etxe bereziki osatuak. Etxe horiek, orokorrean, baratzea dute inguruan, eta erabilera kolektiboko eraikin baten edo gehiagoren inguruan eratzen dira. Araba erdialdean nagusi den "Arabako herrixka" delakoa da. Udalerrri honetan, gunehori Egileta da.

Hiri-ehundura ez-homogeneo horretan etxebizitza isolatuak daude, kalea osatzen duten eraikin atxikien multzo txikiekin batera.

Hirigintza-antolamenduak aurreko A1 gunean adierazitako helburuak bete behar ditu.

Izaeragatik, hiri-lurzoruko gunek dira, orokorrean, urbanizazioak finkatuak.

- b) Kalifikazio xehatu bereizgarria: "a.2 garai bateko landa-kokaguneak" azpigunea.
- c) Lehenetsitako erabilerak: familia bakarreko eta bi familiako etxebizitzaren erabilera.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 37 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

3. A3. Zabalguneako bizitegi-eremuak.

- a) Kontzeptua: Dentsitate handiko guneak dira, etxadika osatuta egoten dira, eta horiek osoki egon ahalko dira eraikuntzak okupatuta edo etxadietako patioak edo patio erdi irekiak izan ahalko dituzte barruko aldean.
- b) "Eraikuntza xehatu" mota bereizgarria: "a.3 Zabalgunea" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Familia anitzeko etxebizitzaren erabilera.

4. A4. Eraikuntza irekiko bizitegi-guneak.

- a) Kontzeptua: Dentsitate ertain edo handiko guneak dira, bizitegi-eraikin isolatuzko eraikuntza irekiek osatu ahalko dituzte, eta eraikita ez dauden bizitegikoak ez diren espazio batzuk izan ahalko ditu.
- b) "Kalifikazio xehatu" mota bereizgarria: "a.40 eraikuntza irekia" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Familia anitzeko etxebizitzaren erabilera.

5. A5. Garapen txikiko bizitegi-guneak.

- a) Kontzeptua: Dentsitate ertain edo txikiko guneak dira, eta familia anitzeko etxebizitza bloke txiki eta irekiek edo familia bakarreko etxebizitza atxikiek osatzen dituzte.
- b) "Kalifikazio xehatu" mota bereizgarria: "a.5 Garapen txikiko eraikin irekia" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Dentsitate txikiko eraikin ireki konpaktuko familia anitzeko etxebizitzaren eta familia bakarreko eraikin atxiki edo ilaran jarritakoen erabilera.

6. A6. Etxebizitza isolatuko bizitegi-guneak.

- a) Kontzeptua: Dentsitate txiki edo oso txikiko guneak dira; partzela bakoitzean bizitegi-eraikin bateko edo biko eraikuntzez osatuta daude, eta eraikuntzarik gabeko espazio atxikiak izango dituzte kasu guztietan.
- b) "Kalifikazio xehatu" mota bereizgarria: "a.6 Etxebizitza isolatua" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: familia bakar isolatuaren eta bi familiako etxebizitzaren erabilera.

7. B1. Industriagune arruntak.

- a) Kontzeptua: Berezko erabilera industria duten guneak dira, etxadika antolatuta daude eta mehelinen arteko eraikuntza moduluek okupatzen dute etxadi bakoitza; edo, bereizitako eta zatitu ezinezko partzelek osatzen dituzte, partzela bakoitza funtzionalki unitarioa den jarduera bakar batek okupatzen du, eta partzelok eraikuntzarik gabeko espazioak dituzte erantsita.
- b) "Kalifikazio xehatu" mota bereizgarria: "b.1 Industriagune arrunta" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Industria-erabilera.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 38 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

8. B2. Industriagune bereziak.

- a) Kontzeptua: Jarduketa-eremu bakoitzerako modu berezian definitzen diren erabilera espezifikoetarako industriaguneak dira; halaber, eraikuntza-araubide berezi baten araberakoak izango dira eta horien erregulazioak dagokien arau bereziari jarraituko dio.
- b) "Kalifikazio xehatu" mota bereizgarria: "b.2 Industriagune berezia" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Industria-erabilera.

9. B3. Parke teknologikoen gunek.

- a) Kontzeptua: Goi-mailako teknologiko edo I+G-ko enpresetarako industriaguneak dira, hirugarren sektoreko erabilerekin eta/edo enpresa/parkeekin bateragarriak direnak, eta eraikuntza-araubide berezi bati erantzungo diotenak; horiek dagokien araudi bereziaren arabera erregulatuko da.
- b) Kalifikazio xehatu mota: "b.1 Industriagune arrunteko erabilera" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Industria-erabilera eta hirugarren sektoreko erabilera.

10. C0. Hirugarren sektoreko erabilera orokorreko gunek

- a) Kontzeptua: Eremu bakoitzerako modu berezian definitzen diren hirugarren sektoreko erabilera orokorretarako gunek dira; halaber, eraikuntza-araubide berezi baten araberakoak izango dira eta horien erregulazioak dagokien arau bereziari jarraituko dio.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "c.10 Hirugarren sektoreko erabilera generikoak" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Hirugarren sektoreko erabilera, edozein modalitatetan.

11. C1. Merkataritza-gune komunak.

- a) Kontzeptua: Merkataritza-jarduera anitzerako gunek dira, jarduera hori zehaztu gabe, araubide berezi bati erantzungo diote; horien erregulazioak dagokien hirigintza-jarduketarako eremuaren arau partikularrari eta, hala badagokio, antolamendu xehatuari jarraituko die.
- b) "Kalifikazio xehatu" mota bereizgarria: "c.11 Merkataritzako arrunta" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Merkataritza-erabilera, edozein modalitatetan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 39 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

12. C12. Saltoki handien guneak.

- Kontzeptua: Nagusiki "saltoki handiak" ezartzeko guneak dira, baita lotutako beste erabilera batzuk izateko ere, zeinak eremu bakoitzerako modu berezian zehaztuko diren, eta eraikuntza bereiziko araudi bati erantzungo diote, instalazio-mota horien berezko motekin bat, eta erregulazioak dagokien arau partikularrari jarraituko dio.
- Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "c.21 Saltoki handiak" azpigunea.
- Erabilera nagusia: Merkataritza-erabilera, modalitate guztietan.

13. C2. Ostalaritza-guneak.

- Kontzeptua: Orokorrean, ostalaritza-erabileretarako guneak dira.
- Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "c.30 Ostalaritza" azpigunea.
- Erabilera bereizgarria: Ostalaritza-erabilerak, modalitate guztietan.

14. C3. Bulegoen guneak.

- Kontzeptua: Bulegoen hirugarren sektoreko erabileretarako guneak dira, eta ekipamenduak eta ostalaritza bateragarriak dira.
- Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "c.30 Bulegoak" azpigunea.
- Erabilera nagusia: Bulego-erabilerak.

15. C4. Enpresa-parkeen guneak.

- Kontzeptua: Eremu bakoitzerako modu berezian definitzen diren jarduera ekonomikoko erabileretarako eta erabilera anitzetarako guneak dira; halaber, eraikuntza-araubide bereizi baten araberakoak izango dira eta horien erregulazioak dagokien arau bereziari jarraituko dio.
- Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "c.4 Enpresa-parkeak" azpigunea.
- Erabilera nagusia: Bulegoen erabilerak eta merkataritza-erabilera.

16. D. Komunitatearen ekipamendu pribatuko guneak.

- Kontzeptua: Hirigintza-jarduketarako eremu bakoitzerako modu berezian definitzen diren komunitatearen ekipamendu pribatuko erabilerarako guneak dira; halaber, eraikuntza-araubide bereizi baten araberakoak izango dira eta horien erregulazioak dagokien arau bereziari jarraituko dio.
"d.0 Generikoa" gunea ekipamenduen edozein erabileretarako erabiliko da, bereizketarik egin gabe. Gainerako eremuak bereziki horietako bakoitzaren izenak dakarren erabilerarako erabiliko dira.
- Kalifikazio xehatu bereziaren mota: "d.0" azpigunea edo erabilera bakoitzari dagokiona.
- Erabilera nagusiak: Komunitatearen ekipamenduaren erabilerak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 40 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

17. E11. Errepideetako guneak.

- a) Kontzeptua: Hiri arteko komunikazio eta garraioetarako erabiltzen diren guneak dira; ezin da eraiki, sektoreko legeria aplikagarriak autobide, autobia eta errepideetarako baimentzen dituen elementu funtzionalak eta erabilera lagungarrietarako eraikuntzak izan ezik.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "e.11 Autobideak, autobiak eta errepideak" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Komunikaziorako eta garraioetarako erabilera.

18. E12. Kaleen guneak.

- a) Kontzeptua: Hiri komunikazio eta garraioetarako erabiltzen diren guneak dira; ezin da bertan eraiki, baldintza horietan baimenduta dauden erabileretarako sestra azpiko eraikuntzak salbu, eta "hiri-bideen" berezko elementu funtzionalak "sestra gainean" jartzea salbu.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "e.12 Hiri-bideak" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Errepide bidezko komunikaziorako eta garraioetarako erabilera.

19. E2. Trenbide-guneak.

- a) Kontzeptua: Berariaz trenbide-erabilerei eta horien erabilera osagarriei lotutako eraikinak bakarrik eraikitzea baimenduta dagoen guneak dira, aplikatu behar den sektoreko legediak ezarritako baldintzetan, eta, kasu bakoitzean, dagokien arau partikularrean jasotako zehaztasunekin.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "e.2 Trenbidea" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Trenbide-erabilera.

20. E3. Oinezkoentzako eta/edo bizikletentzako guneak.

- a) Kontzeptua: Oinezkoak eta/edo bizikletak igarotzeko guneak dira, eta ez dago baimenduta bertan eraikitzea, gunearen berezko jarduera garatzeko denean salbu.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "e.3. Oinezkoentzako eta/edo bizikletentzako" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Oinezkoentzako eta/edo bizikletentzako erabilerak.

21. F1. Hiri-parkeetako guneak.

- a) Kontzeptua: Zuhaitz ugariko eta urbanizazio urriko guneak dira; 1.3.1.17 artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik, ezin da eraiki.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarriak: "f.1 Hiri-parkeak" azpigunea.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 41 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- c) Erabilera nagusia: Aire zabaleko olgeta eta aisiako erabilera.

22. F2. Hiriz kanpoko parkeen gunek: Atsedenlekuak.

- a) Kontzeptua: Hiriz kanpoko erabilera kontzentratuak diren, non piknikak egiteko eta naturarekin harremanetan egoteko jarduerak nagusitzen diren, eta gunek horietan ezin da eraiki, guneko jardueraren berezko garapenerako denean izan ezik.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "f.20 Atsedenlekuak" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Hiriz kanpoko aisiako erabilera kontzentratua.

23. F3. Bainu-gunak eta hondartzak.

- a) Kontzeptua: Ibai eta urtegiak diren mugatuak bainu-gune publiko gisa erabiltzeko gunek dira, eta ezin da bertan eraiki, guneko jardueraren berezko garapenerako denean salbu.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "f.3 Bainu-gunak eta hondartzak" azpigunea.
- c) Erabilera nagusia: Hiritik kanpoko aire zabaleko aisia eta jolasa: bainatzea eta uretako kirolak.

24. G. Komunitatearen ekipamenduen sistema orokorraren gunek

- Gizarte ekipamenduen sistema orokorreko zonak dira; kontzeptua, kalifikazio xehatu motak eta erabilera D guneei buruzko atalean ezarritakoak dira ("Komunitatearen ekipamendurako gunek pribatuak").

25. H. Zerbitzu-azpiegituren sistema orokorraren gunek

- a) Kontzeptua: Hirigintza-eremu bakoitzerako modu berezian definitzen diren zerbitzu espezifikotako azpiegiturarako erabiltzen diren gunek dira; halaber, eraikuntza-araubide berezi baten arabera izango dira eta horien erregulazioak dagokien arau bereziari jarraituko dio.
- b) Kalifikazio xehatu mota bereizgarria: "h" azpigunea, gunek zehatz bakoitzari dagokiona.
- c) Erabilera nagusia: Zerbitzu-azpiegituren erabilera.

26. I. Sistema orokor hidraulikoko gunek

- a) Kontzeptua: Ibai, erreka eta urmaeletako ur-jabari publikoa zedarrizten duten gunek dira.

27. J. Landa-gunak.

- Landa-gunak dira, eta hiru multzotan banatuta daude:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 42 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

a) J1 Babes bereziko guneak.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuaren 21. artikuluan jasotako babes-helburuak betetzeko guneak dira.

a.1 J11. Babes bereziko guneak, natura-balioagatik

Hauexek dira: hegaztien babes bereziko eremuak (HBBE), interes komunitarioko tokiak (IKT), RAMSAR hezeguneak eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) aipatzen diren naturaren arlotik interesgarriak diren eremuak.

Parke naturalak naturako baliabideen antolamendurako planetan (NBAP) ezarritakoaren arabera sailkatzen dira, baina tresna honetan ez dira marraztuta ageri.

a.2 J12. Babes bereziko guneak, balio historiko-kulturalagatik.

Hauexek dira: ondare kulturalaren babesaren alorrean eskuduna den organoak kalifikatu eta inbentarioan sartutako zona arkeologikoak eta eraikuntzak, eraikinak eta elementuak.

a.3 J13. Babes bereziko guneak: ingurumenaren hobekuntza (A).

Baso, sasi eta lurzoru marjinaletako eremu degradatueta eremuetan aplikatzen da, horiek gradu maila hobeetarantz jasan bilakaera onuragarritzat jotzen da, eta lurraldeetako plan partzialen ondorioz, lurraldeko babesaren barruko espazioen barruan daude, baina gainontzeko babes bereziko J.1 guneetatik kanpo.

a.4 J14. Babes bereziko guneak, baso-balioagatik

Lurralde plan partzialetan babestutako basoguneak eta J.1.1 zonan ez dauden onura publikoko mendiak.

a.5 J15. Babes bereziko gunea, nekazaritza- eta abeltzaintza-interesagatik

Gainontzeko J.1 guneetan ez dauden laborantza-sailak dira; lurralde-plan partzialetan babesa ezarri zaie Arabako lurraldeko nekazaritza eta abeltzaintzako lurrik onenak direlako.

a.6 J16. Babes bereziko guneak, mendiko larreak (A)

Altuerako abeltzaintza-lurrak dira, mendiguneetako gune kakuminaletan daudenak, eta ez daude lurralde-plan partzialen lurralde-babesa duten gainerako J1 guneetan sartuta.

a.7 J17. Azaleko uren babes bereziko guneak

EAEko ibai eta erreka bazterren antolamendurako LSPak definitutako ibai eta erreka bazterretako lurzatiak jasotzen ditu, jabari publiko hidraulikoaren mugapen linearen (ibilgua) eta eraikuntzaren erretiroaren gutxieneko distantziaren artean, aipatutako Planaren araudiaren F.1 idatz zatian ezarritako distantziekin bat eginez.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 43 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- 30 m $10 < A \leq 100$ km² isurtze-arroa duten ibai-tarteetarako (I. eta II. mailako tarteak).
- 15 m $1 < A \leq 10$ km² isurtze-arroa duten ibai-tarteetarako (0 mailako tarteak).
- 1 km² baino gutxiagoko isurtze-arroa duten isurketa edo ur-ibilguetarako (00 mailako tarteak), Uren Legean ezarritakoa aplikatu beharko da.

* Atzerapenak ibilguetako ertzetatik ezarriko dira, eta ez horien ardatzetatik.

b) J2. Zaindutako gunek

Aurreko gunen balioak ez dituzten arren, antolamenduan hiri-garapenetik zaintzea erabaki den gunek dira.

b.1 J21. Gune zainduak, natura-balioagatik

Lurralde-plangintzak babes berezia eman ez dien arren, Udalaren hirigintza-plangintzak identifikatu eta babesteko balio nahikoa duten espazio naturalak dira.

Gune horren barne daude "igarobide ekologiko" gainjarritako baldintzatzailea duten lurrak, baldintza hauek betetzen dituztenek:

- a) Arabako igarobide ekologikoen Sarekoak dira.
- b) Ez dute legediaren eta/edo lurralde-antolamenduaren babesa.
- c) Ez dira onura publikoko mendiak.

b.2 J22. Gune babestuak, interes historiko-kulturalagatik

J.1.2 gunean ez dauden eraikuntzak, eraikinak eta elementu arkitektonikoak dira. Gertaera historikoak, tradizionalak edota herrikoiak gogorarazten dituzte, eta horregatik udal-antolamenduan zaindu beharrekotzat jo dira.

b.3 J23. Guna babestuak: ingurumenaren hobekuntza (B)

J.1 gunean (balio historiko eta kulturala babesteko gunea) ez dauden eraikuntzak, eraikinak eta elementu arkitektonikoak dira. Gertaera historikoak, tradizionalak edota herrikoiak gogorarazten dituzte, eta horregatik udal-antolamenduan zaindu beharrekotzat jo dira.

b.4 J24. Gune zainduak, baso-balioagatik

J.1 eremuaren barruan sartzen ez diren basoko espazioak sartzen dira multzo honetan, eta oro har, % 20 malda baino gehiago dutenak eta Udaleko plangintzak babestea interesgarritzat jotzen duen eremuak dira.

b.5 J25. Gune zainduak, nekazaritza- eta abeltzaintza-interesagatik

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 44 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Nekazaritzarako ahalmen handia dutelako (nahiz eta lurralde-plan partzialetan babestutakoena baino txikiagoa izan) Udalak zaindu beharrekotzat jo dituen gunek dira.

b.6 J26. Zaindutako gunek, mendiko larreak (B)

Altuerako abeltzaintza-lurrak dira, mendiguneetako gune kakuminaletan daudenak, eta ez daude gainerako J1 guneetan sartuta, baina udal-antolamenduak zaindu behar direla irizten du.

b.7 J27. Hiri-garapenerako ezegokiak izateagatik babestutako gunek

Aurreko guneetan sartuta ez dauden lurzoru guztiak dira, ezegokiak izateagatik hiri-garapenetik babestutakoak izan behar dutenak, baliabide naturalen erabilera arrazionalaren printzipioak hala agintzen duelako edo lurralde edo hirigintzako irizpideekin bat etortzeak hori dakarrelako.

Honako hauek dira, gutxienez, hiri-garapenerako ezegokitzat jotzen diren lurzoruak:

- Lurralde-plan partzialek ezarritako hiri-garapen berrietako lurzoruen zenbaketak betetzeko behar ez direnak.
- Aurkakoa justifikatuta dagoenean salbu, hiri-mugikortasun jasangarriaren printzipioa urratzen duten bizitegirako hiri-eremuetatik bereizita daudenak.
- Kontsumo-beharrengatik eskura dauden baliabide hidrikoen edukiera gaitzen dutenak.
- Hiri-garapenak ezartzeko ezaugarri geologiko eta topografiko ezegokiak dituztenak.
- Bertan hiri-garapen hipotetikoak ezartzeak gertuko baliabide naturalen gainean presioa eragitea eta ingurumena narritzea ekarriko luketen lurzoruak.

c) J3. Landagunek

Bat datoz ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29. artikuluan definituta dagoen landaguneeen lurzoru urbanizaezinaren modalitatearekin.

1.3.2.6 artikulua Kalifikazio orokorreko zehaztapenen arauzko lotura eta tolerantzia

1. Guneeen mugen doitzak eta zonakatzearen aldaketa automatikoa.

- a) Alboko sistema orokorren jabetza eskuratzeko espedienteen ondorioz gune pribatuetako mugak egokitzeak ez du ekarriko antolamendu orokorra aldatzea, eta muga horiek lehentasuna izango dute indarreko antolamendu orokorraren edozein definizio grafikoren gainean.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 45 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Gauza bera gertatuko da Jabari Publiko Hidraulikoaren erregelamenduko 240., 241. eta 242. artikuluekin bat egindako jabari publiko hidraulikoaren banaketaren mugarekin.
- c) Garapen-antolamenduaren bidez guneen mugak eta horren bidez hirigintza-eremuak eta azpiguneak aldatuz gero, ez da iritziko antolamendu orokorreko tresna aldatzen ari dela, baldin eta honako xede hauetarako egiten bada: lurraldearen muga naturaletara, kalifikatutako eraikin eta zuhaitzietara eta jada dauden partzela osoetara doitzea; eremuaren oinarriko bideragarritasunaren diseinuaren xehetasunak berraztertzea; edo akats materialak edo oinarri kartografikoa zuzentzea; edo, besterik gabe, tresna honen planoen zehaztasun grafikoa hobetzea, eskalan saltoa egiteagatik edo jasotze kartografiko moderno eta zehatzagoa egiteagatik.

Nolanahi ere, halako aldaketak egiteko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- c.1 Eremuak ezingo du hasierako azalera osoaren % 10 baino gehiagoko gehikuntza edo murrizketa izan.
- c.2 Gehikuntza lurzoru urbanizaezinarekin egiten bada, lur horiek ezin dira izan babes bereziko landagune batekoak, mugapenean akatsa gertatu dela zalantzarik gabe frogatu ezean.
- c.3 Aldaketak inolaz ere ezin ditu baldintzatu aldameneko eremuen antolamendua eta hiri-diseinua, ez eta kalterik egin ere alboko lursailei.
- c.4 Aldaketak inolaz ere ezin ditu baldintzatu aldameneko eremuen antolamendua eta hiri-diseinua, ez eta kalterik egin ere alboko lursailei.
- c.5 Aldaketaren ondorioz irabazizko eremu bateko lur batzuk baztertzen direnean eta eraikigarritasun txikiagoa duen eremu batera pasatzen direnean, beharrezkoa izango da haien jabeek notario aurreko dokumentuan espresuki onartzea.
- d) A.2 "Garai bateko landa-kokaguneak" guneetan sartutako urbanizazioak finkatutako hiri-lurzoruaren kasu zehatzean, hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizaezinaren arteko mugaren lerroa aldatu ahalko da, baldin eta aurreko c.2 azpiparagrafoan adierazitako egoera ematen ez bada eta xedeak honako hauek badira:
- d.1 A.2 gunearen barruan partzela osoa sartzea, egoera hauetan:
- Zalantzarik gabe frogatzea Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren antolamenduan ezarri dela hiri-lurzoruaren muga eta partzelarena bat etorri behar direla.
 - Edo lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako zatiaren azalera hiri-lurzoru gisa gehitzeak bizitegi-dentsitatea handitzea ekartzen ez badu.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 46 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- d.2 A.2 gunearen barruan lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako azaleraren zati bat sartzea, hiri-lurzoruarekin batera, gunearen erabilera nagusiaren eta/edo lehenetsiaren berezko eraikin bat egin ahal izateko.

Egungo hiri-zatia gunearen erabilera nagusiko eta/edo lehenetsitako erabilera eraikinari gutxienez exijitzen zaion partzelaren azalera baino handiagoa bada, multiplo zehatza izan gabe, partzelaren behar den gainerako zatia gehitu ahalko zaio (betiere ez badu gainditzen gutxieneko partzelaren % 50), harik aipaturiko erabilera eraikin gehigarri bat eraiki ahal izateko moduko azalera osatzen den arte.

Dena den, aurreko paragrafoetan aipatutakoa ez da posible izango kasu honetan: sartu beharreko partzela espazio libreen sistema orokorretako gune batean badago eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 78. artikuluan ezarritako hirigintzako estandarrak betetzeko ezinbestekoa bada.

Nolanahi ere, d) atalean azaldutako aukerak aplikatzeko udal-zerbitzuen txosten tekniko eta juridikoa beharko da, bai eta udal-organo eskudunak onartzea ere.

- e) Landaguneei dagokienez, proposatutako zonakatzearen aldaketa automatiko bat eragiten dela iritziko da, eta ez da beharrezkoa izango plangintza orokorreko aldaketa izapidetzea, organo eskudunek, horretarako ezarri diren izapideei jarraikiz, babes bereziko gune edo espazioak edo horiek definitzeko irizpideak aldatzen dituztenean, betiere hain zehazki eginak izanik ez badute behar tresna honek erabiltzen duen kartografiaren egokitzapenaren bidez interpretatzea.

2. Garapen-antolamenduak eraikuntza-motak eta lurzoria okupatzeko parametroak eta solairu-kopurua edo eraikinaren profila aldatu ahalko ditu, baldin eta dagokion jarduketa-eremuaren arau partikularrak hala ezartzen badu, industria-lurzoruan salbu, non okupazioa ez da inoiz % 30 baino txikiagoa izango.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 47 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.3.3. KALIFIKAZIO XEHATUA

1.3.3.1 artikulua Kalifikazio xehatua eta azpiguneak. Edukia

1. Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian dauden guneen kalifikazio orokorra hirigintza-antolamenduan garatu beharko da kalifikazio xehatuaren bitartez.
2. Kalifikazio xehatuak hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko gune pribatu guztiak azpiguneetan banatzen ditu, hurrengo artikuluan adierazten den bezala.
3. Plangintzako definizioaren arabera, azpigunea hirigintza-antolamenduko eskalan dagoen etenik gabeko esparrurik oinarritukoena da. Erabilera xehatu eurak eta eraikuntza-parametro eurak dauzkaten lursail edo partzela homogeneoen multzoa biltzen du.
4. Plan honek modu xehatuan antolatu duen hiri-lurzoruan azpierenmuak P-5 planoan ("Zonakatze xehatua") azaltzen dira.
5. Kalifikazio xehatuak hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria bi azpigune-multzotan banatzen ditu:
 - a) Azpigune publikoak.
 - b) Azpigune pribatuak; haietan erabilera pribatuak ezartzen dira eta, ondorioz, hirigintza-eraikigarritasuna ere bai.
6. Kalifikazio xehatuak derrigorrez ezartzen ditu zehaztapan hauek azpigune bakoitzerako:
 - a) Azpigunea nolakoa den: gune pribatua, irabazizko erabilera pribatuak dauden gune edo gune publikoa.
 - b) Azpiguneko eta/edo bertako eraikinetako berezko erabilera edo lehenetsitako erabilera zein den, eta baimendutako erabilerak ere bai.
 - c) Erabilera baimenduen eraikigarritasun fisikoak.
 - d) Lurralde-plangintzako zehaztapanak beteko direla bermatzeko, azpiguneetan, partzeletan edo bizitegi-eraikinetan gehienez eraiki daitezkeen etxebizitzaren kopurua.
 - e) Komunikazioen tokiko sistemaren trazadura eta ezaugarriak, eta, kasua bada, komunikazioen sistema orokorrarekiko lotura, ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bideen sare publiko osoko lerrokadura, sestra eta babesguneak, baita, hala behar denean, aparkaleku publikoetakoak ere.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 48 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- f) Hiri-zerbitzuetako tokiko sistemaren oinarritzko elementuen ezaugarriak eta trazadura, eskema moduan, honako hauek barne direla: ur-hornidura, euri-eta hondakin-uren hustuketa, energia elektrikoaren hornidura, herriko argiak eta, kasuan kasu, plangintzak aurreikusitako beste zerbitzuak.
- g) Eraikuntzako ordenantzak, grafikoak eta idatziak, azpigune pribatuei buruzkoak eta, hala badagokio, azpigune publikoei buruzkoak, puntu hauek dauzkatenak:
- g.1 Oin berriko eraikinak egiteko baimendutako eraikuntza-motak.
- g.2 Planaren ondoriozko partzelazioa, gutxieneko lurzatia aipatuta, eta hura gerora aldatzeko irizpideak.
- g.3 Altuera, solairu-kopurua, eta oin berriko eraikinen edo lehendik daudenak ordeztu nahiz handitzeko eraikinen forma eta kokapena definitzen dituzten beste parametro batzuk.
- g.4 Zaindu beharreko eraikuntzak eta gainerako hiri-elementuak adieraztea eta horietako bakoitzean baimendutako eraikuntzako esku-hartzeak aipatzea.
- g.5 Antolamenduz kanpoko eraikinen eta eraikuntzen identifikazioa.
- g.6 Nahi izanez gero, eraikinetako solairuei lurzoruaren erabilerak modu xehatua esleitzea, edo, hala badagokio, erabilera baimenduak eta azpigune bakoitzerako ezarritako erabileren bateragarritasun irizpideak adieraztea.

1.3.3.2 artikulua Kalifikazio xehatuaren sistematizazioa

1. Arabako hirigintza-plangintza normalizatzeko sistemak kalifikazio xehatua oinarritzko azpigune-mota hauen arabera sistematizatzen du:
- a) Bizitegi-guneak.
b) Industria-azpiguneak.
c) Hirugarren sektoreko erabileretako azpiguneak.
d) Komunitatearen ekipamendu pribatuko azpiguneak.
e) Komunikazioetarako azpigune publikoak.
f) Espazio libreen azpigune publikoak.
g) Komunitatearen ekipamendu publikoko azpiguneak.
h) Zerbitzu-azpiegituretako azpigune publikoak.
i) Azpigune publiko hidraulikoak.
2. Aurreko puntuan adierazitako azpiguneen oinarritzko motak jarraian jaso diren aldaera edo taldeen arabera garatuko dira, eta horietako bakoitzak erabilera- eta eraikuntza-araubide espezifikoa du ezaugarri:
- a) Bizitegi-guneak.
a.1 Hiri-kokagune zaharretakoak.
a.2 Landa-kokagune zaharretakoak.
a.3 Zabalgunekoak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 49 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a.4 Eraikuntza irekikoak.
- a.5 Dentsitate txikiko eraikuntzakoak.
 - a.5.1 Eraikuntza irekikoak.
 - a.5.2 Familia bakarreko eraikin atxikikoak.
- a.6 Etxebizitza isolatuko eraikuntzakoak.
 - a.6.1 Familia bakarreko eraikuntzakoak.
 - a.6.2 Bi familiako eraikuntzakoak.
- b) Industria-azpiguneak.
 - b.1 Arruntak.
 - b.1.1 Industria intentsibokoak.
 - b.1.2 Industria isolatukoak.
 - b.2 Industria berezikoak.
- c) Hirugarren sektoreko erabileretako azpiguneak.
 - c.0 Generikoak edo anitzak.
 - c.1 Merkataritzakoak.
 - c.1.1 Arruntak.
 - c.1.2 Saltoki handietakoak.
 - c.2 Ostalaritzakoak.
 - c.3 Bulegoetakoak.
- d) Komunitatearen ekipamendu pribatuko azpiguneak.
 - d.0 Generikoak edo anitzak.
 - d.1 Irakaskuntzakoak.
 - d.2 Kulturakoak.
 - d.3 Aisiakoak.
 - d.4 Kirolakoak.
 - d.5 Osasunekoak.
 - d.6 Gizarte-zerbitzuetakoak.
 - d.7 Zerbitzu publikoak.
 - d.8 Erljiokoak.
- e) Komunikazioetarako azpigune publikoak.
 - e.1 Bideak.
 - e.1.1 Errepideak.
 - e.1.2 Kaleak.
 - e.1.2.1 Galtzadak.
 - e.1.2.2 Espaloiak.
 - e.1.2.3 Aparkaleku atxikiak.
 - e.1.2.4 Babeserako espazioak.
 - e.2 Oinezkoentzako eta/edo bizikletentzakoak.
 - e.2.1 Oinezkoentzako kaleak eta pasealekuak.
 - e.2.2 Oinezkoentzako kale tolerantziadunak.
 - e.2.3 Bizikletentzakoak.
 - e.3 Trenbideak.
- f) Espazio libreen azpigune publikoak.
 - f.1 Hirikoak.
 - f.1.1 Parkeak eta lorategiak.
 - f.1.2 Haurrentzako jolas- eta aisia-guneak.
 - f.1.3 Plazak eta oinezkoentzako eremuak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 50 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- f.1.4 Lorategiak eta hondarguneak.
 - f.2 Hiritik kanpokoak.
 - f.2.1 Piknikak egiteko eta/edo naturaz gozatzeko eremuak.
 - f.2.2 Bainu-guneak eta hondartzak.
 - g) Komunitatearen ekipamendu publikoko azpiguneak.
 - g.0 Generikoak edo anitzak.
 - g.1 Irakaskuntzakoak.
 - g.2 Kulturakoak.
 - g.3 Aisiakoak.
 - g.4 Kirolakoak.
 - g.5 Osasunekoak.
 - g.6 Gizarte-zerbitzuak.
 - g.7 Zerbitzu publikoak.
 - g.8 Erljiokoak.
 - g.9 Erakundeetakoak.
 - h) Zerbitzu-azpiegituretako azpigune publikoak.
 - h.1 Ur-hornikuntzako sarekoak.
 - h.2 Ur-saneamendukoak.
 - h.3 Energia elektrikoaren ekoizpen eta hornidurakoak.
 - h.4 Hondakinak tratatzekoak.
 - h.4.1 Hirikoak.
 - h.4.2 Geldoak eta geldotuak.
 - h.4.3 Beste tratamendu batzuk.
 - h.5 Gasaren eta petrolio-produktuen azpiegituretakoak.
 - h.6 Telekomunikazio-azpiegituretakoak.
 - i) Azpigune publiko hidraulikoak.
3. a), b), c) eta d) azpiguneak pribatuak dira; gainerakoak zuzkidura publikokoak dira.
4. Azpigune bakoitzak kode edo etiketa zehatza dauka. Horren identifikazioan kalifikazio orokorraren sistematika berriz gertatzen da; alde bakarra zera da, eremu-motaren berezko erabilera orokorraren letra larria letra xehe batekin ordezkatzeko delatzen, eta letra hori azpigune-motako erabilera berezko erabilera xehatuari dagokio.

1.3.3.3 artikulua Udalerrri honetan dauden azpiguneeen zerrenda

P-5 planoan Plan Orokorrean zehaztutako azpiguneak jaso dira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 51 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.3.3.4 artikulua Kalifikazio xehatuko zehaztapenetan onartutako tolerantziak

- Ez da izango plangintzaren aldaketa tokiko bide-zuzkidura publikoaren, tokiko oinezkoentzako bideen hornidura publikoaren eta azpigune pribatuen arteko trukea, irizpide hauen arabera egiten denean:
 - Zehaztapenak aldatzea, ibilgailuentzako kaleak oinezkoentzako kale bilakatzeko, oinezkoentzako tokiko zuzkidura publikorako diren espazioak ibilgailuei ere zabaltzeko, edo zirkulazio-mota bietarako araubide mistoak eta kontrolak ezartzeko. Erabileren aldaketa hori Udaleko gobernuko organo egokiak erabakiko du.
 - Bideen toki sistemaren eta oinezkoentzako toki sistemaren arteko mugak doitzea eta sistema horietako lurren barne diseinua eta erabilera zehaztea.
- Orobat, ez da plangintzaren aldaketa izango azpiguneak lehendik dauden partzeletara egokitzea, gune beraren barruan, inguruabar hauek gertatzen direnean:
 - Zalantzarik gabe frogatzea Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren antolamenduan ezarri dela gunearen muga eta partzelarena bat etorri behar direla.
 - Ez gutxitzea hirigintza-legediak eskatutako estandarrak betetzeko beharrezkoa den hornidura publikoen azalera.

Nolanahi ere, aukera hori aplikatzeko udal-zerbitzuen txosten tekniko eta juridikoa beharko da, bai eta udal-organo eskudunak onartzea ere.

1.3.3.5 artikulua Kalifikazio xehatuko zehaztapenen arauzko lotura

- Antolamendu orokorraren arau-maila duten zehaztapenak.
Antolamendu orokorraren maila izango dute, eta, beraz, aldatu ahal izateko, arau-maila hori duen espedientea egin beharko da, arau-maila horretako hirigintza-eremu bakoitzerako berariaz zehaztutako kalifikazio xehatuko zehaztasun bereziekin.
- Antolamendu xehatuaren arau-maila duten zehaztapenak.
Kalifikazio xehatuko gainerako zehaztapenek antolamendu xehatuaren berezko maila izango dute, eta, horiek, lurzoru-mota bakoitzaren arabera, Hiria Antolatzeko Plan Orokor hau aldatuz, edo plan berezi edo plan partzial bat eginez formulatu eta aldatuko dira.
- Xehetasun-azterketa bidez alda daitezkeen zehaztapenak.
 - Aurreko puntuan ezarritako irizpide orokorrari kalterik egin gabe, kalifikazio xehatuko zehaztapenak xehetasun-azterketa bidez aldatu ahalko dira, honako kasu hauetan:
 - Azpigune pribatu eraikigarrien eta bideen eta oinezkoen tokiko sistemaren azpiguneen arteko mugak doitzea, baldin eta justifikatzen bada antolamendu xehatuak aurreikusitako errepideari eta oinezkoentzako

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 52 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

bideari kalte egiten ez diela, eta antolamendu xehatuak ezarritako bideen eta oinezkoen azpiguneen azalera mantendu edo handitzen baldin bada.

- a.2 Espazio librean azpiguneetarako lursailen itxura eta/edo egoera aldatzea, baldin eta zuzkidura horretarako azalera mantendu edo handitzen bada. Aldaketa eraikinaren itxura eta/edo egoera aldatzeagatik sortzen bada. Kalitateak okerrera egitea eragiten ez badu.
- b) Edozein kasutan, Udalak antolamendu xehatuaren aldaketa-espeditentea egitea exijitu ahalko du, baldin eta azpizonakatzea aldatzen bada, eta nahiz eta aurretik adierazitako betekizunak errespetatzen diren, iritzi bada proposatutako doitzeen irismenak beharrezkoa edo komenigarria egiten duela.
4. Hala ere, xehetasun-azterketarik gabe, tokiko oinezkoentzako bideen hornidura publikoaren eta azpigune pribatuen arteko trukea egin ahalko da, irizpide hauen arabera egiten denean:
- a) Zehaztapenak aldatzea, ibilgailuentzako kaleak oinezkoentzako kale bilakatzeko, oinezkoentzako tokiko zuzkidura publikorako diren espazioak ibilgailuei ere zabaltzeko, edo zirkulazio-mota bietarako araubide mistoak eta kontrolak ezartzeko. Erabileren aldaketa hori Udaleko gobernuko organo egokiak erabakiko du.
- b) Bideen toki sistemaren eta oinezkoentzako toki sistemaren arteko mugak doitzea eta sistema horietako lurren barne diseinua eta erabilera zehaztea.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 53 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

**LAUGARREN TITULUA.
PLANGINTZA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA****1.4.1 KAPITULUA. LURZORUAREN SAILKAPENA****1.4.1.1 artikulua Lurraldearen zatiketa hirigintzako sailkapenaren arabera**

1. Lurzoruari buruzko legerian ezarritako ondorioetarako eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 11., 13. eta 14. artikuluetan ezartzen dituen irizpideekin bat etorritik, udalerriko lurak mota hauetan sailkatzen dira: hiri lurzoria, lurzoru urbanizagarria (gauzatzen ari dena, sektorizatua eta sektorizatugabea) eta lurzoru urbanizaezina.

2. Lurzoru mota bakoitzaren mugak P-3 planoan ("Hirigintza-eremuak") zehaztu dira.

3. Hiri-lurzoria, era berean honako kategoria hauetan banatuko da: "hiri-lurzoru finkatua" eta "hiri-lurzoru finkatugabea". Gainera, hiri-lurzoru finkatugabearen mota hauek daude: "haztatutako eraikigarritasunaren gehikuntzagatik finkatu gabe dagoen hiri-lurzoria" eta "urbanizazioak finkatu gabeko hiri-lurzoria".

Bi kategoria horiek ere lehen aipatutako planoan ageri dira; hala ere, "hiri-lurzoru finkatua" eta "haztatutako eraikigarritasunaren gehikuntzagatik finkatu gabe dagoen hiri-lurzoria" modu berean irudikatu dira. Orube edo partzela bati behin betiko kategoria eman behar zaio eraikuntzako obretarako lizentzia eskatu baino lehen.

4. Lurzoru urbanizagarrian bi mota hauek daude:

- Lurzoru urbanizagarri sektorizatua; lurzoru honek egiturazko antolamenduaren berezko zehaztapen guztiak dauzka eta Hiria Antolatzeko Plan Orokor honek ezarritako epeetan gauzatu behar dena. HAPOaren bidez edo garapen planeamenduaren bidez antola daiteke modu xehatuan.
- Lurzoru urbanizagarri sektorizatugabea; lurzoru-erreserba baino ez da, egiturazko antolamenduaren zehaztapenik ez daukana eta, ondorioz, garatzeko sektorizazio plana beharrezkoa duena.

1.4.1.2 artikulua Sailkapen eta kalifikazio globalaren arteko lotura. Lurzoruaren hirigintza-araubidearen oinarriak (A-D)

1. Lehenago adierazitakoarekin eta Plan Orokorren berezko zehaztasun-mailarekin bat, udal-mugartea lurraldea banatzeko bi sistemen gainjarritako konbinazioaren

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 54 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍA



HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

mende dago: lehenengoa, kalifikazio globalak eragina eta bigarrena, sailkapenak eragina.

2. Udal-mugartean dagoen edozein lur-azalera aldi berean lurraldea banatzeko bi sistemen mende egongo da, eta, hala, hirigintza-araubidearen oinarriak ezartzen dira.
3. Lurzoru-mota bakoitzean dauden lurretan indarreko legediak mota horietako bakoitzerako ezarritako araubidea aplikatuko da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 55 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.2 KAPITULUA. ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA ESLEITZEA**1.4.2.1 artikulua Jarduketarako lurralde-eremuak**

- 2/2006 Legeak bere 136., 137., 138. eta 139. artikuluetan adierazi duenarekin bat, Plan Orokorraren zehaztasunak honako jarduketa-mota hauen bidez egikaritutako dira:

Jarduketa isolatuak.
Zuzkidura-jarduketak.
Jarduketa integratuak.
Egikaritze-jarduketak.

Aipatutako jarduketa-mota bakoitzari jarduketarako lurralde-eremu espezifiko bat dagokio.

- Planean Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.1.f artikuluan aipatutako egikaritze-eremua identifikatu da, Lege horren 138. artikuluko jarduketa integraturako eremuarekin batera
1.4.4 kapituluan antolamendua egikaritzeko modua zehaztu da.

1.4.2.2 artikulua Kontzeptuak: eraikigarritasun haztatua; batez besteko eraikigarritasun haztatua

- Lurralde-eremu baten eraikigarritasun haztatua.
Lurralde-eremu bateko eraikigarritasun haztatua zer den ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, zehazten du 35.4 artikuluan. Hauei soilik eragiten die: hiri-lurzoruari, lurzoru urbanizagarriari eta, eskuratu ahal izateko, egikaritze-esparruei atxiki gabe dauden lurzoru urbanizaezinetako sistema orokorreari.
- Lurralde-eremu baten batez besteko eraikigarritasun haztatua.
Lurralde eremu bateko batez besteko eraikigarritasun haztatua zer den ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, zehazten du 35.5 artikuluan.

1.4.2.3 artikulua Jarduketa integraturako eremuen zerrenda (AFaren arabera)

Hiria Antolatze Plan Orokor honetan jarduketa integraturako honako eremu hauek zehaztu dira:

- Hiri-lurzoru finkatugabeen, zehaztutako hirigintza-eremu bakoitzak jarduketa integratu bat osatzen du:

AL.02-08	Urbegi eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.02-09	Dulantzi eremua	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.02-10	Baratzaldea eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.02-11	Larraineta eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.02-16	Añua-Goikolanda eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 56 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

AL.02-13	Santa Klara eremua	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.02-18	Euskal Herria hegoaldea eremua.		Hiri-lurzoru finkatugabea Dulantzi
AL.02-19	Goikolanda-Egileta eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.02-20	Egileta-J. Agustín eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.13-02	Geltokia hirugarren sektoreko eremua.		Hiri-lurzoru finkatugabea Dulantzi
AL.14-02	Gasteiz industria-eremua	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.19-01	Mendebaldeko industria- eta zerbitzu-eremua		Hiri-lurzoru finkatugabea Dulantzi
AL.20	Juan Agustín Etxeberria	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
AL.21	Landa mendebalde-Egileta		Hiri-lurzoru finkatugabea Dulantzi
AL.22	Egileta	Hiri-lurzoru finkatugabea	Dulantzi
EG.04	Etxoste eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Egileta
EG.05	Dulantzi eremua.	Hiri-lurzoru finkatugabea	Egileta

- Lurzoru urbanizagarri sektorizatuan, sektore bakoitzeko plan partzialak jarduketa integratuen mugaketa ezarriko du.
- Urbanizazioaren onurak eta kargak modu orekatuan banatu ahal izateko, hiri-lurzoruaren eremu bakoitzean eta lurzoru urbanizagarriaren sektore bakoitzean, ezingo dira mugatu antolamendu-esparruaren, eremuaren edo sektorearen batez besteko hirigintza-eraikigarritasuna % 5 edo gehiago aldatzen duen batez besteko hirigintza-eraikigarritasuna duten egikaritze-unitateak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 145.5 artikuluan ezarritakoarekin bat.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 57 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.3 KAPITULUA. PLANGINTZAREN GARAPENA

1.4.3.1 artikulua Plangintza garatzeko araudiaren definizioa

1. Aplikatuko den araubidearen formulazioa

Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian mugatutako hirigintza-eremu (HE) bakoitzean aplikatuko diren garapen plangintzaren araubideko zehaztapenak "2. liburua" dokumentuan ("Hirigintza eremuen arau partikularrak") dagoen hirigintza-eremu bakoitzaren arau partikularreko "Garatu eta egikartzeko araubide juridikoa" atalean zehazten dira.

2. Plan honek modu xehatuan antolatutako hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuan plangintza garatzeko aplikatuko den araubidea

Plan honetan modu xehatuan antolatzen diren antolamendu xehatuko esparruak Plan hau zuzenean gauzatzeko eremuak dira. Hala ere, ondoko hauek egin daitezke eremu bakoitzean (partzela osoa edo zati bat bakarrik):

- Xehetasun-azterketak eta urbanizazioa osatzeko obren proiektuak, finkatutako hiri-lurzoruko jarduketa bakarren kasuan.
- Xehetasun-azterketak, hirigintzako jarduketa programak, birpartzelazio-proiektuak edo, bidezkoa bada, lurren jabetza kentzeko proiektuak eta urbanizazio-proiektuak, hiri-lurzoru finkatugabeen eta lurzoru urbanizagarrian.
- Lurren jabetza kentzeko espedienteak eta hornidura publikoen obra-proiektuak, egikaritze-eremuetan ez dauden sistema orokorren eta tokiko sistemen elementuen kasuan.

3. Plan honek modu xehatuan antolatzen ez duen lurzoru urbanizagarri sektorizatuan plangintza garatzeko aplikatuko den araubidea

Plan honek modu xehatuan antolatzen ez duen lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatutako antolamendu-eremuetan, aurreko puntuan ezarritako antolamendu-aurreikuspenak egikaritu aurretik, dagokion plan partziala edo, hala badagokio, sistema orokorrek garatzeko plan berezia formulatu beharko da, kalifikazio xehatua zehazteko xedez.

4. Lurzoru urbanizagarri sektorizatugabeen plangintza garatzeko aplikatuko den araubidea

Lurzoru urbanizagarria garatzeko ezinbestekoa izango da alde zuzenetik sektorizazio-plana izapidetzea lurzoru urbanizagarri sektorizatuari buruzko berezko zehaztapenak ezartzeko. Hori eginez gero artikuluko 3. puntuan ezarritakoa aplikatuko da.

5. Lurzoru urbanizaezinean plangintza garatzeko aplikatuko den araubidea

- Lurzoru urbanizaezinean honela jokatuko da:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 58 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a.1 Egiturazko jarduketa bakoitzak bere plan berezia eduki behar du, sektoreko legeriarekin bat etorritik gauzatzen denean izan ezik.

Halaber, plan berezia beharko da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 28.5.a artikuluan jasotako jarduerak baimentzen direnean, baldin eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 4.3 artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen badira.

- a.2 Udaltzak beharrezkotzat jotzen duenean, ingurumen fisikoa babesteko plan berezia egiteko eskatu ahal izango du.

- b) Aurrekoa gorabehera, zuzenean gauzatuko dira Plan honetan baimendutako eta aipatutako planeamendu bereziaren formulazioko aurreikuspenen eragina jasotzen ez duten eta baldintzatzen ez dituzten esku-hartzeak eta ekintzak, nahiz eta eremuan sartutako lurretan eragina eduki.

1.4.3.2 artikulua Plan bereziak

1. Antolamenduzko baldintzak eta irizpideak.

- a) Plan orokor honen garapenean formulatzen diren plan bereziek beti errespetatu beharko dute beren eremuari esleitu zaion hirigintzako araubide orokorra.
- b) Horrez gain, plan guztiek, dagokien esparruko antolamenduaren koordinazio egokia bermatu beharko dute aldameneko lurraldeekin. Eginbehar hori modu berezian hartuko da kontuan proposatutako antolamendua aldatzen den kasuetan, eta planean bertan erantsi beharko dira, edo beharrezkoa balitz, beste espediente paralelo batzuetan, aldameneko eremuetan behin-behinean aldatu diren hirigintzako elementuen egikaritzea egokiro bermatzen duten hirigintzako kudeaketa-mekanismoen aplikazioei buruzko zehazpenak.
- c) Halaber, plan bereziak idazten direnean, ahal den neurrian, EUDELEk, IHOBek eta Eusko Jauriaritzako Lurraldearen Antolamendu Sailak argitaratutako hirigintza-plangintza idazteko eskuliburutik ondorioztatutako jasangarritasun irizpideei jarraituko zaie.

2. Edukia:

- a) Plan bereziek, Euskadiko Hirigintza eta Lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 69. eta 72. bitarteko artikuluekin bat (biak barne), berezkoa duten edukia izango dute.
- b) Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arauzko garapena indarrean sartzen ez den bitartean, ekimen pribatukoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 59 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a. Urbanizazio-obrak burutzeko era; jarduteko aukeratu den sistema agertuko da.
- b. Urbanizatzaileak eta Udalak, eta urbanizatzaileak eta jabeek hartu beharko dituzten konpromisoak, ondoko hauek direla eta:
 1. Urbanizazio-obrak burutzeko epea eta, beharrezkoa bada, zerbitzuak ezartzeko epea.
 2. Lurzoruaren Legeak ezarritako betebeharrak orokorren artean sartu ez diren urbanizazioaren komunitatearen zuzkidurarako eraikinen eraikuntza, halakorik balego.
 3. Urbanizazioa onik zaintzea. Gainera, urbanizazio-lanak Udalak, partzelen jabeak edo sustatzaileak egingo dituen adierazi beharko da. Partzelen jabeek eta sustatzaileek, gainera, urbanizazioa noiz arte zaindu beharko duten adierazi beharko dute.
- c. Urbanizazioaren sustatzailea edo sustatzaileek dituzten edozein baliabide ekonomiko, berezko baliabideak eta finantzazio-iturriak adieraziz.
- d. Eragindako jabeen zerrenda, baita dagokion eremuan dauden higiezinetak legeko egoiliarren diren beste eskubide batzuen titular guztiena, plangintzako xedapenen arabera, higiezinak utzi behar badituzte.

Horretarako, katastro eta erregistroko datuak ez ezik, egiazko jabeen zerrenda araztua aurkeztu beharko da, eragindako lursailen egungo egoeraren planoarekin batera. Planoan jabe bakoitzari esleitutako azalerak agertuko dira, haien helbideak adieraziz, jakinarazpenetarako. Aipatutako eskubideen gainontzeko titularrei dagokienez, arestiko baldintzak ez ezik, kasu bakoitzean legeko egoiliarra izatea frogatu beharko da.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, bigarren xedapen gehigarriak ekarritako erantzukizunen definizioa, hala badagokio, bizi diren pertsonen ostatu emateari dagokienez.

1.4.3.3 artikulua Plan partzialak

1. Antolamenduko baldintzak eta irizpideak.
 - a) Plan honen garapenean formulatzen diren plan partzialek beti errespetatu beharko dute beren hirigintza-eremuari esleitu zaion hirigintzako araubide orokorra.
 - b) Horrez gain, planak ziurtatu beharko du dagokion esparruaren antolamendua aldameneko lurrekin koordinatzen dela, baita hirigintzako elementuen kokapenari buruzko alderdi xeheei dagokienez ere.

Eginbehar hori modu berezian hartuko da kontuan proposatutako antolamendua aldatzen den kasuetan, eta planean bertan erantsi beharko dira, edo beharrezkoa balitz, beste espediente paralelo batzuetan, aldameneko eremuetan behin-behinean aldatu diren hirigintzako elementuen egikaritzea egokiro

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 60 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

bermatzen duten hirigintzako kudeaketa-mekanismoen aplikazioei buruzko zehazpenak.

- c) Halaber, plan partzialak idazten direnean, ahal den neurrian, EUDELeK, IHOBek eta Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendu Sailak argitaratutako hirigintza-plangintza idazteko eskuliburutik ondorioztatutako jasangarritasun irizpideei jarraituko zaie.

2. Edukia:

- a) Planek dagokien edukia izango dute, hirigintza-legeriarekin bat.
- b) Gainera, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen erregelamendu-garapena indarrean sartu arte, ekimen partikularreko planek honako hauek bete beharko dituzte, betekizunen osagarri gisa:
- a. Urbanizazio-obra burutzeko era; jarduteko aukeratu den sistema agertuko da.
- b. Urbanizatzaileak eta Udalak, eta urbanizatzaileak eta jabeek hartu beharko dituzten konpromisoak, ondoko hauek direla eta:
- Urbanizazio-obra burutzeko epea eta, beharrezkoa bada, zerbitzuak ezartzeko epea.
 - Lurzoruaren Legeak ezarritako betebeharrak orokorren artean sartu ez diren urbanizazioaren komunitatearen zuzkidurarako eraikinen eraikuntza, halakorik balego.
 - Urbanizazioa onik zaintzea. Gainera, urbanizazio-lanak Udalak, partzelen jabeak edo sustatzaileak egingo dituen adierazi beharko da. Partzelen jabeek eta sustatzaileek, gainera, urbanizazioa noiz arte zaindu beharko duten adierazi beharko dute.
- c. Urbanizazioaren sustatzailea edo sustatzaileek dituzten edozein baliabide ekonomiko, berezko baliabideak eta finantzazio-iturriak adieraziz.
- d. Eragindako jabeen zerrenda, baita dagokion eremuan dauden higiezinetakoko legezko egoiliarren diren beste eskubide batzuen titular guztiena, plangintzako xedapenen arabera, higiezinak utzi behar badituzte.

Horretarako, katastro eta erregistroko datuak ez ezik, egiazko jabeen zerrenda araztua aurkeztu beharko da, eragindako lursailen egungo egoeraren planoarekin batera. Planoan jabe bakoitzari esleitutako azalerak agertuko dira, haien helbideak adieraziz, jakinarazpenetarako. Aipatutako eskubideen gainontzeko titularrei dagokienez, arestiko baldintzak ez ezik, kasu bakoitzean legezko egoiliarra izatea frogatu beharko da.

- e. Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, bigarren xedapen gehigarriak ekarritako erantzukizunen definizioa, hala badagokio, bizi diren pertsonen ostatu emateari dagokienez.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 61 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.3.4 artikulua Xehetasun-azterketak

1. Planean jasotzen diren nahitaezko edo borondatezko xehetasunezko azterlanez gain, beste xehetasun-azterketa batzuk formulatu ahalko dira, hirigintza-legeriak ezarritako mugak eta baldintzako kontuan hartuz.
2. Edukia:
 - a) Antolamenduko tresna honen eta horren inguruan Plan honetan edo hura garatzen duen plangintzan ezartzen diren zehazpen berezien edukiaz gain, partikularrek sustatutako xehetasun-azterketek, beren dokumentazioan, eragindako jabeen nahiz utzarazi behar diren legezko egoiliarren identifikazioa barne hartu beharko dute, ekimen pribatuko plan partzial eta berezietarako ezarritako baldintzekin.

1.4.3.5 artikulua Hirigintza-antolamenduaren udal-ordenantza osagarriak

1. Plan hau garatzean, lurzoruaren erabilerekin zerikusia duten alderdiak arautzeko, erabilera eta eraikuntzako oinarrizko baldintzetan eragiten ez duten eraikuntza eta urbanizazioa, hirigintza-antolamenduaren udal-ordenantza osagarriko proiektu bat edo batzuk egin ahalko dira.
2. Ordenantza horiek udal mugarte osoan aplikatzekoak izango dira, eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 75. artikuluan finkatu den irismena eta edukia edukiko ditu.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 62 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.4 KAPITULUA. PLANGINTZA EGIKARITZEA

1.4.4.1 artikulua Xedapen orokorrak

1. Agiri honetan jasotzen diren aurreikuspenen gauzatzeak, baita horren garapenean formulatzen den tresnan jasotakoak ere, indarrean dagoen hirigintzako legean eta aipatutako tresnan xedatutakoa beteko du.
2. Baldin eta plan honetan ezarritako hirigintzako zehaztapenak gauzatzearen ondorioz legezko biztanleak eraitsi beharreko eraikinetatik kaleratu behar badira, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritik, eragiketan parte hartzen duten eragileei dagozkien erantzukizunak zehaztu beharko dira, kaleratuek beste egoitza bat eskuratzeko duten eskubideari erantzuteko.

1.4.4.2 artikulua Egikaritze-jarduketa motak eta esparruak. Egikaritze-unitateak

1. Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin bat eta 1.4.2.1 artikuluan adierazitakoari jarraikiz, honako jarduketa hauek bereizi dira:
 - a) **Jarduketa bakarrik:** Xede bakarra lurzatiak eta orubeak sustatzea dutenak, eta kasu batzuetan lurrak urbanizatzea ere bai, eraiki aurretik zein eraikuntza-lanak egiten ari direla, ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorritik.

Jarduera integratuekin alderatuz, desberdintasuna da ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 11.3.a) eta 136. artikuluetan eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/08 Dekretuko 40. artikuluan exijitzen den urbanizazio-maila lortu duela eta, hornidura-jarduerekin alderatuz, desberdintasuna da alde aurretik zegoen haztatutako eraikigarritasuna ez dela handitu.
 - b) **Zuzkidura-jarduketak:** ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren 137. artikuluan eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/08 Dekretuko 41. artikuluan deskribatutakoak dira. Horien helburua hornidura karga altxatzea da, aurretik zegoenaren gainean.

Definizioz, hiri-lurzoru finkatugabearen gainean hedatzen dira, baina banaka hartutako orubeei eta partzelei soilik aplikatzen zaizkie; izan ere, zuzkidura-karga libratzeko beharra alde batera utzita, jarduera integratuei eskatzen zaien urbanizazio maila dute.
 - c) **Jarduketa integratuak:** Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 138. artikuluan deskribatutakoak dira. Jarduera isolatuen edo zuzkidura-jarduketan definizioaren barruan sartzen ez diren eta sistema

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 63 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

orokorren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoak egikartzeko jarduerak ez diren jarduerak dira.

Definizioz, hiri-lurzoru finkatugabeen eta lurzoru urbanizagarri osoan hedatzen dira, eta horietako bakoitzak gutxienez egikaritze-unitate bat du.

- d) Sistema orokorren eta tokikoen sareetako hornidura publikoak **egikartzeko jarduketak**: ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 139. artikulua arabera, honako hauek dira: zuzenean egikaritu daitezkeen eta eragindako lurzoru eta eskubideak desjabetze bidez lortu beharra daukaten jarduerak, lurzoru, ondasun eta eskubideok ez egotearren jardura integratuetan sartuta edo haiei atxikita.

Jarduera horien xedea da jardura integratuei atxikita edo haietan sartuta ez dauden lurzoru-mota guztien sistema orokorrak egikaritzea.

Bestalde, horien helburua izango da hiri-lurzoruan kokatuta dauden tokiko sistemak egikaritzea, betiere, jarduketa integratuen barruan sartzea egingarria ez denean edo zuzkidura-jarduketei eta jarduketa isolatuei eskatu ahal zaien doako lagapen kargaren barruan ez badaude.

2. Deskribatutako jarduketek irudikapen espaziala dute, eta eremuak honela definitzen dira:

- a) **Jarduketa isolatuen esparrua**: jarduketa horien xede den eta irabazizko erabilera duten orube eta partzelen multzoa da, baita hiri-lurzoru finkatuan dauden zuzkidurena ere.

Plan honetan P-5 planoan ("Antolamendu xehatua") jaso dira, gehiago zehaztu gabe, zuzkidura-jarduketekin batera. Bi esparru horien arteko banaketa, eta hortaz, jarduketa bakoitzak eragindako orube edo partzelen banaketa, banaka egingo da, eraikuntza- edo partzelazio-obretarako lizentzia ematen den unean, hala badagokio.

- b) **Zuzkidura-jarduketan esparruak**: hiri-lurzoru finkatugabeko irabazizko erabilera orube eta partzelen multzoa da (dagokion zuzkidurarekin, 105/08 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoarekin bat ahal denean), jarduketa integratuen barne ez daudenena.

- c) **Jarduketa integratuen esparruak**: jarduketa integratu batean sartuta eta horri atxikita dauden lursail publiko eta pribatuen multzoa da.

Plan honetan, jarduketa integratuen esparruak bat datoz 1.4.2.3 artikuluan aipatutako eta grafikoki P3, P4, P5 eta P6 planoetan jasotako hiri-lurzoru finkatugabeko hirigintza-eremuekin.

- d) Zuzkidura publikoen **egikaritze-jarduketan esparruak**: jarduketa integratuei atxikita ez dauden sistema orokorrak hartzen dituzte barne.

Plan honetan, P3, P4, P5 eta P6 planoetan jasota daude.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 64 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

3. Egikaritze-unitateak jarduketa integratuak banatzen diren eremuak dira, eta horien xedea da azalera osoa lagatzeko, berdinbanatzeko eta urbanizatzeko eginkizunak modu bateratuan bete daitezen arautzea. Horien irismena, edukia eta mugaketa Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 144. eta 146. artikuluetan daude araututa.

1.4.4.3 artikulua Urbanizazioak finkatutako hiri-lurzorua edo jarduketa isolatuak egikaritzeko araubidea

1. Lurzoru horretan, orubetzat jotzen diren lurretan zuzenean eraiki ahal izango da eta, bidezkoa bada, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 136. artikuluan ezarritako birpartzelazio-prozedura abian jarri ahal izango da.
2. Orubetzat hartzen ez diren lursailetan, eraiki aurretik, urbanizazio-obra osagarrien proiektua onartu beharko da. Gainera, finkak normalizatzeko proiektua onartzeko eta birpartzelatzeko baimena eta obra-baimena emateko, kasuan kasukoa, aldeztu aurretik edo aldi berean nahitaez eta dohainik laga beharko dira jabari eta erabilera publikoko espazio gisa kalifikatuta dauden lurak.
3. Kasu bietan, lursailak normalizatzeko proiektua exijitu ahal denean, eten egingo dira urbanizazioa osatzeko obrak eta antolamenduak jabari eta erabilera publikoko espaziotzat hartutako lurren derrigorrezko eta doako lagapena, proiektua onetsi arte.
4. Finkak erregularizatzeko eta hirigintza-zerbitzuak lortzeko, Hirigintza Kudeaketako Araudia onartzen duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuan ezarritako lursailak normalizatzeko prozedura erabiliko da, eta normalizazio hori gauzatzeko gehieneko mugei dagokienez, azalerari aplikatuko zaizkio, eta ez finken balioari, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat.

1.4.4.4 artikulua. Zuzkidura-jarduketei dagokien hiri-lurzoru finkatugabearen araubidea

1. Eraiki aurreko urrats gisa, lursail horietan zuzkidura-karga askatu beharko da, urbanizazioa eta eraikuntza osatzeko prozesuaren aurretik, dagokion hirigintza-eremuaren araudian araututako hurrengo prozeduraren arabera, Hirigintza Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat.
2. Zuzkidura-karga askatu ostean, urbanizazioak finkatutako hiri-lurzoruan jarduten den modu berean jardungo da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 65 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.4.5 artikulua Urbanizazioak finkatzen ez duen hiri-lurzorua (jarduketa integratuenak) eta urbanizagarria egikaritzeko araubidea

1. Hiri-lurzoru finkatugabearen eta lurzoru urbanizagarrian integratutako jarduketetan ezarritako hirigintza-antolamenduaren ezarpenak egikaritzeko, jarduketa integratu bakoitzaren (dagokion hitzarmena sinatuz eta, hala badagokio, hitzarmena adjudikatuz) eta birpartzelazio eta hala badagokio, urbanizazio-proiektuen urbanizazio jarduketa programa idatzi, izapidetu eta onartu beharko da.
2. Mugaketa Ekipamendu, espazio libre edo komunikazioak dituzten azpiero publikoekin muga egiten duten egikaritze-unitateen perimetroan sartzen dira hornitu gabe daudelako oraindik titulartasun pribatua duten azpiguneei dagozkien lursail guztiak. Kartografia, katastro edo titulartasuneko akats edo zehaztugabetasunagatik mugaketa grafikoan agertzen ez direnetan ere aplikatuko da irizpide hori. Birpartzelazioetan, titulartasuna egiaztatu aurretik, unitatea berriz mugatuko da eta titulartasun pribatuko hondarrak sartuko dira, gehienez eremuko azaleraren %5 eta aprobetxamendua aldatu gabe. Horretarako ez da HAPOa aldatu beharrik. Aldea %5 baino handiagoa bada, HAPOan aldaketa zehatza eginda mugatuko da berriz.
3. Lurzoru urbanizagarri sektorizatugabearen, aurreko kasuan bezala, sektorizazio-plana aurkeztu beharko da.

1.4.4.6 artikulua Sistema orokorren eta tokiko sistemen zuzkidura publikoen jarduketan esparruetan aplikatu beharreko egikaritze-araubidea

Jarduketa horietan desjabetze bidez jardungo da beti eta beren arau berezian ezarritako epea errespetatuko da. Epe hori ezingo da izan Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 186. artikuluan xedatutakoa baino luzeagoa.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 66 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.5 KAPITULUA. URBANIZAZIOA EGIKARITZEA

1.4.5.1 artikulua. Urbanizazio-obrak egikaritzeko eskatzen diren proiektu-motak, horiek bete behar dituzten baldintzak eta obrak hasteko aukera

- Urbanizazio-obrak, kasuan kasu dagokionaren arabera, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 194. eta 195. artikuluetan zehaztutako proiektuen bidez gauzatuko dira.
- Horri dagokionez, antolamendu xehatuko hirigintza-eremu bakoitzean hirigintzako arau hauetako 2. liburuan ("Hirigintza Eremuen Arau Bereziak") jasotako arau berezian ezarritako baldintzak aplikatuko dira, edo, garapen-plangintza egin bada, hor ezartzen diren baldintzak.

1.4.5.2 artikulua. Urbanizazio-obretan garatzen diren proiektuen ondorioz antolamendua egokitzeko aukeren mugak

- Urbanizazio-proiektuek, obren egikaritze materialean zehar, lurzorua eta zorupearen ezaugarriek eskatzen dituzten egokitzapenak egin ahalko dituzte. Hala ere, egokitzapen horrek onibarren antolamendua aldatzen badu, gauzatzen ari den planaren aldaketa onartu beharko da alde zuzenetik edo aldi berean.
- Urbanizazio-obrak garatzen dituzten proiektuek tokiko sistema eta sistema orokorretako elementuen osaketa, lerrokadurak eta sestrak egokitu ahalko dituzte, eta beharrezkoa bada, plangintzak sistema horietarako ezartzen dituen azpiguine xehatuen gainean eragina izan dezakete.

Alde horretatik, berariaz ulertuko da plangintzan zehaztutako zerbitzu-azpiegiturretako sareen trazaduren eta ezaugarrien definizioa adierazgarria dela; beraz, dagozkien obra-proiektuen bitartez zehaztuko dira behin betiko.

1.4.5.3 artikulua. Urbanizazio-obren gutxieneko baldintza teknikoak

- Urbanizazio-proiektuetan aurreikusitako obren gutxieneko baldintza teknikoak sektoreko araudian eta hirigintza-antolamenduaren osagarri diren udal-ordenantzetan zehazten direnak izango dira.
- Azken horietan zehaztapenik ez badago, Udalak kasu bakoitzean definitu ahalko ditu aplikatu beharreko baldintzak, udal-sustapeneko obretan erabili ohi diren kalitate-estandarren arabera. Horretarako, obren sustatzaileak proiektua idazten hasi aurretik eskatu beharko ditu horri buruzko irizpide egokiak.
- Saneamendua banatzailea izango da udalerrri osoan. Urbanizazio-proiektuek saneamendu banatzailea izango dute zati guztietan, baita bi adarrek amaieran saneamendu lotzailean bat egin behar badute ere. Eraikuntza-proiektuetan euri-ura eta ur beltzak berezi egingo dira, nahiz eta saneamendua lotzailea izan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 67 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Sektore eta egikaritze-unitateen urbanizazio-proiektuek, AXE bakoitzaren arau berezietan jasotzen diren gai guztiak barne hartuko dituzte esparruaren garapenaren kontura, eta baita kanpoko loturak eta esparrua ibiltzeko beharrezkoak diren azpiegituren errefortzua ere, AXEaren arau berezietan aipatzen ez badira ere.
5. Aurreko ataleko errefortzua hornidura-hodietan, saneamendu-kolektoreetan, arazketa-sistemetan edo lurzoru finkatuari eta garapen-esparru berriei zerbitzu ematen dien beste azpiegiturretan egiten bada, gutxienez, hiri-lurzoru finkatugabeen dagoen zerbitzua eta garatzen diren esparruetan eska daitekeen legezko gutxieneko zerbitzua bermatuko da, jarduketa bakoitzerako berariazko udal-irizpideei jarraituz.

1.4.5.4 artikulua. Udalakoak ez diren titularrek urbanizazio-proiektuak egikaritzea

1. Behin betiko onartutako urbanizazio-proiektu batean aurreikusten diren lanak egikaritzeko ez da beharrezkoa izango aldez aurretik eskaera egitea eta Udalaren baimena lortzea. Nolanahi ere, sustatzaile edo titularrak Udalarari obra horien hasiera eta amaiera jakinarazi beharko dizkio, baita obretako etapa guztienak ere, egotekotan.
2. Horretarako, Udalak obren egikaritzeaz geroago egingo duen kontrolean hirigintza-antolamenduaren osagarri diren udal-ordenantzetan ezarritako dokumentu eta prozedurazko baldintzak bete beharko dira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 68 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.6 KAPITULUA. ERAIKITZEKO AHALMENA ERABILTzea

1.4.6.1 artikulua. Hiri-lurzoruan eraikitze ahalmena erabiltzea

- Urbanizazioaren eta onura eta zamen banaketaren baldintzak betetzea.
 - Urbanizazioak finkatutako hiri-lurzorutik orubetzat hartzen ez diren lurretan, partzelazio-lizentzia eta obra-lizentzia emateko, kasuan kasukoa, beharrezkoa izango da aldez aurretik edo aldi berean beharrezkoak diren urbanizazio-obrak gauzatzea, eta Udalak, horretarako, komenigarritzat jotzen duen moduan eskatu ahalko ditu horren bermeak.
 - Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arautegia onartzen ez den bitartean, egikaritze-unitateen barruko lurretan eraikitze baimena eskatu ahalko da (orube bihurtu aurretik), betiere honako betekizun hauek betetzen badira:
 - Administrazio-bidean birpartzelazio-proiektua onartzeko egintzak sendotasuna lortzea, bata edo bestea Plan Orokorraren onurak eta kargak banatzeko beharrezkoak izango balira.
 - Urbanizazio-obren gauzatze egoera dela eta, Administrazioak aurreikustea eraikuntza bukatzerakoan partzelak orube izateko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak edukiko dituela.
 - Baimena eskatzeko idazkian eraikuntza urbanizazio-obra bukatuta egon arte ez erabiltzeko eta baldintza hori eraikin osoarentzat edo zati batentzat burutzen diren jabetza edo erabilera eskubidearen lagapenetan ezartzeko konpromisoa hartzea.
- Eraikinak ezingo dira okupatu eraikin horietan eragina duen urbanizazioa guztiz amaitu eta uraren eta energia elektrikoaren hornidurak eta estolderia-sareak erabiltzeko moduan egon arte.
- Urbanizazioa eraikinaren aldiberekoa izateko betebeharra ez bada betetzen, baimena iraungiko da, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe, eraikitakoa erabiltzeko aukerarik gabe eta eskuratzen duten hirugarrenek kalteen eta eragozpenen ondorioz ordaina jasotzeko duten eskubidearen kaltetan izan gabe. Gainera, artikulua honetako 1.b atalean aipatzen den fidantza galduko da.
- Baimena eskatzeko epeak, eraikuntzaren hasiera eta bukaera.
 - Eraikitze baimenak plan honetan ezarritako gehieneko epean eskatu beharko dira, edo, bestela, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 189. artikuluan ezarritako epean.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 69 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Halaber, hirigintza-antolamenduaren osagarri diren udal-ordenantzetan alde zuzenetik definituta ez badaude, eraikitzeko baimena emateko egintzan, proiektatutako eraikuntza-obrak hasteko epea, gehieneko etenaldia eta bukatzeko epea ezarriko dira.

Epe horiek ezarriko dira, era berean, eraikitzeaz batera urbanizazio-obrak egin behar direnean eraikuntzaren osagarri gisa.

1.4.6.2 artikulua. Lurzoru urbanizagarrian eraikitzeko ahalmena erabiltzea

- Lursailak orube izan arte, ezin izango da lurzoru urbanizagarrian eraiki. Hala ere, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arautegia onartzen ez den bitartean, lursail horietan eraikitzeko baimena eskatu ahalko da, betiere honako betekizun hauek betetzen badira:
 - Administrazio-bidean birpartzelazio-proiektua onartzeko egintzak sendotasuna lortzea, bata edo bestea Plan Orokorraren onurak eta kargak banatzeko beharrezkoak izango balira.
 - Urbanizazio-obren gauzatze egoera dela eta, Administrazioak aurreikustea eraikuntza bukatzerakoan partzelak orube izateko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak edukiko dituela.
 - Baimena eskatzeko idazkian eraikuntza urbanizazio-obra bukatuta egon arte ez erabiltzeko eta baldintza hori eraikin osoarentzat edo zati batentzat burutzen diren jabetza edo erabilera eskubidearen lagapenetan ezartzeko konpromisoa hartzea.
- Eraikinak ezin izango dira okupatu eraikin horietan eragina duen urbanizazioa guztiz amaitu eta uraren eta energia elektrikoaren hornidurak eta estolderia sareak erabiltzeko moduan egon arte.
- Urbanizazioa eraikinaren aldiberekoa izateko betebeharra ez bada betetzen, baimena iraungiko da, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe, eraikitakoa erabiltzeko aukerarik gabe eta eskuratzen duten hirugarrenek kalteen eta eragozpenen ondorioz ordaina jasotzeko duten eskubidearen kaltetan izan gabe. Halaber, artikulua honen 1.b atalean aipatzen diren fidantzak galtzea ekarriko du. Edonola ere, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 32. artikuluan deskribatutako erabilera eta jardueri dagozkien obrak egin ahalko dira.
- Eraikitzeko baimenak Plan honetan ezarritako gehieneko epean eskatu beharko dira, edo, bestela, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 189. artikuluan ezarritako epean.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 70 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.6.3 artikulua. Lurzoru urbanizaezinean eraikitze eta baimendutako jarduerak ezartzeko ahalmena erabiltzea

1. Lurzoru urbanizaezinean eraikitze eta jarduerak ezartzeko ahalmena gauzatzeko orduan, kontuan hartuko dira arau hauek, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 28. artikulua eta, kasuan kasu, aplikatzekoa den sektoreko araudia.
2. Beharrezkoa izango da Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006) Legearen 28.5.a) artikuluan ezarritako hirigintza-baimena, baina, horrez gain, kasuaren arabera, legeria sektorialarekin bat etorritz eska daitezkeen baimenak edo onarpenak ere lortu beharko dira.
3. Plan honetan berariaz Plan Berezia egitea derrigorrezkoa dela ezarri den esparruetan, plan hori egiten ez den bitartean, aurretik dauden landa-erabilerei lotutako eraikinak baino ez dira baimenduko.
4. Plan honetan eraikitze baldintza gisa lur-azalera jakin baten lotura eskatzen den kasu guztietan, obra-lizentzia emateko beharrezkoa izango da lotura hori frogatu eta bermatzen duen erregistroko ziurtagiria aurkeztea.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 71 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.7 KAPITULUA. LEHENDIK DAUDEN ERAIKIN ETA ERABILEREN ARAUBIDEA**1.4.7.1 artikulua. Lehendik dauden eraikinen araubidea duten irizpide orokorrak**

1. Plan orokor honetan araututako eraikuntzari buruzko araubideak kontuan hartzen du Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 101. artikuluan ezarritakoa.
2. Kapitulu honetan, modu orokorrean ezartzen da hiri-lurzoruan, lurzoru urbanizagarrian eta lurzoru urbanizaezinean katalogatu gabe dauden eta plangintzarekin bat ez datozen eraikinen araubidea. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango eremuen arau berezietan egoera bereziak arautzeko.
3. Bestetik, historia- eta arkitektura-ondarea eta, ondorioz, eraikin eta gainerako elementu katalogatuak babesteko eta kontserbatzeko araubidea 3. liburuan ("Historia- eta arkitektura-ondarearen eta ondare arkeologikoaren elementuen babeserako katalogoa") jasotzen da.

1.4.7.2 artikulua. Hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren antolamendutik kanpo dauden eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak

1. Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101. artikuluan adierazitakoaren arabera, antolamendutik kanpokotzat hartuko dira eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak, baldin eta planeamenduan epe jakin batean kenduko direla aurreikusita bada, sistema orokorretako eta tokiko sistemetakoa jarduketa isolatu, integratu edo egikaritzeko baten eremuaren barruan sartuta geratu direlako. Antolamenduz kanpoko elementuak P-6 planoan ("Eraikuntzaren baldintzak") identifikatuta daude.
2. Eraikinak, eraikuntzak edo instalazioak antolamendutik kanpokotzat kalifikatzeak Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 101. artikuluko 5. eta 6. puntuetan baimendutakoa baino eraikuntza esku-hartze gehiago egiteko baimena ukatzea eragingo du, ondoko bi puntuetan adierazitako salbuespenekin.
3. Eraikin, eraikuntza edo instalazio batean zati bat edo eraikuntza gorputz bat bide tekniko normalen bidez antolamendutik kanpoko kalifikazioa duen zatitik bereiz badaiteke, antolamenduz kanpoko araubidetik salbuespena geratuko da, eta dagokionari lotuta, proposatutako antolamenduarekin bat etorritik.
4. Proiektu bidean dagoen sistema orokor bateko gunean egoteagatik antolamendutik kanpoko kalifikazioa daukaten eraikinek, eraikuntzek edo instalazioek antolamendutik kanpoko kalifikazioa galduko dute proiektua gauzatzen denean ez badaude jabari publikoak eraikitze desjabetu diren lurren barruan, eta, kasuan kasu, dagokien egoerara igaroko dira, proposatutako antolamenduarekin bat etorritik.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 72 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.7.3 artikulua. Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian plangintzarekin bat ez datozen eraikinak

1. Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101.3.b) artikuluekin bat etorritik, plangintzarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza eta instalazio gisa definitzen dira, antolamendutik kanpokoak alde batera utzita, eragiten dien antolamenduaren zehaztapenak betetzen ez dituztenak.
2. Bi maila daude:
 - a) A maila: kalea edo antolamendu xehatuak definitutako beste zuzkidura-lurzoru publiko bat okupatzen dutenak edo sestraren gainean gehienez onartzen dena bi solairuz gainditzen dutenak.
 - b) B maila: antolamendu xehatuaren zehaztapenen bat betetzen ez badute ere antolamendutik kanpokotzat hartzen ez direnak eta A mailako antolamenduarekin bat ez datozenak.
3. Planeamenduarekin bat ez datozen A mailako eraikin, eraikuntza eta instalazioak zaharberritu, kontserbatu eta apaintzeko, finkatu eta eraberritzeko esku-hartzeak onartuko dira, betiere eraikina handitu gabe, eta obra horien kostuak eraikina ordeztzeko kostuaren erdia gainditzen ez baldin badu.

Halaber, horietako zati bat edo eraikuntza-gorputz bat bide tekniko normalen bidez antolamendutik kanpoko kalifikazioa duen zatitik bereiz badaiteke eta gehieneko lerrokaduratik irteten bada, araubide honetatik salbuetsita geratuko da, eta dagokionari lotuta, proposatutako antolamenduarekin bat etorritik.

4. Eremu bakoitzeko arau berezian ezarriko dira plangintzarekin bat ez datozen B mailako eraikin, eraikuntza eta instalazioei aplikatu beharreko baldintzak.

Bestela, handitzea ez beste eraikuntzako esku-hartze oro egin daitekeela ulertuko da, berreraikuntza izan ezik, eta kasu horretan, antolamendu xehatu berrira egokitu beharko dira. Gainera, handitzeko obrak ere baimendu ahalko dira kalifikazio xehatuak partzelari esleitutako eraikigarritasuna amaitu arte, betiere eskatzen diren gainerako zehaztapenak betetzen badira eta ez badira okertzen kalifikazio xehatuarekin ez egokitzeko baldintzak.

1.4.7.4 artikulua. Plangintzarekin bat datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioak

Plangintzarekin bat datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioetan, eraikuntza-jarduerak hirigintza-antolamenduak ezartzen duenari egokitu zaizkio.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 73 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.4.7.5 artikulua. Antolamendu xehatua egiteke daukaten eremu eta sektoreetan aurretik dauden eraikin, eraikuntza eta instalazioak

1. Hirigintza-eremu, gune edo sektore bat garatzeko Plan honek exijitutako plangintza onartzen ez den bitartean, lehendik dauden eraikin, eraikuntza eta instalazioetan soil-soilik Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 101. artikuluko 5. eta 6. puntuetan adierazitako obrak egin ahalko dira
2. Plangintza xehatua onartu ondoren, dagokien araubidearen pean geratuko dira, proposatutako antolamendu xehatura egokitzen diren kontuan hartuta.

1.4.7.6 artikulua. Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian lehendik dauden erabilerak

1. Plan honek debekatzen dituen erabilerak edo ingurumenaren babesaren, segurtasunaren eta osasungarritasunaren arloan indarrean dauden xedapenekin bateragarriak ez diren eta neurri zuzentzaileekin zuzendu ezin daitezkeen gabeziak dituzten erabilerak antolamendutik kanpoko erabileratzat joko dira.

Horiek barne hartzen dituzten eraikin, eraikuntza eta instalazioetan, 5.6.2. artikulua 2. puntuan ("Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian antolamenduz kanpo dauden eraikin, eraikuntza eta instalazioak") ezarritakoa aplikatuko da. Hala ere, ingurumenean, segurtasunean eta osasungarritasunean duten eraginak murrizten dituzten obrak egiteko aukera egongo da.

2. Antolamendutik kanpoko kalifikazioa duten eraikin, eraikuntza eta instalazioetan kokatutako gainerako erabileretan jarduera garatzen jarraitu ahalko da, harik eta desagertu edo eten arte. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango jarduerasailkapenaren arloan indarrean dagoen araudia aplikatzeko. Galarazita dago erabilera aldatzea, salbu eta erabilera berria kalifikazio xehatuan onartutakoan artean badago, bateragarritasun-baldintzak betetzen baditu eta erabilera kentzeak edo lekuz aldatzeak aldatutako erabilerak baino kalte-ordain txikiagoa dakartela frogatzen bada. Modu berean, jarduerarik gabeko lokaletan ez da erabilera berrien ezarpena baimenduko.
3. Plangintzarekin bat ez datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioetan zilegi da egon dauden erabilerak mantentzea, harik eta jarduera eten arte; hori guztia jardueren alorrean indarrean dagoen araudia aplikatzea gorabehera da. Halaber, zilegi da erabilera aldatetako egitea eta lokal hutsetan erabilera berriak jartzea, baldin eta kalifikazio xehatuan onetsita badaude eta erabileren bateragarritasunari buruzko baldintzak betetzen badituzte.
4. Eremuetan lehendik dauden eta antolamendu xehatua egin gabe daukaten eraikin, eraikuntza eta instalazioetan, artikuluko honetako 2. puntuan ezarritakoa bete beharko da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 74 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

5. Hirigintza-antolamenduarekin bat datozen eraikin, eraikuntza eta instalazioetan, edozein erabilera-aldaketa baimenduko da, betiere erabilera berria baimenduta badago eta plan honetan ezarritako bateragarritasun-baldintzak betetzen baditu.
6. Jardueraren etena, artikuluko honen ondorioetarako, jarduerak hamabi hilabete baino gehiagoan ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ) baja duenean izango da. Jarduera etentzat joko da enpresen titulartasuna eskualdatzen denean.

1.4.7.7 artikulua. Antolamendutik kanpo dauden eta plangintzarekin bat ez datozen lurzoru urbanizaezineko eraikin, eraikuntza, instalazio eta erabilerak

1. Landaguneko guneeetan hiri-lurzorurako ezarritako araudia aplikatuko da.
2. Gainerako lurzoru urbanizaezinean, antolamenduz kanpoko eraikin, eraikuntza edo instalazio gisa kalifikatzen dira:
 - a) Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 101.3.a) artikuluan adierazitako inguruabarretan dauden eraikinak.
 - b) "Babes bereziko" J.1 guneeetan kokatuta, kalifikazio orokorrak uzten ez dituen erabilerak barne hartzen dituztenak.Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101. artikuluko 5. eta 6. puntuetan aurreikusitako obrak egin ahalko dira horietan.
3. Landa-eremuetan, antolamenduz kanpoko eraikin, eraikuntza edo instalaziotzat hartuko dira, J.2 "Gune babestuak" guneeetan egonik, kalifikazio globalak baimentzen ez dituen erabilerak hartzen dituztenak, baina "aurretik dauden erabilera onargarritzat" jotzen direnak.

Ondorio horietarako, honako hauek dira aurretik dauden erabilera onargarriak:

- a) Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen-prozesuei lotuta ez dagoen etxebizitza. Ez da baimenduko etxebizitza handitzea. Ez da baimenduko plan hau behin betiko onartzen den unean dagoen etxebizitza kopurua handitzea.
- b) Ostalaritza, batez ere Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 191/97 Dekretuan erregulatutako jardueretan.
- c) Komunitatearen ekipamendua, honako hauek salbu: dantza-aretoak, diskotekak eta antzeko jarduerak; jolasak eta ausazko jokoak; eta eragin negatiboa dutelako eta nekazaritzako eta naturako ingurunean eragiten dutelako Udalak bateraezintzat jotzen dituen gainontzeko guztiak. Aldez aurretik zuen eraikigarritasunaren % 50 handitu ahalko da gehienez.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 75 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Aurreko puntuen arabera antolamendutik kanpo ez daudenak eta plangintzarekin bat datozenak honelakotzat hartuko dira: lehendik dauden eraikinak, antolamenduak finkatuak.
Talde horretan, baserrien kasu berezia sartzen da. Hor, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30. artikuluan ezarritako baldintzetan, berreraiki ahalko dira..
5. Antolamenduz kanpoko gisa kalifikatuta dauden eraikuntzetan aurrera eramaten diren jarduerak egiten jarraitu ahalko da, jarduera eteten den arte.

Eraikin horietan ezingo da enpresen eta/edo eraikuntzaren titulartasuna eskualdatu. Egoera hori gertatzen bada, jarduera eten dela ulertuko da.
6. Plangintzarekin bat ez datozen eraikinetan zilegi da egon dauden eraikinak erabiltzea, harik eta jarduera eteten den arte; horrek ez du eragotziko jardueren alorrean indarrean dagoen araudia aplikatzea. Halaber, zilegi da edozein erabilera ezartzea, baldin eta kalifikazio orokorrean baimenduta badago eta bateragarritasunari buruzko baldintzak betetzen baditu.
Artikulu honen ondorioetarako, eraikin horietan jarduera etentzat joko da enpresen eta/edo eraikinen titulartasuna eskualdatu bada.
7. Halaber, jarduera eten dela joko da, artikulu honen ondorioetarako, jarduerari jarduera ekonomikoen zergan (EJZ) baja ematen zaionean.

1.4.7.8 artikulua. Kontserbatzeko betebeharraren edukia

1. Eraikin, eraikuntza, urbanizazio, instalazio, lursail, hiri-altzarien elementu eta publizitateko euskarrien jabeek segurtasun, osasungarritasun eta apainketa-egoera onean mantendu beharko dituzte, hirigintza-legerian ezartzen denaren arabera. Hauek sartzen dira artatu beharraren barruan:
 - a) Zaintza-lanak, zeinen helburua den ondasunen segurtasun, osasungarritasun eta egokitasun publikoko baldintzak ez narriatzea, bertako zerbitzuek zein instalazioek behar bezala funtzionatzea eta, beharrezkoa denean, aldatu beharreko elementuak eta osagaiak aldatzea.
 - b) Eraikin eta instalazioen segurtasuna, osasungarritasuna eta apainketa lehengoratzeko obrak, horretarako egonkortasuna ukitzen duten edota erabilerarako oinarritzko baldintzak mantentzeko balio duten elementu kaltetuak konponduz edo sendotuz; hori, betiere, obren kostua eraikina berritzeko lanen balioaren % 50 baino handiagoa ez bada, lursailaren balioa salbuetsita. Onura publikoko edo gizarte-intereseko arrazoiak direla eta, higiezina kontserbatzea komeni bada, Udalak konponketaren kostuaren gaindikin hori ordain dezake.
2. Jabetzari lotuta dagoen ondasuna artatu edota konpondu beharrak ez ditu baztertuta uzten errentamenduei buruzko legerian ezarrita dauden errentatzaileen betebeharrak eta eskubideak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 76 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

3. Urbanizazioen kasuan, zaintzeko betebeharra Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 197. artikuluan ezarritakoak eraenduko du.

1.4.7.9 artikulua. Segurtasunerako, osasungarritasunerako eta apaintasun publikorako gutxieneko baldintzak

1. Artatu beharra betetzeko eta, horrelakorik ezean, egikaritze-aginduak ematea bidezkoetzeko, segurtasun, osasungarritasun eta apaintasun publikorako gutxieneko baldintza hauek bete behar dira:

a) Orubeak:

- a.1 Hesiz inguratuta egon beharko dira, 1.5.1.33 artikuluan ("Hesiak") azaltzen den bezala.
- a.2 Istripuren bat eragin dezaketen putzuak eta desnibelak babestu edo seinaleztatu beharko dira.
- a.3 Garbi mantenduko dira eta, horien gainean, banaketa- eta hornidura-sareen zortasunak eta aplikagarriak izan daitezkeen gainerakoak beteko dira.

b) Urbanizazioak:

- b.1 Partzela bakoitzaren jabeak du zerbitzu-sareetako harguneak mantentzeko erantzukizun osoa, behar bezala funtziona dezaten.
- b.2 Urbanizazio partikularretan, jabe bakoitzari dagokio galtzadak, espaloiak, banaketa- eta zerbitzu-sareak, argiak eta bertako beste elementu guztiak kontserbatzea.

c) Eraikuntzak:

- c.1 Itxiturak eta estalkiak urarekiko iragazgaitz mantenduko dira, eta erorketen aurkako babes elementuak ere egoera onean edukiko dira.
- c.2 Egituraren elementuak beren eusteko helburua bete dezaten bermatzeko moduan zainduko dira; horretarako, korrosiotik eta agente erasotzaileetatik babestuko dira, baita zimenduetan kalterik sor dezaketen iragazpenetatik ere.
- c.3 Zerbitzu-sareak eta osasun-instalazioak egoera onean eta mantendu behar dira, aireztapen eta argiztapen egokiekin, ezarri zaizkien erabilera eta erabilera-araubidea aplika daitezkeela bermatzeko.
- c.4 Bai eraikinean bai inguruko espazio libreetan, jendearentzat arriskurik ez egoteko behar besteko garbitasuna egongo da.
- c.5 Kea eta partikulak kanporatzeko murrizketa- eta kontrol-elementuen funtzionamendua ongi dagoela ziurtatu behar da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 77 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- c.6. Eraikuntzen fatxada behar den moduan zaindu behar da, estaldurako materialak garbituz, margotuz, konponduz edo aldatuz.
2. Aipatutako ezaugarriak karteletan eta instalazioetan ere aplikatuko dira, betiere, duten izaera kontuan hartuta.
3. Artikulu honetako edukia osatu eta, hala badagokio, aldatu ahalko da, hirigintza-antolamenduaren osagarri den udal-ordenantza baten bitartez.

1.4.7.10 artikulua. Behin-behineko obra eta erabileren araubidea

1. Salbuespen gisa, Udalak behin-behineko erabilerak baimendu ahalko ditu hiri-lurzoru finkatugabeen, lurzoru urbanizagarrian eta hornidura publikoko elementuetarako era guztietako lurzoruetan, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 36. artikuluan ezarritako moduan.
2. Aipatutako artikuluan ezarritako betekizunez gain, aurreko erabilerak baimentzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
- a) Eskatzaileak baimena formalki eskatu izatea, behin-behineko baimen gisa.
- b) Erabileraren eta/edo obraren izaera eta helburua behin-behinekoa izatea. Erabilerari dagokionez, frogatu beharko da aldi baterako eta behin-behineko erabilera dela, eta berez, xedea dela eta, ez duela irauteko asmorik, eta berariaz adierazi beharko da erabilerak luzeen jota noiz arte iraungo duen jardunean. Proposatutako lurretan erabilera kokatzeko beharra frogatu egin beharko da, horrela aholkatzen duten udalerriko hirigintzako inguruabarren arabera, eta ez baimenik ez duen egintza bat legezatzearen ikuspegitik.
- c) Obrek beren eraikuntza-ezaugarrietan behin-behinekotasun baldintza zehatzak bete beharko dituzte. Ondorio horietarako, ez dira halakotzat hartuko eraikuntza klasikoko obrak, hormigoi armatuzko zein fabrikazko egiturak eta fabrikazko gainalde eta itxiturak dituztenak. Horien ordez, honako ezaugarri hauek eskatuko dira: metalezko egitura, panel desmuntagarri osatutako itxiturak, eta gainalde arinak, plakaz zein egitura puzgarriz eginak, edo olonazko gainaldeak.
- d) Erabilera edo obrek ez dute inoiz ere eragotziko plangintza betearaztea eta ez diote kalterik egingo paisaiak behar duen babesari, ez eta komunikazio-bideek eta jabari publiko hidraulikoak behar duten babesari ere. Hori dela eta, ezin dira onartuko 2 metrotik gorako lur-erazketak eragiten dituzten obrak, ez eta aipatutako neurri hori gainditzen duten hormak eraikitzea dakarten duten obrak ere.
3. Aurreko puntuetan araupetu den baimena behin-behinean emango da, aldirik luzeen gisa ezarriko den epe jakin baterako, berariaz luzatzen ez bada, behintzat, eta luzapen hori ere mugatua izango da. Erabilerak eta obrak eten edo eraitsi beharko dira, eta kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe, gainera, administrazio emailak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 78 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍA



HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

baimena bertan behera uztea erabakitzen duenean, baita ezarritako epea agortu ez bada ere.

4. Obrak eta erabilerak ezin izango dira hasi aldez aurretik agiri publikoan formalizatu gabe. Dokumentu horren bidez Jabetza Erregistroan jasota geratu da baimena eman dela, baimenaren izaera, eta lizentzia baliogabetzeak eta erabilerak eta/edo obrak bertan behera uzteak eta eraistek ez duela kalte-ordainik eragingo. Agiri publikoa formalizatzeko eta behin-behineko baimen gisa erregistroan sartzeko gastuak baimendunaren kontura izango dira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 79 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

BOSGARREN TITULUA.**AZPIGUNE ERAIKIGARRIETAKO ERAIKUNTZA ETA ERABILERA
ARAUTZEN DUTEN ORDENANTZAK****1.5.1 KAPITULUA. ORDENANTZAK APLIKATZEKO OINARRIZKO DEFINIZIOAK****1. atala. Hirigintzako definizio eta parametroak****1.5.1.1 artikulua. Lursaila eta partzela**

- Lursail bat jabe bati edo hainbati (jabetza indibisoan) eskusiboki eta modu baztertzailan egotzi zaien lurzati- edo eraikuntza-unitatea da. Hura sestran kokatu daiteke, altueran edo lurzorupean. Hipotekei buruzko legediari jarraikiz Jabetzaren Erregistroan folioa ireki ahal duenean, erregistroko lursailtzat hartzen da.
- Partzela lurzoru-unitatea da, bai sestran, bai altueran edo lurzorupean, betiere, eraikigarritasuna eta erabilera esleiturik baditu edo hirigintzako erabilera independentea badu.
- Lursail eta partzelen eraketa, eta haien arteko erlazioa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 26. artikuluan araututa daude.

1.4.5.2 artikulua. Eraikina edo eraikuntza

- Plan hau aplikatzeko, eraikinak izango dira lurzorutik azaleratu edo lurzorupean dauden eraikuntza guztiak, baldin eta fabrikatuak badira, edota edozein material erabiliz egindakoak badira. Manufakturatutako objektu guztiak ere eraikuntzat hartuko dira, iraunkorrak, mugiezinak edo lurzoruari finkatuak izan edo ez, baldin eta familiaren bizitzan erabiltzeko ezaugarri egokiak badituzte (etxebizitza) edo, orokorrean, edozein jarduera garatzeko erabili ahal badira.
- Eraikina banakakoa da, eta eraikin bakarra dela esaten da, arkitekturaren ikuspegitik bereiz daitekeen eraikuntza- eta funtzio-unitate bat osatzen badu, arkitektura-elementuek espazioan mugatzen dutena eta eskaileraren edo eskaileraren eta berezko beste banaketa-elementu batzuen bidez atal guztietarako berezko zuzeneko sarbidea duena.
- Elkarri lotutako eraikin-multzoa dagoenean, eta eraikinok aurreko bi zenbakietan adierazitako baldintzak betetzen dituztenean, zenbat eraikin dagoen jakiteko, sarrera edo atari independenteak adina eraikin dagoela ulertu behar da. Elkarren artean komunikaturiko atariak (eraikinaren barrualdetik edota galerien bidez) eraikin bakarra osatuko dute.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 80 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Aparkalekurako diren sotoko solairuen bidez bakarrik komunikaturik egonez gero, artikuluko honetako 2. puntuan adierazten diren baldintza biak betetzen dituzten eraikinak adina eraikin eratuko dira beheko solairutik hasi eta goiko solairuetaraino.

1.5.1.3 artikulua. Eraikin isolatua

1. Arau honen ondorioetarako, eraikin isolatua alboan beste eraikuntzarik ez duena izango da; ez du albokorik izango, beraz, ez sotoan eta ez goiko solairuetan, eta eskailera, korridore, galeria eta abar bezalako sarbide erkiderik ere ez du izango beste edozein eraikini dagokionez.
2. Eraikin bi atxikitzen badira, euren perimetroaren puntu batean (edozein solairutan) bakarrik izanda ere, horiek elkarren alboko eraikintzat hartuko dira hirigintzako ondorioetarako, nahiz eta egitura, sarbide eta arkitekturaren gainerako elementuak guztiz independenteak izan.

1.5.1.4 artikulua. Eraikigarritasun fisikoa

1. Kontzeptua: Eraikigarritasun fisikoa plangintzaren arabera esparru jakin batean eraiki daitekeen azalera da. Eraikigarritasun gordina dago alda betatik eta hirigintzako eraikigarritasuna bestetik; bi kontzeptu hauek Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 35. artikuluko 1., 2. eta 3. puntuetan zehazten ditu.

Aurkakoa adierazi ezean, HAPOan aipatzen diren eraikigarritasunak sestra gaineko eraikigarritasunari buruzkoak dira. Sestra azpiko eraikigarritasuna, kasu bakoitzean, arauetan (batzuetan sestra azpian eraikitzea debekatzen dute) adierazitako gune bakoitzerako eraikigarritasunaren profiletik eta planoetan adierazitako sestra azpiko mugimendu-eremuko baldintza zehaztatetik abiatuta zehaztuko da.

2. Eraikigarritasun fisikoa bi prozedura hauen baten bitartez arautu daiteke:
 - a) Ordenantzen bitartez, berariaz eta zenbakiz.
 - b) Eraikuntzaren forma araututa, hala idatzizko ordenantzaren bidez edo diseinu grafikoaren bidez.
3. Bi modu daude eraikigarritasun fisikoa esleitzeko, izan gordina edo izan hirigintzakoa:
 - a) Eraikigarritasun absolutua: plangintzak esparru jakin batean baimentzen duen azalera finkoa da. Metro karratu eraikigarritan edo sabaikoetan adierazten da (m²t). Esleipen-mota hori zuzenean edo zeharka arautu ahal da.
 - b) Eraikigarritasun-koefizientea: plangintzak esparru jakin baterako baimentzen duen azalera eraikigarria, esparru horretako metro karratu bakoitzeko. Metro

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 81 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

karratu eraikigarritan azalerako metro karratutan adierazten da (m^2t/m^2s).
Eraikigarritasuna esleitzeko modu hori "zuzeneko erregulazioa" izango da beti.

4. Eraikigarritasun-motak.

Eraikigarritasunaren bi modalitate hauek daude, aplikatzen eta/edo neurtzen den esparruaren arabera:

- Eraikigarritasun fisiko garbia: partzelan zuzenean aplikatzen da, jabari publikoan sartu beharreko lursailak salbuetsita. Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren kasuan, partzela eraikigarria orubea da.
- Eraikigarritasun fisiko orokorra: hirigintzako jarduketa baten jabeek onartu behar dituzten eginbeharren ondorioz jabari publikora igaro behar diren lurak dituen esparruan aplikatzen da.

Kasu honetan, eraikigarritasuna eraikigarritasun-koefizientearen adieraziz gauzatzen denean, eraikigarritasun absolutua aipatutako koefizientearen emaitza eta aipatutako esparruko azalera osoa biderkatuz lortuko da, azpigueneko arategian edo antolamendu xehatuko esparruko araudi berezian beste prozeduraren bat zehaztu ezean.

5. Eraikigarritasun fisikoen banakatzea:

- Banakapenaren arabera eraikigarritasuna ondoko hauen bitartez finkatu daiteke:
 - Eremuaren eraikigarritasun osoa.
 - Eraikigarritasun partzialak erabileren edota solairuen arabera (sestraren gainetik edo sestraren azpitik).
- Plangintzan eraikigarritasuna modalitate bi hauetako baten bidez ezar daiteke (edo bien bitartez).

6. Eraikigarritasunak ezartzea.

Plangintzak bereiziko ditu eraikigarritasun gordina (erabilera publikoak eta erabilera pribatu edo irabazikoak) eta hirigintzako (erabilera pribatuak bakarrik). Bereizketa hori ezartzen ez bada, ezarritako eraikigarritasun fisikoa hirigintzako soilik dela ulertu behar da.

1.5.1.5 artikulua. Eraikigarritasuna neurtzeko moduak

- Sestra gaineko eraikigarritasunaren kalkuluan beheko solairuan, goiko solairuetan eta teilatupeko solairuan eraikitako azalera osoa zenbatuko da, eta eraikuntzako kanpoko perimetrotik neurtuko da. Azalera hauek izango dira salbuespena:
 - Beheko solairuaren mailan dauden portxe estaliak eta eraikuntza-azpiko sarguneak, betiere erabilera publikokoak badira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 82 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Beheko solairuaren mailan dauden portxe estaliak; eraikuntza azpiko sarguneak, erabilera pribatukoak direnak; eta sargune eta irtengune irekiek edo hegai irekiek, "Fatxadetako irtenguneak eta sarguneak" izeneko 1.5.1.28 artikuluan zehaztutakoek, eraikigarritasuna neurtzeko, forjatu azalera eta 0,5 koefiziente murriztailea biderkatuz konputatuko dira.
- c) Etxadiko patioak.
- d) Estalguneak edo oinplanoko perimetro osoan eta altuera osoan itxiturarik gabekoak diren sabaiepeak.
- e) Teilatupeko solairuak, eraikinaren zerbitzurako erabiltzen badira.
- f) Betiere, 1,5 metrotik beherako altuera erabilgarria duten ganbaretako eta teilatupeko solairuetako oinplanoko azalera.
2. Sestra azpiko solairuetan, eraikigarritasun gisa hartuko da sotoko eta/edo erdisotoko solairuetan eraikitako forjaketa- edo sabai-azalera azalera osoa, euste-hormen eta goiko solairuetako proiektzio horizontalean dauden arrapalak barne
- Sestra azpiko eraikigarritasuna mugatzen ez bada, eta ordenantzak egoera horretan eraikitzeko aukera ematen badu, instalazioetarako, ibilgailuak aparkatzeko eta trastelekuetarako azalera kendu ahalko zaio, baldin eta eraikineko erabilera nagusiei lotuta badago.
3. Partzela berean dauden eraikin salbuetsien kasuan, hala nola, lanabesentzako etxolak, egurtegiak edo antzerakoa edo asimilagarria den beste edozein eraikuntzaren kasuan, eraikigarritasuna kalkulatzeko orduan lehenengo solairuan eta, hala badagokio, goiko solairuetan eraikitako azalera osoa aintzat hartuko da. Azalera hori eraikitako kanpoko perimetroaren kontuan hartuta neurtuko da, nahiz eta alderen batean kanpoko itxitura ez eduki.

1.5.1.6 artikulua. Biztanle- edo bizitegi-dentsitatea

1. Biztanle-dentsitatea antolamenduak eremu jakin batean eraikitzen uzten duen etxebizitza-kopurua da.
2. Motak: Parametroa ondoko hauen bitartez finkatu daiteke plangintzan:
- a) Etxebizitza-kopuru finkoa.
- b) Eremuko hektareako eraiki daitezkeen etxebizitzaren kopurua adierazten duen koefizientea.
- c) Lurzatiaren gutxieneko azalera etxebizitzako eta/edo eraikuntza-motako.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 83 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

2. atala. Partzelaren parametroak eta baldintzak**1.5.1.7 artikulua. Mugak**

1. Mugak partzela mugatzen duten perimetro lerroak dira.
2. Partzelaren eta horrek aurrean duen bide edo espazio libre publikoaren arteko muga egiten duena da aurreko muga; eta gainerakoak alboetako mugak dira. Horien artean, atzeko muga aurrekoaren kontrako tokian dagoena da.
3. Partzelak bide edo espazio libre publiko bat baino gehiago ukitzen dituen mugak baditu, guztiak aurreko mugatzat joko dira.

1.5.1.8 artikulua. Mugen gehieneko eta gutxieneko neurriak

1. "Mugaren gehieneko neurria" eta "mugaren gutxieneko neurria" plan orokor honek edo partzelako muga baterako edo bat baino gehiagorako egindako planek ezarritakoak dira.
2. Ezarritako parametroak betetzen ez dituzten loteak sortzen dituzten partzelak ezingo dira banandu edo gehitu.

1.5.1.9 artikulua. Gutxieneko eta gehieneko partzela eraikigarria

1. Plan orokor honek edo berau garatzen duten planek lurzoru-mota guztietarako ezarritako azalera da gutxieneko partzela eraikigarria. Beraz, lehendik dauden partzela txikiagoetan ezingo da ezer eraiki.
2. Plan orokor honek edo berau garatzen duten planek lurzoru-mota guztietarako ezarritako azalera da gehieneko partzela eraikigarria. Beraz, lehendik dauden partzela handiagoetan ezingo da ezer eraiki eta derrigorrezkoa izango da bananketa edo partzelazioa.

1.5.1.10 artikulua. Partzelaren gehieneko eta gutxieneko azalera, partzelazioetarako

1. Birpartzelazioetarako gutxieneko eta gehieneko partzelak (edo besterik gabe, "gehieneko partzela" eta "gutxieneko partzela") dagokien plangintza-tresna behin betiko onartu eta gero sortutako partzela berri orok eduki behar dituen gutxieneko eta gehieneko azalera dira.
2. Bi parametro horiek betetzen dituzten partzela guztiak izango dira eraikigarriak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 84 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.5.1.11 artikulua. Partzela eraikietako lurzoruen banaketak

Eraikuntzaren bat duten lursailak banantzerakoan, lehendik dauden eraikuntzek kontsumitu duten eraikigarritasuna adierazi beharko da. Eraikigarritasun osoa agortuta badago ezingo da zatirik banandu, banandutako zatia hornidura publiko baterako erabili ezean.

3. atala. Eraikinak partzelan duen kokapenaren parametro eta baldintzak**1.5.1.12 artikulua. Bideen lerrokadura**

Bideen lerrokadura (edo lerrokadura, besterik gabe) erabilera publikoko bide edo espazio libreetarako lurren eta partzela eraikigarrien arteko muga ezartzen duen lerroa da. Plangintzak zehazten du lerrokadura.

Lerrokadura-mota hauek bereizten dira:

1. mota: errepideen foru-sareko bideen lerrokadura (jabari publikoko gunea).
2. mota: ibilgailuentzako kaleen udal-sareko bideen lerrokadura (espaloiak, aparkalekuak eta babesguneak barne).
3. mota: oinezkoentzako kale eta eremuen lerrokadura.
4. mota: berdeguneen (publikoen) lerrokadura.

Planoetan finkatu diren lerrokadurek kasuan kasuko lagapenak ekarriko dituzte, eta horiek Udalak eta agiri honek zehaztutako jarraibide eta irizpideei jarraikiz urbanizatuko dira. Lagapen horiek derrigorrezkoak eta doakoak izango dira, eta urbanizazioaren lana jabearen kontu egingo da.

1.5.1.13 artikulua. Lurzoruaeren erreferentzia altimetrikoen definizioa

Lurzoruaeren erreferentzia altimetrikoek lurzorutik gora eraikinak duen proiektzio bertikala zehazteko eta altuerak neurtzeko balio dute. Plan honetan, ondoko erreferentzia altimetrikoak erabiltzen dira:

- a) Sestra: plangintzan bide publikoen luzetarako profiltzat ezarritako lerroa da, besterik adierazi ezean, bidearen ardatzaren parean dagoena. Jadanik eginda dauden bideetan lehendik dagoen profila hartuko da sestratzat, sestraren bestelako definiziorik ez badago.
- b) Lurraren kota naturala: urbanizatzeko obra gauzatu aurretik lursaileko guneei duten altuera erlatiboa da.
- c) Berdinketa-kota: hirigintza-lanak gauzatzeko eta altuera neurtzeko erreferentziazko ± 0 kotatzat erabiltzen den altuera.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 85 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.5.1.14 artikulua. Eraikinaren erreferentzien definizioa

Plan honetako arauetan eraikuntzen erreferentzia hauek erabiltzen dira:

- Itxitura edo hesia: muga gainean kokaturiko hesia, lurzatia mugatzen duena.
- Fatxada-planoa: barneko edo kanpoko espazio okupagarri eraikia eta eraiki gabea luraren gainetik bereizten dituen plano bertikala edo plano bertikalen multzoa. Fatxada-planoan daude eraikinaren espazio okupagarri guztiak hartzen ditu, hala nola partzelaren barruan dauden hegala, galeriak, terrazak edo balkoiak. Fatxadaren planoek ez dituzte barne hartzen lerroakadurekiko edo hegalekiko baimendutako irtenguneak.
- Eraikuntza-lerroa: eraikinaren beheko solairuko fatxadaren eta lurzuaren arteko ebakidura. Aurrekoa edo albokoa izan daiteke, zein mugatara begira dagoen.
- Mehelina edo mehelin-fatxada: eraikuntza batek eraikuntza mugakidearekin batera duen horma; bi partzela mugakide banatzen ditu, eta albo muga batean kokatuta dago.
- Fatxadaren derrigorrezko eta gehieneko lerroa: oinaren arabera, eraikinak izan behar duen edo izan dezakeen lerroa.

1.5.1.15 artikulua. Mugekiko tartea

- Mugetarainoko tartea da fatxadako puntu bakoitzaren eta erreferentziako muga hurbilenaren arteko distantzia, mugarekin perpendikularra den lerro baten gainean neurtua.
- Gerta daiteke plangintzak, eraikuntzatik alboetako mugetaraino gorde beharreko tartea arautzean, neurri bat baino gehiago ematea. Halakoetan, partzelaren forma irregularragatik atzeko muga bereiztea zaila bada, mugetarako tartea neurtzean, hiru irizpide hauek hartuko dira kontuan: a) eraikinaren eta inguruko eraikinen artean, distantziarik handiena hartzea; b) funtzionalitate onena lortzea; eta c) partzelak ahalik eta toki irekirik handiena izatea.
- Sestra azpiko eraikuntzek ezingo dituzte okupatu, lurpean, mugetarainoko tarteari dagozkion espazioak.

1.5.1.16 artikulua. Eraikinen artean utzi beharreko tartea

Eraikinen artean utzi behar den tartea eraikinen fatxaden arteko distantzia da. Bete egin beharko da distantzia hori, eraikuntzak partzela berean edo aldamenekoetan daudenean; ez da bete beharko, ordea, bideek edo beste espazio publikoek bereizten badituzte.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 86 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.5.1.17 artikulua. Sakonera eraikigarria

Sakonera eraikigarriak adierazten du, zenbakiz eta ez irudien bidez, non kokatu behar den eraikin bateko barruko fatxada-lerroa. Horretarako, fatxadako puntu bakoitzaren eta lerrokaduraren arteko distantzia perpendikularra zehazten da.

1.5.1.18 artikulua. Eraikuntzaren mugimendu-arloa

Eraikuntzaren mugimendu-arloa edo fatxadako gehieneko lerroa P6 "Eraikuntzaren ezaugarriak" planoan grafikoki adierazitakoa da, eta horren barruan kokatu behar da eraikuntza.

4. atala. Eraikuntzak partzela okupatzeko parametro eta baldintzak**1.5.1.19 artikulua. Eraikinak okupatzen duen lurzorua**

- "Lurzorua okupazio" gisa ulertzen da eraikinen batek okupatu dezakeen partzelaren azalera eraikigarria, plano horizontal baten gainean fatxadako planoen babesak osatzen duen perimetroaren barrukoa, alegia.
- Okupatutako lurzorua honela adieraz daiteke:
 - Zuzeneko erregulazioa: gehieneko okupazio-koefizientea esleituta. Koefiziente hori okupa daitekeen azaleraren eta partzela eraikigarriak duen azaleraren arteko erlazioa da. Parametro hori eta kokapen baldintzen ondoriozko beste batzuk bateratuta okupazio txikiagoa ateratzen bada, azken hori aplikatuko da.
 - Zeharkako erregulazioa:
 - Modu osagarri edo eskusiboan, muga eta sakonera eraikigarrien banaketa parametroen bitartez.
 - Edo antolamendu planoetan grafikoki adierazita.

1.5.1.20 artikulua. Partzelaren azalera librea

Aurreko artikuluan ezarritako okupazio baldintzen aplikazioaren ondorioz partzelan eraiki gabe utzi behar den eremua da. Espazio libre pribatutzat joko da.

5. atala. Eraikinen formari buruzko parametro eta baldintzak**1.5.1.21 artikulua. Eraikuntzaren gehieneko eta gutxieneko neurriak**

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 87 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI


DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA


“Eraikuntzaren gehieneko neurriak” eta “eraikuntzaren gutxieneko neurriak” plangintzak ezartzen ditu, eta horien barruan sartu eta mugatu behar da lurretik gorako eraikuntza, fatxadako planoek definitzen dutena.

1.5.1.22 artikulua. Jatorriko kota


1. Jatorriko kota plangintzak zehazten du eta altuera neurtzen non hasi behar den adierazten du. Fatxada bakoitzak eta behin betiko lurzoruak bat egiten duten erdigunearen nibelazio-kota hartzen da jatorriko kotatzat. Izkina egiten duten eraikinetan, hura eratzten duten bi fatxaden garapen osoa da.



2. Eraikinaren beharrizanak edo lursailaren ezaugarriak direla kausa, altuera mailakatu egin behar bada, eraikina osatzen duten gorputzetako bakoitzean bere aldetik neurtuz egingo da altueraren neurketa.



3. Sestra edo altuera desberdineko kaleen kontrako fatxadak dituzten orubeetan, 30 metrotik gorako hondoak dituztenetan, eta eraikuntza-planoan altuerak erregulatzen ez direnean, kale bakoitzean dagokion altuera eta solairu kopurua hartuko dira, gehienez 15 metroko hondoraino kota edo gehieneko altuera duen kalearen kasuan, eta 15 metrora baxuenaren kasuan. Bi atzealde horiek lotzen dituen lerroak eraikinaren gehieneko altuera zehazten du lurzatiaren barruan.



USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07


Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 88 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Sestra edo altuera desberdineko kaleen kontrako fatxadak dituzten orubeetan, 30 metro baino gutxiagoko hondoak dituztenetan, eraikuntza-planoan altuerak erregulatzeko ez direnean, sestran edo altuera baxuenean 5 metroko gutxieneko hondo mantenduko da beti, eta, beharrezkoa bada, altuenari dagokion hondo murriztuko da.



1.5.1.23 artikulua. Eraikinaren altuera

- Jatorrizko kotatik erlaitzerainoko, hegalerainoko edo goiherainoko altuera unitate metrikoak erabiliz neurtzerakoan definizio hauek izango ditugu:
 - Erlaitzaren altuera: azken solairuko (atikoak eta teilatupeak alde batera utzita) sabaia osatzen duen forjatuaren azpialdeak eta eraikinaren fatxadako planoak bat egiten duten lerroaraino neurtzen dena.
 - Altuera guztira: eraikineko goihabe altueneraino neurtzen dena.
 - Hegalaren altuera: hegala muturreko puntu beheeraino neurtzen dena.
- Plangintzak parametro hori "gehieneko altuera", "gutxieneko altuera" edo "altuera finko" edo "derrigorrezko" gisa ezarri dezake.
- Altuera neurtzeko bi unitateak, solairu-kopurua eta unitate metrikoa, erabiltzen direnean, biak bete beharko dira.

1.5.1.24 artikulua. Eraikuntzaren profila edo solairu-kopurua

- Eraikinaren profila plangintzak eraikuntzarako baimentzen duen solairu-kopurua da. Honako hauek osatzen dute:
 - Sestra gaineko solairu-kopurua: eraikin batek urbanizatutako lurzorua sestraren gainetik dituen edo fatxada batera dituen solairu-kopurua da.
 - Sestra azpiko solairu-kopurua: sestra gaineko lehenengo solairu konputagarriaren azpian dauden edo baimentzen diren solairu-kopurua da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 89 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

2. Parametro hori "gehieneko solairu-kopuru", "gutxieneko solairu-kopuru" edo "solairu-kopuru finko" edo "derrigorrezko" gisa ezar daiteke.
3. Eraikinaren profil edo solairuen gehieneko kopurua honako zeinu hauen bitartez adieraziko da:
 - a) A/B
 - b) A(a)/B
 - c) A(a edo b)/B
 - d) A (a eta b)/B

Lehenengo zifrak, "A", barra makurra baino lehenagokoak, sestra gaineko solairu-kopurua adierazten du, zenbatu daitezkeen atikoak eta teilatupeak kontuan hartu gabe, eta ondorengoak, "B", barraren ostekoak, sestra azpikoak.

Aukeran zifren ostean jartzen diren zeinuek (a) edo (b) atiko edo teilatupe zenbakarri baten baimena adierazten dute.

Bi sinboloak agertzen direnean "edo" batek berezita, horrek esan nahiko du horiek egotea aukerakoa dela. Bi sinboloen artean ageri dena "eta" denean, ulertuko da atikoak baimena duela eta haren gainetik teilatupeak ere edukiko duela baimena.

1.5.1.25 artikulua. Eraikinen solairuak

1. Eraikin bateko solairua jarduera bat aurrera eramateko egokitu den azalera horizontal, erabilgarri eta estalia da.
2. Solairu-mota hauek daude:
 - a) Sotoa: sotoa da eraikitako azalaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiagok (% 50) sabaia eraikinaren beheko solairuko kotaren azpitik duen solairua.

Altuera librea ezin da berrehun eta berrogei zentimetro (240 cm) baino gutxiagokoa izan.
 - b) Erdisotoa: azalaren zati bat jatorriko kotaren azpitik geratzen den lurzoru planoan duena da, eta sabaiko planoan, aldiz, kota horren gainetik.

Erabileraren berezko ezaugarrien arabera izango da altuera librea, betiere, gutxienez, 240 zentimetrokoa izanik.

Sestra gaineko solairutzat hartuko dira, ondorio guztietarako, sabaiko forjako goiko aldeko edozein puntu espaloiko edo lurzoruko sestratik metro batera (1) edo gehiagora duten erdisotoak.
 - c) Beheko solairua: azalera eraikiaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago (% 50) zoruaren planoan jatorrizkoaren kota berean edo gorago duen solairua.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 90 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- d) Solairua edo goikoa: beheko solairuaren sabaiko forjatuaren gainetik dagoen solairua. Solairuaren oinaren altuera librearen balioa zehaztu egingo da erabileraren eta gune edo lurzoru-motaren baldintza zehatzen arabera.
- e) Atikoa: eraikinaren azkeneko solairua da, azalera eraikia gainerako solairuen azalera normala baino txikiagoa denean eta fatxadak eraikinaren gainerako fatxada-planoetatik bereizita daudenean.
- f) Teilatupea edo teilatuarte: txapitula erakoa izan ohi den eta azken solairuko forjatuaren gainaldearen eta estalki inklinatuaren eraikuntza elementuen azpialdearen artean dagoen solairua.

6. atala. Baldintza gehigarriak: eraikuntzaren hiri-estetika, kalitatea eta higieena

1.5.1.26 artikulua. Hirigintza-antolamenduaren udal-ordenantza osagarriak

1. Baldintza gehigarriek eta herriaren eta eraikuntzen estetikari buruzkoek, baita eraikuntzaren kalitatearen eta higieenaren diseinuarenek ere, hirigintza-antolamenduaren osagarri diren udal-ordenantzen bitartez garatuak izan beharko dute.
2. Atal honetako hurrengo artikuluetako zehaztapenak iragankorrak dira, behin betiko onetsiak izan arte.

1.5.1.27 artikulua. Solairuen altuera

Solairuaren altueratzat hartuko da solairu bateko zoladura bukatuaren gainaldetik solairu bereko sabaiaren forjatuaren azpialderaino (edo sabai aizuneraino) dagoen distantzia bertikala.

1.5.1.28 artikulua. Fatxadetako irtengune eta sarguneak

1. Irtenguneak edo hegala dira eraikuntza-lerrotik ateratzen diren elementuak.
2. Hona hemen irtengune-motak eta haien definizioak:
 - a) Balkoia: gelako zoladuratik ateratzen den barea, zeina, fatxadaren lerrokadurari dagokionez, forjatu edo plataforma baten bidez kanpoalderantz luzatzen den. Gehienez ere ehun zentimetro (100) zabal da. Balkoi kontzeptuak ez du loturarik balkoiaren eraikuntza soluzioarekin eta babes elementuen diseinuarekin. Balkoia estalia edo estali gabea izan daiteke.
 - b) Terraza itxi gabeko sargunea da. Estalia edo estali gabea izan daiteke.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 91 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- c) Begiratokia: bao bat, berrehun eta berrogeita hamar (250) zentimetro baino luzera txikiagoa duena, begiratokiaren zerbitzua jasotzen duen gelako zoladuratik aterata kristaldun gorputz baten bidez kanpoalderantz luzatzen dena, eta fatxadatik ehun (100) zentimetro baino gehiago ateratzen ez den plataforma duena.
- d) Galeria 250 zentimetro luze baino gehiagoko begiratokia da.
- e) Hegal itxiak: begiratokiak eta galeriak ez diren fatxadaren irtenguneak dira, itxituraren materialak edozein direlarik ere.
Gehieneko neurriak galerietarako ezarritakoak izango dira.
3. Aurreko paragrafoan adierazitako neurriak 1.5.1.12 "Bideen lerrokadura" artikuluan zehaztutako lerrokadurak oinarri hartuta baimentzen diren irtenguneetan soilik aplika daitezke. Mugetatik bananduta dagoen eraikuntzan, neurriak libreak izango dira; dena den, 1.5.1.15 ("Mugekiko tartea") eta 1.5.1.16 ("Eraikinen artean utzi beharreko tartea") artikuluetan ezarritako bereizketak bete behar dira.
4. Gainera, aipaturiko lerrokaduratik ateratzen diren baimendutako irtenguneek hurrengo baldintzak beteko dituzte:
- a) Hegalek oinplanoan duten proiektzioaren luzeraren baturak ez da izango fatxada bakoitzaren luzeraren erdia baino handiagoa.
- b) Espaloiaren sestraren gainean gutxieneko altuera librea hirurehun eta berrogeita hamar zentimetrokoa (350 cm) izango da.
- c) Irtenguneen eta mugen arteko distantziak ezin du izan hegalarentzat ezarritako gutxieneko distantzia baino txikiagoa eta, betiere, bi metro baino gehiagokoa izango da.
5. Sartuta dauden terraza estalien sakonera ez da horien altuera nahiz zabalera baino handiagoa izango. Sakonera fatxada-lerrotik neurtu behar da.
6. Azpiguneetako ordenantzek eta hirigintza-eremuetako arau bereziek beste parametro batzuk ezarri ahalko dituzte.
7. Etxebizitzen bizigarritasunari mesede egiteko, nagusiki bizitegi-erabilerakoak diren eraikinetan, hirigintza-plangintzan ezarritako profil eraiki edo eraikigarriek eta bolumenek kanpoko espazio irekiak hartuko dituzte barne, hala nola balkoiak, logiak, terrazak edo esekilekuak; hortaz, ez dira aintzat hartuko dagokien azalera erabilgarri edo eraikiaren eraikigarritasuna zenbatzean, gehienez 10 m²-ra arte etxebizitza edo ostatu bakoitzeko.

1.5.1.29 artikulua. Erlaitz eta hegalen gehieneko irtengunea

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 92 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Erlaitzen eta teilatu-hegalen gehieneko irtengunea, bide lerrokaduratik eta, hala badagokio, fatxadak etxadiko patioan duen lerrotik neurtuta, ez da izango ehun (100) zentimetro baino handiagoa, azpiguine bakoitzaren ordenantzan edo hirigintza-eremuen arau berezietan gehiago mugatu ezean.

1.5.1.30 artikulua. Altueratik gorako eraikuntzak

1. Erlaitz eta/edo hegala gehieneko altueratik gora honako hauek eraiki ahal izango dira oro har:
 - a) Estalkiaren isurkiak. Ezingo dira azken solairuko forjatuaren goiko ertzak fatxadekin eta patioekin egiten duen planotik irten eta gehienez % 40ko malda izango dute. Horietan argi-zuloak instalatu ahalko dira, forjatuaren barruan, eta estradosetik ezingo dira irten.
 - b) Eskailera-kaxen eta igogailu-etxolen erremateak. Horiek ezingo dute gainditu hirurehun eta berrogeita hamar (350) zentimetroko altuera osoa erlaitzaren altueraren gainetik.
 - c) Txapitulak, estalkipea argitzeko, betiere baldintzak hauek betetzen badituzte:
 - c.1 Luzera osoak ezingo du teilatu isurkiaren luzeraren ehuneko 15 gainditu, teilatu-hegalaren paraleloan neurtuta.
 - c.2 Bakoitzaren luzera ez da 2,5 metrotik gorakoa izango, eta gehieneko altuera 2,30 metrokoa izango da bukatutako solairuaren forjatutik neurtuta.
 - c.3 Fatxadaren lerroarekiko 1 metroa, gutxienez, atzeraemango dira.
 - c.4 Estalkiek ehuneko 25 eta 40 bitarteko malda izango dute.
 - d) Aireztatzeko edo kea husteko tximiniak, Eraikigintzaren Kode Teknikoak eta aplikatu beharreko sektoreko araudiak ongi funtziona dezaten zehaztutako altuerekin.
 - e) Eguzki-energia hartzeko panelak eta beste instalazio txiki batzuk, hala nola berokuntzarako hedapen-andelak, bero-ponpak, eta abar, eraikinaren oreka estetikoak desitxuratu gabe nahiz hiri-giroa eraldatu gabe eraikiak; hortaz, teilatuaren inguratzailari gehitu beharko zaizkio, eta ezingo dira inoiz 15 cm baino gehiago atera eraikinaren estalkiaren oinetik.
 - f) Telekomunikazio-azpiegituren instalazioak zerbitzua modu egokian eman ahal izateko beharrezkoa den altuerekin, indarreko araudiak ezarritakoarekin bat.
 - g) Karel apaingarriak, gehienez 1 metroko altuerakoak.
2. 1.a) puntuan ezarritako baldintzaren arabera debekatuta daude mantsarda itxurako estalkiak, hau da, profil hautsia dutenak eta fatxadaren alboan malda handiagoa eta goihabearen alboan leunagoa dutenak.
3. Hala ere, zehaztutako gehieneko altuera osoaren gainean ezin izango da inolako eraikuntzari baimendu, aireztapenerako edo keak ateratzeko, berokuntzaren eta haize girotuaren tximiniak salbu, ondo funtziona dezaten Eraikigintzaren Kode

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 93 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Teknikoak ezarritako altuerekin eta, halakorik ez balego, eraikuntza-jardunbide egokien arabera.

4. Estalkiek ehuneko 0 eta 40 arteko malda izango dute, eraikuntza-ordenantzan eta azpigueneen erabileran edo hirigintza-jarduketarako eremuen araudian malda ezartzen denean salbu. Kasu horretan, estalkien maldak ordenantza eta araudi horietan adierazitakoari egokitu zaizkio.

1.5.1.31 artikulua. Patioak

1. Etxadiko patioa.

- Etxadiko patioa da etxadi itxi baten barruan dagoen espazioa, lehenengo solairutik, gutxienez, eraikita ez dagoena.
- Neurriak plan honetan finkatu dira, P-6 "Eraikuntzaren baldintzak" izeneko planoan, barruko fatxaden lerroen definizioaren bitartez. Bestela, eraiki daitekeen gehieneko sakonera, lurzoruaren okupazioa eta barruko fatxadaren eta atzeko mugaren arteko gutxienezko tarte adierazita egongo dira.
- Garapeneko planetan grafikoki definituta egongo da, P-6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan.
- Nolanahi ere, aipatutako baldintzak bete arren 100 m²-tik beherako azalera duten patioak barruko patio edo argi patio izango dira, baita barruan 10 m-ko diametroko zirkulua hartu ezin dutenak ere.

2. Barruko patioa edo argi-patioa.

- Barruko edo argi patioa eraikinaren barruan zabaltzen da bizigilei argiak eman, argiztatu eta aireztatzeko.
- Honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Neurriak Euskal Autonomia Erkidegoko gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak diseinatze arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 DEKRETUAN ezarritakoetara egokituko dira.
 - Sarbidea izan beharko dute ataritik, eskailera-kaxatik edo eraikuntzako beste espazio komun batetik, hango derrigorrezko garbiketa eta zaintza ahalbidetzeko.
 - Hirigintza-arau hauek ezarritako paramentuen arteko gutxienezko argiak ezingo dira irtenguneekin murriztu, lehendik dauden eraikinetan igogailuak ezartzen direnean izan ezik, baldin eta horien instalaziorako beste kokalekurik ez badago. Hori guztia esparru juridiko pribatuan erabili daitezkeen hirugarren pertsonen eskubide eta zortasun zibilei kalterik egin gabe.
 - Patioko zoladura hara gelak irekitzen dituen bizitokirik baxuenaren lurzoruaren mailan egongo da, gehienez

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 94 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b.5 Patioak sabai-leiho edo argi-zulo zeharrargien bidez estali ahal izango dira, baldin eta elementu horiek inolako itxiturarik gabeko espazio perimetrala uzten badute patioako hormen eta babes elementuaren artean; horrela, gutxieneko aireztapen azalera ahalbidetuko da, patioak duenaren % 40 baino handiagoa. Kasu horretan, beharrezko neurri teknikoak hartuko dira, isolamendu akustikoari buruzko indarreko arauak betetzeko.
- b.6 Paramentuen arteko distantziak osorik mantendu beharko dira patioaren altuera osoan; gehienez jota, 0,20 m-ko tantakina ahalbidetuko da estalkian.
- b.7 Mugei atxikitako patioek aurreko baldintzak bete beharko dituzte; horretarako, muga aurreko paramentutzat hartuko da, eraiki barik egonda ere.
3. Fatxadara irekitako patioa.
- a) Fatxadara irekitako patio edo kanpoko patio deritzo eraikinak fatxada-lerroekiko daukan atzeraemangunearen ondorioz eratzen denari, atzeraemangunea 1,5 m baino gehiagokoa denean.
- b) Arau bereziak, edo bestela, azpiguneetako ordenantza orokorrek baimentzen baldin badute, ondorengo gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:
- b.1 Etxadiko patioa edo bideko lerrokaduraren gainean irekita dagoen patioa. Ezin du izan eraginik beheko solairuan; ezin da aldatu beheko solairuaren lerrokadura ofiziala. Fatxada irekiaren aurpegia edo aurrealdea 4 m-koa izan behar da gutxienez. Sakonera ezin da izan zabaleraren erdia baino gehiago. Argi-patio edo barruko patioetako argientzat eta ikuspegi zuzenentzat ezarritako gutxieneko baldintzak bete behar ditu. Lerrokaduratik atzeraemandako fatxadaren luzerak ez du fatxadaren luzera osoaren % 20 gaindituko. Partzelako alboko mugatik edo mehelinetik 4 m-ra egon behar da gutxienez.
- b.2 Partzela independentean dagoen patioa. Erabilera publikoko espazio bati lotutako espazio libre batera eman behar du. Lau solairu arteko eraikinetan, espazio 10 m-ko diametrodun zirkulua hartzeko modukoak izan behar dira; solairu gehiagoko eraikinetan, 16 m-ko diametrodun zirkulua hartzeko modukoak. Fatxada irekiaren aurpegia edo aurrealdea 6 m-koa izan behar da gutxienez. Sakonera ezin da izan zabaleraren erdia baino gehiago.
4. Patio komuna.
- a) Patio mankomunatua da hainbat partzelarentzako barruko patio edo argi patio gisa eratzen dena, partzela horiek mankomunitatea egiten dutenean patioaren gutxieneko neurrietara iristeko.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 95 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- Erkidegoa sortzeko, orube edo higiezinaren gaineko zortasun-eskubide erreala eratu beharko da, Jabetzaren Erregistroan inskribatutako eskritura publikoaren bitartez. Zortasun hori ezingo da Udalaren baimenik gabe ezereztu, patioaren gutxieneko neurrietara iristeko osagarri horren beharra duen higiezinaren batek dirauen bitartean.
- Patio komunak beheko solairuan burdin hesi edo langa edo fabrikako elementu edo elementu opakuez bereizi ahalko dira, gehienez 1 m-ko altueraraino.
- Artikulu honetako 2.b puntuaren barruko patioetarako ezarritako baldintza guztiak beteko ditu, b.7 baldintza izan ezik.

1.5.1.32 artikulua. Hiri-estetika zaintzea

- Udalari dagokio hiriaren irudia eta natur-paisaia defendatzea eta bi horien balorazioa eta hobekuntza sustatzea, bai eraikinei dagokienez (eraikinak taldeka edo banaka hartuz), eta baita eraiki gabeko eremuei dagokienez ere. Beraz, hiriaren irudian edo natur-paisaian eraginen bat izan dezaketen jarduerak Udalaren irizpideen arabera izan beharko dira.
- Eraikuntza berriak dagoeneko badaudenetara eta horien ingurura egokiro egokitzen direla bermatzeko, hiri-paisaian izandako eraginaren analisia egiteko eskatu ahal izango da herria ikusten den tokietatik.

1.5.1.33 artikulua. Hesiak

Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, partzelaren eraiki gabeko gunea espazio publiko bat ukitzen geratzen denean, mugaren gainean gehienez berrogeita hamar (50) zentimetro arteko altuerako elementu itsuez eginiko itxitura jarri ahalko da, eta, hala badagokio, inguruko estetikarekin bat datozen babes gardenen, landare-pantailen edo antzeko soluzioen bidez osatu ahalko dira, gehienez 2 metroko altuerara arte. Baldintza horiek aplikatuko dira, baldin eta dagokion hirigintza-jarduketarako eremuaren arau partikularrean beste baldintza batzuk ezartzen ez badira.

Babes bat gardentzat emango da, azalera bertikalean zati trinkoa babesaren azalera osoaren ehuneko 30era heltzen ez bada. Ez da inoiz onartuko babes gardenak kanpotik zein barrutik honako hauekin estaltzea: material opaku edo zeharrargiekin, kanaberazkoekin, plastikozkoekin edo landare bizikoak ez diren beste edozein materialekin.

Itxituren errematerako ez da inolaz ere baimenduko pertsoneri edo animaliei min eman diezaieketen elementurik edo hiri-irudia desitxuratzen dutenik.

Aurreko paragrafoetan aipatutako baldintzetatik salbuetsita daude, euren erabilera dela eta, segurtasun neurri bereziak behar dituzten lurzatiak. Horrelakoetan itxitura eraikinaren beharrei egokituko zaie.

Aurretik esandakoa alde batera utzita eta segurtasun neurri gisa, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian dauden lursail eraiki gabeak hesiz inguratu beharko dira, bai 1. puntuaren adierazten den bezala, bai lerrokatadura ofizialean kokatutako itxituren bitartez, altueran bi

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 96 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

(2) metrotik hiru (3) metrora izan ditzakete, eta mozten edo ziztutzen ez duten eta pertsonak kaltetu ez ditzaketen materialekin eginda egon beharko dira, eta materialek itxituraren egonkortasuna eta egoera onean mantentzea bermatu beharko dute. Edozein kasutan, itxituren kanpoko akaberak egokia izan behar du partzelaren tokirako, eta Udalak baimendu beharko du.

Ur-ibilguekin mugakideak diren partzelen hesiek libre utzi beharko dute zortasun-eremua (5 m).

1.5.1.34 artikulua. Zuhaitzak babestea

1. Espazio publikoan dauden zuhaitz guztiak, berdegune edo aisialdi eta olgetarako espazio gisa sailkatu ez diren arren, babestu eta zaindu egin beharko dira.
2. Bide publikoetan galtzen diren zuhaitz guztiak ahalik eta lasterren ordeztu behar dira. Herriko parke eta berdeguneen ardura duen udal-erakundearen jarraibideen arabera ordeztuko dira zuhaitzak; ordezteko derrigorrezkoa izango da, eta galeraren erantzulearen kargura egingo da. Gainera, bidezkoa denean, zehapenak ezarri ahaliko dira.
3. Bide publikoetako mugen ondoan nahitaez libre utzi behar diren zerrendetan landare espezieak landatu beharko dira, zuhaitzak lehenetsuz, eraikuntzaren erabilera edozein izanik ere, salbu eta atzeraemangune osoa ibilgailuen zirkulaziorako eta eraikineko sarbideetarako espazioen trazadurak hartzen duenean.
4. Obraren batek mantendu beharreko zuhaitzen bati eragin diezaiokeenean, dela publikoa dela pribatu babestua, dagokion lizentzia eskaeran hala adieraziko da, eta haren egoera azalduko da ematen diren plano topografikoetan. Horrelakoetan, eta obrek iraun bitartean, hurrengo eskatu eta ziurtatu behar da: enborrei gutxienez ehun eta laurogei (180) zentimetrotan estaldura tinko egokia ematea, kalte edo narriadurarik izan ez dezaten.

1.5.1.35 artikulua. Eraikinaren diseinu-, kalitate- eta higiene-baldintzak

1. Orokorrean bizitegi-eraikin guztiei aplikatu beharko zaizkie etxebizitza-arloko sektoreko legeriak exijitutako diseinu-, kalitate- eta higiene-baldintzak, zehazki, EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuak exijitutakoak.
2. Gainera, hirigintza-arau horiek kalitateari eta higieneari buruzko gainerako baldintza gehigarrien adierazpena eraikitzeke obra-lizentzia eskatzen den unean indarrean dagoen araudia betetzearen mende jartzen dute.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 97 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍA



HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- Eraikin katalogatuei dagokienez, ondoren “3. Liburua. Historia- eta arkitektura-ondarearen eta ondare arkeologikoaren elementuen babeserako katalogoa” dokumentuan adierazitakoa bete beharko da.
- HAPO honetatik abiatuta garatzen diren plangintza-tresna berriak diseinatu eta izapidetzean aintzat hartuko da EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua, eta memorian justifikatuko da diseinuak ahalbidetzen duela Dekretuaren I. eranskinean jasotako eskakizunak betetzea. Era berean, eskakizun hori hirigintza antolatzekeo aipatutako tresnen eraikuntza-araudian jasoko da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 98 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.5.2 KAPITULUA. HIRI LURZORU ETA LURZORU URBANIZAGARRIKO AZPIGUNEETAN APLIKA DAITEZKEEN ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ORDENANTZA OROKORRAK

1. atala. Bizitegiatarako azpigune pribatuatarako baldintza orokorrak

1.5.2.1 artikulua. Eraikuntzari dagozkion baldintza komun orokorrak

1. Partzelazioari buruzkoak.

a) Partzelazioa honako prozedura hauetako baten bitartez zehaztuko da:

a.1 Hiri-lurzoru finkatuan eta finkatugabeen, haztatutako eraikigarritasuna areagotzeagatik, berretsi egiten da, dagokion hirigintza-eremuaren arau partikularrean bestela adierazi ezean, plan hau behin betiko onartzen den unean dagoen partzelazioa errespetatuko dela.

Ondorio horietarako, aldez aurretik dauden partzelekin berdindu egiten dira lursailen zatiak, proposatutako antolamenduak hala xedatzen duelako jabari eta erabilera publikokoak izango diren lurak kanpo utzi ostean.

a.2 Plan honek xehetasunez antolatutako gainerako esparruak, grafikoki edo kasuan kasuko hirigintza-eremuen bitartez edo, halakorik ez balego, kapitulu honetan azpigune bakoitzerako jasotako ordenantzaren bitartez

a.3 Garapen plan baten bidez antolatu behar diren hirigintza-eremuetan, modu grafikoan edo haien ordenantza idatzien bidez. Nolanahi ere, a.5 eta a.6 azpiguneetan, derrigorrezkoa izango da partzelazio bat aurkeztea, eta loteslea izango da hirigintza-eremuetan arau bereziak edo, hura kendu bada, plan hark ez badu jaso bestelako zehaztapenik.

b) Behin partzelazioa definituta, aldaketak honela egin ahalko zaizkio:

a) Partzelazio-proiektu baten bitartez. Proiektu horrek hirigintza-eremuko arau berezian finkatzen diren betekizunak bete behar ditu edo, bestela, azpigune bakoitzeko ordenantzarenak, edo

b) Udalak egokitzen joko balu, partzeletan ageri diren inguruabar fisikoak ikusita, barruko birpartzelazio proiektu baten bitartez edota xehetasun-azterketa baten bitartez.

Hala eta guztiz ere, aldaketak partzela berriak egokitzea badakar, hain zuzen ere azpigune bakoitzerako ordenantza orokorrean finkatu diren eraikigarritasunak ez diren beste batzuk edukiko dituztenak, xehetasun-azterketa bat idaztea beharrezkoa izango da. Kasu horretan, espedienteak berriazko eraikigarritasuna esleituko dio bakoitzari. Horrela, bertatik irteten den kopuru osoa jatorrian aurkeztutako partzelen multzoan baimendu den berdina izango da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 99 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

2. Eraikigarritasunaren esleipenari buruzkoak.

- Kalifikazio xehatuak eraikigarritasuna esleituko dio azpigune bakoitzari eta, hala badagokio, partzela eraikigarri bakoitzari, 1.5.1.4 artikuluan adierazitako prozeduretako bat erabiliz, mistoak barne.
- Plangintzak finkatu ez dituen eraikinetan, hirigintza-jarduketarako eremuaren arau partikularrean bakoitzerako berariaz ezarritakoa beteko da, edo, halakorik ez balego, 1.4.7.2, 1.4.7.3 eta 1.4.7.4 artikuluetan xedatutakoa.
- Partzelazioa aldatzen den kasuetan, hori arautzen duen espedienteak dagokien eraikigarritasuna esleituko die partzela berriei, hasierako eta amaierakoak berdinak izan daitezten.

3. Etxebizitza-kopuruari buruzkoak.

Etxebizitza-kopurua honako prozedura hauetako baten bitartez ezarriko da:

- a.1, a.2, a.3 eta a.4 azpiguneetan urbanizazioak finkatutako hiri-lurzoruan, parametro hori askea izan ahalko da, edo hirigintza-eremuaren arauak berariaz edo zeharka arautua, etxebizitza bakoitzeko eraikitako metro karratuen estandar baten bidez.
- a.2 azpiguneetan nahiz a.5 eta a.6 azpiguneetako hirigintzak finkatutako hiri-lurzoruan eta eraikigarritasun haztatuaren hazkundeagatik finkatu gabekoetan etxebizitza bakoitzeko gutxieneko partzelaren azalera estandarra ezarri arautuko da.
- Antolamendu xehatuak finkatutako eraikinetan, hirigintza-eremuaren arau partikularrean berariaz adierazitakoa beteko da.
- Urbanizazioak finkatu ez duen hiri-lurzoruan eta urbanizagarri sektoretan, etxebizitza-kopurua berariaz ezarrita egongo da hirigintza-eremuaren arau partikularrean.

4. Eraikinaren itxura arautzeari buruzkoak.

- Eraikinaren itxura honela erregulatuko da:
 - modu grafikoan, P-6 planoan, edo
 - dagokion hirigintza-eremuaren arau partikularren bidez, edo, halakorik ez balego, kapitulu honetan jasotako azpigune bakoitzaren ordenantzen bidez. Prozedura mistoa ere erabili ahal izango da.
- Gehieneko altuera:
 - Erlaitzaren altuera aurreikusitako solairu-kopuruaren arabera ezarriko da, honako taula honi jarraikiz:

I	3.50 m
II	6.50 m
III	9.50 m
IV	12.50 m

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 100 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Azpiguneak arautzen dituzten ordenantzetan, eraikinaren gehieneko altuera eraikuntza-profilak zehazten duenean (solairu-kopurua), eraikinaren gehieneko altuera atal honetan aurreikusitakoa izango da.

- c) Teilatupea baimentzen denean, a) atalean adierazitako altuerari 0,75 m gehituko zaizkio, teilatupeak fatxadan izango duen islari dagokiona.
- d) Eraikinaren altuera osoa erlaitzak edo hegala zehazten du zuzenean, baita estalkirako baimendutako gehieneko malda ere.
- e) Eraikina edo partzela espazio publikoen lerrokadurari atxikita dagoenean, sestra baxueneko espazioa neurtuko da.
- f) Eraikina mugetatik aldentuta dagoenean, bidearen lerrokaduraren aurrealdean dagoen lerroaren lurraekin duen elkargunean neurtuko da. Partzelak espazio publiko bati baino gehiagori ematen badio aurrea, sestra baxuena duen espazio publikoari aurrea ematen dion eraikinaren lerroa arte neurtuko da.

5. Etxebizitzaren kalitateari eta higieneri buruzkoak.

Dagozkien udal-ordenantzak egiten ez diren bitartean, etxebizitza guztiek Euskal Autonomia Erkidegoan babes sozialeko etxebizitzetarako ezarritako diseinu- eta kalitate-baldintzak bete beharko dituzte; gainera, honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dituzte, eraikinean jarrita dauden moduaren arabera:

- a) teilatupean osorik edo zati batean garatzen diren etxebizitzetan:
 - a.1) Azalera erabilgarri gisa zenbatuko dira logelei eta gutxienez 2,40 m-ko altuera librean duten atalei dagozkiena.
 - a.2) Logelen gutxieneko programa betetzen duten logelek, egongelak, jangelak eta sukaldeak leihoak izan beharko dituzte eraikinaren paramentu bertikaletan, babes sozialeko etxebizitzaren ordenantzek exijitutako neurrietakoak.
- b) Eraikin bateko beheko solairuan osorik edo zati batean garatzen diren etxebizitzetan:
 - b.1) Logelen gutxieneko programa betetzen duten logelen kasuan, beheko solairuan badaude, ez dute espazio publikora ematen duen leihorik izan behar. Hala, gutxieneko pribatutasuna bermatuko da.
 - b.2) Fatxada lerrokadura ofizialarekiko atzeraematen bada, landarezko akabera duen espazio librean aurreikusiko da; b.1) atalean ezarritako debekua betetzeko, exijituko da atzeraemangunea gutxienez 100 cm-koa izatea, eta logelaren beheko solairuaren kota 70 cm-ra egotea, leihoaren zabalera osoan espazio publikoaren sestraren gainetik mantenduz.
 - b.3) a.1) atalean exijitutako eskakizuna ez da aplikatu beharko logelaren beheko solairuaren kota leihoaren zabalera osoan espazio publikoaren sestraren gainetik 100 cm-ra badago.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 101 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

6. Portxeak eraikitzeari dagokionez.
- Bizitegi-eraikinen partzela librean, baimenduta dago partzelaren espazio libre pribatuarekin mugakideak diren kanpoko paramentuei atxikitako portxeak eraikitzea, nahiz eta eraikuntza horrek P.6 planoan ezarritako gehieneko lerroakadurak edo jarduketa eremuaren arauan ezarritako edo azpigunearen ordenantzan ezarritako tarte eta atzeraemanguneak gainditzen dituen, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte.
- Eraikuntzak ez du 3 m baino gehiagotan gaindituko planoan zehaztutako lerroakadura.
 - Portxea eraiki ostean geratzen den partzela libreak gutxienez 2 m-ko zabalera izango du portxearen aurrealde osoan eta portxearen kanpoko lerroarekiko perpendikularrean neurtuta.
 - Portxea irekita egon beharko da alde guztietan, eraikin nagusiari atxikitako fatxadan salbu.
 - Portxearen gehieneko altuera eraikinaren beheko solairuarena izango da.
 - Eraikuntza eraikinaren estetika orokorrari egokitu beharko zaio.
 - Portxea estaltzeko materiala eraikin nagusiaren estalduraren antzekoa izango da.
7. Txabolak eta partzelen beste elementu batzuk.
- Partzela librean, trasteleku gisa erabiltzeko txabola bakarra jarri ahalko da etxeko gauzak biltegitratzeko, eta eraikigarritasuna erabiltzea eta partzela okupatzea eragin gabe, baldin eta baldintza hauek betetzen baditu:
- Gehieneko azalera: 9 m²
 - Gehieneko altuera: 2,50 m
 - Eraikina prefabrikatua edo desmunta daitekeen materialarekin eraikia izango da, eta hormek egurraren antzeko akabera izango dute; estalkia egurrezkoa edo fibrozementu edo metalezko plaka batezkoa izango da, sienaren eta gorriaren gamaren barruko kolorekoa.
 - Txabola dagoen partzelaren mugetatik gutxienez 2 m-ra egon beharko da.
 - Txabolak argi-puntu bakarra izateko hargune elektrikoa bakarrik izan ahalko du. Ezingo ditu honako hargune edo instalazio hauek izan: ura, saneamendua, telefonia, etab.
 - Txabolek dauden gunean eraikitzeko ezarritako atzerapenak beteko dituzte.
- Gainera, partzela librean barbakoak, gehienez 1,20 x 1,00 m-ko neurriak eta 1,00 m-ko altuera duen txakur-etxola bakarra eta lorategiaren berezko gainerako elementuak jarri ahal izango dira, betiere kokatuta dauden eremuko eraikuntzarako ezarritako atzerapenak betetzen badituzte eta, barbakoan eta egur-labeen kasuan, gainera, keak inguruko eraikinetan eraginik ez izatea bermatzen bada.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 102 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.5.2.2 artikulua. Arau orokor hauetako erabileren ezarpenari buruzko baldintza komun orokorrak

1. Bizitegi-azpiguneak artikuluko honetan espresuki ezarritako berezko etxebizitza erabilerarako izango dira: 1.3.2.5 "Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza Plangintza Normalizatze Sistema osatzen duten eta plan honetan dauden gune-moten definizioa". Artikulu horretan zona bakoitzaren berezko azpigunea eta erabilera daude zehaztuta.
2. Horrez gain, hirigintza-eremu bakoitzeko arau berezian edo, bestela, azpiguneei buruzko ordenantza orokorrei buruzko hurrengo artikuluetan ezarritako gainerako erabilera baimenduak ezarri ahalko dira. Ezarpen hori beti egongo da horien eta eraikineko etxebizitzaren erabilera nagusien arteko bateragarritasunaren menpe, eta ondorioz, kontrako erreferentzia argirik egotekotan, Udalak ezarpena ukatu ahalko du.

Edonola ere, Udalak hirigintzako udal-ordenantza baten bitartez azpiguneetako ordenantzetan jasotako erabileren bateragarritasunak arautu ahalko ditu.
3. Baimendutako erabileren barruan sartzen dira, aipatzen ez badira ere, bakoitzaren erabilera asimilatuak, osagarriak eta zerbitzukoak.
4. Nahitaezko erabilera osagarria aparkalekuena da, 7. ataleko ("Komunikazio- eta garraio-erabileraren edukia") 1.3.1.15 artikulukoaren ("Definizioa eta motak") 5. puntuan ezartzen den gutxieneko kopuruan.
5. Erabilera publikoko zortasunak. Plangintzak nahitaezko erabilera publikoko zerbitzuak (ibilgailuen zirkulazioa edo oinezkoena eta zerbitzuen azpiegiturak) ezarri ahalko dizkie bizitegitarako azpigune eta partzelei eta haietan dauden eraikuntzei, baita aldameneko azpiguneetako erabilera baimenduen osagarri direnak ere, eta, beharrezkoa bada, zortasun-eskubideak eratuko dira, indarrean dagoen legedian ezarritako hirigintzako kudeaketa-tresnen bitartez.

1.5.2.3 artikulua. Garai bateko hiri-kokaguneen a.1 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra**1. Aplikazio-eremua**

- a) Ordenantza hau modu subsidiarioan aplikatuko da AL.01 esparruko hirigintza-eremuaren a.1 azpiguneetan; bertan, Dulantziko hirigune historikoaren alde monumentu-multzoaren kategoriarekin kultura-ondasun kalifikatuaren deklarazioak, 126/2002 Dekretuaren bidez onetsiak, agintzen du. Horretaz gain, ordenantza AL.02 esparruko hirigintza-eremuetan ere aplikatuko da, non lehentasuna duen dagokion hirigintza-eremu partikularraren arau partikularrak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 103 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Bestalde, garapen-plan batek antolatu behar dituen hirigintza-jarduketarako eremuetan ere aplikatu beharko da, baldin eta plan horrek beharrezko zehaztapenak ematen ez baditu.
- c) Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bitartez arautuko dira.

2. Eraikigarritasuna

- a) Azpigune horretan, eraikigarritasuna zeharka arautuko da P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan irudikatutako eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren bidez eta baimendutako gehieneko solairu-kopuruaren bidez
- b) Planoak hondoko fatxadaren lerroa ezartzen ez badu, 8. puntuan adierazitako parametroa beteko da.

3. Gehieneko etxebizitza-kopurua

- a) Azpigune horretan, arau partikularrean berariaz adierazita ez badago, paramentua librea izango da.
- b) Hala ere, oin berriko obrak edo edozein aldaketa egin nahi badira eta etxebizitza-kopurua areagotzea badakar, partzelaren barruan (eraikinaren barruan edo kanpoan) gehitutako etxebizitza berrien plaza-kopuru berbera aurreikusi beharko da.

4. Gutxieneko partzela eraikigarria

Tresna hau behin betiko onesten den unean aldeztatik dauden erregistro-partzelak finkatuta geratuko dira.

5. Gutxieneko eta gehieneko partzelak partzelazio-ondorioetarako

Tresna hau behin betiko onetsi ondoren sortutako partzela berri guztiek gutxienez 72 m²-ko eta gehienez 144 m²-ko azalera izango dute.

6. Mugen gehieneko eta gutxieneko neurriak

- a) Tresna hau behin betiko onetsi ondoren sortutako partzela berri guztiek 12 m-ko "aurreko mugaren gehieneko neurria" eta 6 m-ko "aurreko mugaren gutxieneko neurria" izango dute.
- b) Gainerako muga neurriak libreak izango dira.

7. Mugekiko tartekak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 104 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- Etxebizitza atxikia izango da; hortaz, eraikinak modu grafikoan mugatuta daudenez, ez dago parametro hori.
- Hala ere, alboko eraikinetako batean argien eta bisten zortasuna badago, Kode Zibilak ezarritakoa beteko da.
- Gauza bera gertatuko da planoan edo 8. puntuan adierazitako gehieneko sakonera eraikigarriak benetako neurriak gainditzen baditu.

8. Sakonera eraikigarria

P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoak atzeko fatxadaren lerroa zehaztu ez badu, gehienez 12 m-ko sakonera eraikigarria ezarriko da.

9. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

Ordenantza horretan, okupazioaren parametroa P-5 planoan arautzen da modu grafikoan.

10. Eraikinaren profila edo gehieneko solairu-kopurua

- Eraikinaren profila P.6 planoaren bidez ezartzen da; bertan eraikin bakoitzerako baimendutako gehieneko solairu-kopurua zehazten da.
- Profilararen adierazpenean barraren atzean agertzen den marratxoak [/-] adierazten du sestra azpiko solairu-kopurua librea dela.

11. Fatxadetako irtengune eta sarguneak

- Espazio publikoaren lerrokaduraren gaineko irtengune eta sarguneak 1.5.1.28 artikuluan ezarritako orokorrak dira, honako salbuespen hauekin:
 - 4 m baino gutxiagoko zabalera duten kaleetan debekatuta dago fatxadetan edozein irtengune egotea.
 - Gainerako balkoi, begiratoki eta galeriak aurrean duten espazio publikoaren zabalaren % 10 atera ahalko dira, gehienez 1 metroz. Hegal-elementu itxiak gehienez 40 cm atera ahalko dira fatxadaren profiletik.Bi kasuetan ezin izango dira beheko solairuan kokatu.
- Atzeko fatxadan, irtenguneak edo hegalak baimenduko dira, baldin eta horien eta mugaren arteko tartea 5 m baino gehiagokoa bada. Kasu horretan, aurreko paragrafoko arau berberak beteko dira.

12. Erlaitzak eta teilatu-hegalak

Lerrokaduraren gaineko erlaitz eta teilatu-hegalak gehienez eraikinaren aurrealdeko espazio publikoaren zabalaren % 15 irten ahalko dira, eta gehienez 1,05 metro.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 105 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

13. Estalkiak

- Estalkiek ehuneko 25 eta 40 bitarteko malda izango dute.
- Mehelinen arteko eraikinetan, estalkiak bi isuri izango ditu, kanporantz isuriz, eta goihabea fatxadarekiko paraleloan egongo da. Partzelaren itxurak exijitzen edo gomendatzen duenean, hiru isurikoa edo gehiagokoa jarri ahalko da, soluzio konplexuak eta fatxaden gainean horma-pikoak agertzea saihestuz.
- Ezingo dira mantsardak jarri, eta estalkietan ezingo dira irekigunerik egin terrazak jartzeko.
- Argi-zuloak eta eguzki-plakak instalatu ahalko dira, estalkiaren planoaren paraleloan, eta ezin dira 15 cm baino gehiago atera. Horiek instalatu ahal izateko, AL.01 eremuko hirigune historikoko monumentu-multzoa babesteko araudia bete beharko da.
- Eskaileretako armazoiak eraikinaren fatxadarekiko gutxienez 3 m atzeraeman beharko dira.

14. Fatxadetara irekita dauden patioak

Azpigune horretan ez daude baimenduta espazio publikoetara ematen duten fatxadetan patio irekiak egitea.

15. Beste baldintza batzuk

Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.

16. Baimendutako erabilerak

- Erabilera nagusia:
 - Erabilera nagusia eraikuntza atxikiko etxebizitzarena da.
 - Oin guztietan sestra gaineko solairuak onartzen dira.
 - Erabilera eskusiboa edo partekatua baimenduta dago, hurrengo paragrafoko baldintzen arabera.
- Baimendutako gainerako erabilerak:
 - Komunitatearen ekipamendua: bizitegi-eraikinaren beheko solairuan, eraikin eskusiboan eta elkarrekin edo beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean, b4 eta b7 bitarteko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan.
 - Bulegoak: bizitegi-eraikinaren edozein solairutan, eraikin eskusiboetan edo partekatuetan, b4 eta b7 bitarteko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan.
 - Txikizkako merkataritza: bizitegi-eraikineko beheko eta lehenengo solairuetan (aurrekoari lotuta); eraikin eskusiboetan; eta komunitatearen ekipamenduaren eraikinean, bulegoetan, hoteletan eta landetxeetan.
 - Jatetxeak eta tabernak: txikizkako merkataritzaren baldintza berberetan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 106 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b.5 Hotelak eta antzekoak: eraikin eskusiboetan eta goiko solairuetan, beheko solairuetako komunitatearen ekipamendu, saltoki eta jatetxeekin partekatuta.
- b.6 Landetxeak eta nekazaritza-turismoa: lege zehatzen arabera, etxebizitzarekin partekatutako eraikinetan; beheko solairuetan baimendutako gainerako erabilerekin partekatutako eraikinen goiko solairuetan; eta eraikin eskusiboetan.
- b.7 Aparkalekuak (erabilera ez-osagarri gisa): sotoetan eta beheko solairuetan.
- c) Edonola ere, 1.5.2.2 artikularen 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

1.5.2.4 artikulua. Landa-kokagune zaharren a.2 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

1. Aplikazio-eremua

- a) Ordenantza honek Egiletako EG-02, 03 eta 04 hirigintza-eremuetako a.2 azpiguneetako oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, tresna honek proposatutako antolamendu xehatuarekin guztiz bat datozenak. Hala ere, hirigintza-jarduketarako eremuko arau partikularrak, arau-mailan lehentasuna izango duenak, hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- b) Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bitartez arautuko dira.

2. Antolamendurako oinarritzko irizpidea

A.2 guneek osatzen dituzten landaguneen izaera mantentzeko, bi familiako etxebizitzaren erabilera lehenetsiko da.
Hortaz, ordenantza honen xedea da erabilera biak ezartzea sustatzea, hirigintza- eta eraikuntza-parametro egokiagoak ezarri.

3. Eraikigarritasuna

- a) Azpigune horretan, eraikigarritasuna zeharka arautzen da, honako irizpide hauek ezarri:
- a.1 Bizitegi-erabilerarako eraikinaren gehieneko azalera partzelaren azalera koefiziente bat aplikatzearen emaitza izango da, erabilera lehenetsia den edo ez aintzat hartuta.
Lehenetsitako bizitegi-erabilera: 0,50 m²/m².
Lehenetsita ez dagoen bizitegi-erabilera: 0,30 m²/m².
- a.2 Beste erabilera baimendu batzuetarako azalera gehienez partzelaren m² bakoitzeko 0,3 m²-koa izango da.
- a.3. Edonola ere, azalera eraiki osoa gehienez partzelaren m² bakoitzeko 0,60 m²-koa izango da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 107 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Aurreko paragrafoan adierazitakoa alde batera utzita, tresna hau behin betiko onesten den unean dauden erregistro-partzela guztiek eskubidea izango dute gutxienez 162 m²-ko eraikigarritasun absolutua izateko, baimendutako erabileretako baterako badira, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:
- b.1 Beheko solairuan eraikitako azalerak 100 m² baino gehiago ez izatea.
 - b.2 Eraikina bizitegi-erabilerarako erabiltzen bada, unitate bat baino gehiago ez izatea.
 - b.3 Ordenantza honetan ezarritako "aurreko mugarekiko tartea" eta "alboetako mugekikoak" errespetatzea.
- c) Hala ere, partzela alboetako bati gehitzen bazaio azalera handiagoko bat sortzeko edo ondoren banatu edo partzelatzen bada, sortutako partzela berriari bakarrik aplikatuko zaio a) paragrafoan ezarritako koefizientetik eratorritako eraikigarritasuna.

4. Gehieneko etxebizitza-kopurua

Gehieneko etxebizitza-kopurua gutxieneko partzela eraikigarrien eta partzelazio-ondorioetarako gutxieneko partzelen parametroen bidez erregulatuko da zeharka.

5. Gutxieneko partzela eraikigarria. Aldez aurretik dauden partzelak

Tresna hau behin betiko onesten den unean dagoeneko dauden partzelak finkatuta geratuko dira. Hortaz, partzela horiek guztiak gutxieneko partzela eraikigarritzat hartuko dira.

6. Partzelak partzelazio-ondorioetarako

- a) Arau hauek behin betiko onetsi ostean sortutako partzela berri guztiek honako gutxieneko azalera hauek izango dituzte, erabilera nagusiaren arabera:
- a.1 Bi familiako etxebizitza. 400 m²-ko partzela etxebizitza-unitate bakoitzeko.
- b) Baimendutako gainerako erabilerak.
- b.1 Aurretik dagoen etxebizitza bati gutxienez muga batetik atxikitako etxebizitza (familia bakarreko etxebizitza atxiki isolatua eta bi familiako etxebizitza atxikia): 400 m²-ko partzela etxebizitza-unitate bakoitzeko.
 - b.2 Familia bakarreko etxebizitza atxikien multzoa (zentzu hertsian): 500 m²-ko partzela etxebizitza-unitate bakoitzeko.
 - b.3 Familia bakarreko etxebizitza isolatua: 1.000 m²-ko partzela etxebizitza-unitate bakoitzeko.
 - b.4 Eraikin isolatuko beste erabilera batzuk: 800 m² eraikin bakoitzeko.
 - b.5 Lehendik dagoen eraikin bati atxikitako eraikineko beste erabilera batzuk: 400 m² eraikin bakoitzeko.
- c) Gainera, familia bakarreko etxebizitza isolatuaren partzela ezingo da 1.500 m² baino gehiagokoa izan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 108 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

7. Eraikinen baldintzak

- Lehendik dagoen eraikin bati atxikitako etxebizitzak eta beste erabileretarako eraikinak eraikitako alde bat osatzeko, mehelinak ezkutatzeko eta abarrerako erabiliko dira.
- Familia bakarreko etxebizitza atxikiak hiru etxebizitza izango ditu. Horretaz gain, lehendik dagoen eraikinari atxiki ahalko zaio, baldin eta aurreko paragrafoko helburuetarako bada.

8. Partzela batean dagoen eraikin-kopurua

- Partzela batean hainbat eraikin kokatu ahal izango dira, baimendutako erabilera baterako edo batzuetarako, eta komunitateak eratu ahal izango dira, erabilera komuneko espazio eta elementuekin, betiere hura eraikin adina partzelatan zatitu badaiteke, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera.
- Eraikuntza-proiektuak, edo, hala behar denean, partzelaren bolumenak antolatzen dituen xehetasun-azterketak, aurreko baldintza betetzen dela frogatzen duen idatzizko dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa edukiko ditu.

9. Aurreko mugen gutxieneko neurriak

Tresna hau behin betiko onetsi ondoren sortzen diren partzela berri guztiek honako gutxieneko neurri hauek izango dituzte aurreko mugetan, erabilera nagusiaren arabera:

- Erabilera lehenetsien partzelak:
 - Bi familiako etxebizitza: 25 m
- Gainerako erabilera baimenduen partzelak:
 - Lehendik dagoen eraikin bati gutxienez albo batetik atxikitako etxebizitza: 25 m
 - Familia bakarreko etxebizitza atxikien multzoa: 30 m
 - Familia bakarreko etxebizitza isolatua: 30 m
 - Baimendutako beste erabilera batzuk: 25 m
 - Lehendik dagoen eraikin bati gutxienez muga batetik atxikitako beste erabilera baimendu batzuk: 25 m

10. Aurreko mugarekiko tartea

- Aurreko mugarekiko tartea edo atzerapena P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan zehaztuko da, fatxadaren derrigorrezko edo gehieneko lerroen bidez.
- Zehaztapan hori ez badago, honako arau hauei jarraituko zaie:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 109 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b.1 Lehendik dauden eraikuntzei atxikitako eraikinek horiek zehaztutako fatxadaren lerroa errespetatuko dute, mugari atxikita egon edo ez.
- b.2 Gainerako kasuetan, eraikina mugari atxiki ahalko zaio, kaleak gutxienez 8 m-ko zabalera baldin badu. Bestela, kalearen ardatzetik 4 m-ko tartea errespetatuko da.

11. Eraikinen gainerako mugekiko gutxieneko tartea

Gainerako mugetan, eraikinek gutxienez 3 m-tara egon beharko dute, 6. puntuko b.1 eta b.5 paragrafoetan deskribatutako atxikien kasu berezietan eta tresna hau behin betiko onetsi aurretik dauden eta egoera bereberetan dauden eraikinetan salbu.

12. Partzela bereko eraikinen arteko gutxieneko tartea

- a) Partzela berean dauden eraikinek, erabilera nagusizat erabilera baimendu bat edo gehiago dutenean, 6 m-ko tartea izango dute haien artean.

Erabilera osagarrietarako erabiliko diren eraikin eta eraikuntzak gutxienez 3 m-ko tartearekin bereiziko dira partzelan dagoen edozein eraikuntza nagusitik.

13. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

Eraikinak okupatu ahal izango duen gehieneko lurzorua honela zehaztuko da:

- a) Tresna hau behin betiko onetsi aurretik dauden partzeletan, parametroa librea izango da.
- b) Gainerako kasuetan: % 40.

14. Eraikinen profila edo gehieneko solairu-kopurua

- a) Eraikinaren profila II (b)- da.
- b) Horrek esan nahi du sestra gainean gehienez bi solairu eta teilatupea baimentzen direla, eta sestra azpiko solairu-kopurua librea dela.

15. Solairuen altuera librea

- a) Solairuen altuera librearen orokorrean 1.5.1.25 artikuluan ezarritakoak izango dira.
- b) Hala ere, nekazaritza-biltegi gisa erabiliko diren eraikinetan, solairu bakarra dutenean, gehieneko altuera 6 m-koa izango da, zertxaren beheko aldetik neurtuta, edo, halakorik ez badago, teilatu-hegaletik edo erlaitzetik neurtuta.

16. Fatxadetako irtengune eta sarguneak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 110 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a) Espazio publikoaren lerrokaduraren gaineko irtengune eta sarguneak 1.5.1.28 artikuluan ezarritako orokorrak dira, honako salbuespen hauekin:
- a.1 4 m baino gutxiagoko zabalera duten kaleetan debekatuta dago fatxadetan edozein irtengune egotea.
- a.2 Gainerako balkoi, begiraleku eta galeriak aurrean duten espazio publikoaren zabalaren % 10ean atera ahalko dira, gehienez 1 metroz, eta hegal-elementu itxiak gehienez 40 cm atera ahalko dira.
- b) Atzeraemandako fatxadetan, irtenguneak libreak dira, eta 11. eta 12. puntuetan ezarritako mugekiko tartekak baino ez dituzte bete behar.
- c) Nolanahi ere, fatxada aurreko mugatik berezita dagoenean, aurreko a) paragrafoan ezarritako gehieneko muga izango dute beti.

17. Erlaitzak eta teilatu-hegalak

Lerrokaduraren gaineko erlaitzak eta teilatu-hegalak gehienez espazio publikoaren zabalaren % 15 atera ahalko dira; gainera, orokorrean 1.5.1.29 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

18. Estalkiak

- a) Estalkiek ehuneko 25 eta 40 bitarteko malda izango dute.
- b) Ezin da mantsardarik jarri.
- c) Teilatupeak argi-zuloekin bakarrik argiztatu ahalko dira, estalkiaren planoaren paraleloan jarri beharko dira, eta ezin dira 15 cm baino gehiago atera.

19. Beste baldintza batzuk

- a) Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak esleituko dio partzela berri bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta, horrela, esleitutako batura tresna honek eta/edo garapeneoak emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.
- b) Partzelaren mugari atxikitako beste antzeko eraikin bati atxikitako eraikin bat eraiki ahalko da partzelaren mugaren alboan, eta eraikigarritasun gisa zenbatu ahalko da, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:
- b.1 Zerbitzuko erabilerentzat eta/edo osagarrientzat erabiltzea, hala nola garaje edo egurtegietarako.
- b.2 Alboko partzelan lehendik dagoen antzeko eraikin bati atxikitako eraikin bat izatea, edo proiektuan eraikin biak aipatzea eta obra batera egikaritzea.
- b.3 Dagokien partzelen barruan erabilera nagusiko eraikinak egotea.
- b.4 Azalera eraikia gehienez 30 m²-koa izatea, eta altuera 3 m baino gehiagokoa ez izatea inongo puntutan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 111 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- c) Erregai-deposituak instalatzeari dagokionez, mugekiko 3 m-ko tarte librea errespetatuko dute, partzelaren ezaugarri bereziengatik tarte hori errespetatzea ezinezkoa denean salbu; kasu horretan, tarte murriztu ahalko da, Udalak idatziz emandako baimenarekin, baina Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak adierazitako tarte errespetatu beharko da.

20. Gainerako parametroak

Artikulu honetan araututa ez dauden parametroak 1.5.1 kapituluaren ezarritako baldintzen mende egongo dira, eta, edozein kasutan, sektoreko legeria eta aplikatu behar den oinarritzko araudia bete beharko dira.

21. Baimendutako erabilerak

- a) Lehenetsitako erabilerak:
- a.1 Honako hau da lehenetsitako erabilera:
familia biko etxebizitza, edozein modalitatetan.
 - a.2 Oin guztietan sestra gaineko solairuak onartzen dira.
 - a.3. Erabilera eskusiboa edo partekatua baimenduta dago, hurrengo paragrafoko baldintzen arabera.
- b) Baimendutako gainerako erabilerak.
- b.1 Familia bakarreko etxebizitza isolatua aurreko a.2 eta a.3 paragrafoetan adierazitako baldintzetan egin daiteke.
 - b.2 Familia bakarreko etxebizitza isolatua aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzetan eraiki daiteke.
 - b.3 Nekazaritza-ustiapenari lotutako biltegiak: bizitegi-erakinetakoko beheko solairuetan, eraikin eskusiboetan, eta gainerako erabilera baimenduekin partekatutako beheko solairuan, baldin eta bateragarriak direla egiaztatzen bada.
 - b.4 Bizitegiarekin bateragarria den industria-erabilera: bizitegi-etxebizitza baten edo gainerako erabilera baimendutako eraikinen beheko solairuan, baldin eta bateragarriak badira, eta eraikin eskusiboetan.
 - b.5 Komunitatearen ekipamendua: eraikin eskusiboan, bizitegi-erakinaren beheko solairuan eta ekipamenduen artean edo beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean, hurrengo b.6 eta b.10 bitarteko paragrafoetako baldintzetan.
 - b.6 Bulegoak: bizitegi-erakinaren edozein solairutan, eraikin eskusiboetan edo partekatuetan, b.7 eta b.10 bitarteko paragrafoetako baldintzetan.
 - b.7 Txikizkako merkataritza: bizitegi-erakin bateko beheko solairuan, eraikin eskusiboan eta komunitatearen ekipamendu-erakinaren, bulegoen, hotelen eta landetxeen beheko solairuan.
 - b.8 Jatetxeak eta tabernak: txikizkako salmentaren baldintza berdinetan eta titularraren etxebizitzarekin eta landetxeekin eta nekazaritzako turismoarekin edozein solairutan partekatuta.
 - b.9 Hotelak eta antzekoak: eraikin eskusiboetan eta komunitatearen ekipamenduekin, bulegoekin, txikizkako salmentarekin eta jatetxe eta tabernekin partekatutako goiko solairuetan.
 - b.10 Landetxeak eta nekazaritza-turismoko etxeak: lege zehatzen arabera, etxebizitzarekin partekatutako eraikinetan; eta beheko solairuetan dauden

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 112 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

baimendutako gainerako erabilerekin partekatutako eraikinen goiko solairuetan.

- c) Edonola ere, 1.5.2.2 artikulua 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

1.5.2.5 artikulua. Zabalguneetako a.3 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

1. Aplikazio-eremua

- a) Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, Dulantziko eta Egiletako hirigintza-eremuetan arau horiek proposatutako a.3 azpiguneen antolamendu xehatuarekin bat, garapeneke plangintza kalifikatu ahal izateko. Hala ere, dagokion hirigintza-jarduketarako eremuko arau partikularrak, arau-mailan lehentasuna izango duenak, hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- b) Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bitartez arautuko dira.

2. Eraikigarritasuna

- a) Azpigune horietan, eraikigarritasuna zeharka arautuko da P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan irudikatutako eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren bidez eta baimendutako solairu-kopuruaren bidez
- b) Planoak aurrealdeko edo atzealdeko fatxada-lerroa ezartzen ez badu, 8. puntuan ezarritako parametroa beteko da.
- c) Garapen-plan batek garatu behar dituen eremuen kasuan, hirigintza-eremuaren arau partikularrean zuzenean nahiz zeharka edo grafikoki erregulatuko dira.

3. Gehieneko etxebizitza-kopurua

- a) Urbanizazioak finkatutako hiri-lurzoruko azpiguneetan, parametro hori librea da. Hala ere, oin berriko obrak edo edozein aldaketa egin nahi badira, etxebizitza-kopurua areagotzea badakar, partzelaren barruan (eraikinaren barruan edo kanpoan) gehitutako etxebizitza berrien plaza-kopuru berbera aurreikusi beharko da.
- b) Urbanizazioak finkatu gabeko hiri-lurzoruko azpiguneetan eta urbanizagarrian, hirigintza-eremuaren arau partikularrean berariaz zehaztuko da.

4. Gutxieneko partzela eraikigarria Aldez aurretik dauden partzelak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 113 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

5. Gutxieneko partzela partzelazio-ondorioetarako

Tresna hau behin betiko onetsi ondoren sortutako partzela berri guztiek gutxieneko 250 m²-ko azalera izango dute.

6. Mugen gutxieneko neurriak

- Partzelen aurrealdeko mugak edo kalera begira dauden fatxadak gutxienez 12,50 m-koak izango dira.
- Gainerako muga neurriak libreak izango dira.

7. Mugekiko tartekak

- Eraikina atxikia izango da; hortaz, eraikinak modu grafikoan zehaztuta daudenez, ez dago parametro hori.
- Hala ere, alboko eraikinetako batean argien eta bisten zortasuna badago, Kode Zibilak ezarritakoa beteko da.
- Gauza bera egingo da planoan edo 8. puntuari adierazitako gehieneko sakonera eraikigarriak benetako neurriak gainditzen baditu.

8. Sakonera eraikigarria

- P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoak atzeko fatxadaren lerroa zehaztu ez badu, gehienez 12 m-ko sakonera ezarriko da.
- Beheko solairuetan eta sestra gainekoetan ondoren ezarriko diren okupazio-baldintzen bidez erregulatuko da.

9. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

- Goiko solairuen okupazioa dokumentazio grafikoak, P.6 planoak edo, halakorik ez balego, aurreko parametroek zehazten dute.
- Aurretik dauden eraikinak hartzen dituzten azpiguneetan, beheko solairuen eta sestra azpiko solairuen okupazioa finkatuko da.
- Eraikin berriko azpiguneetan, beheko solairuen eta sestra azpiko solairuen okupazioak, portxeak edo arkupeak egoteari kalterik egin gabe, bat egingo du goiko solairuetakoarekin. Gainera, partzelaren neurriek uzten badute, 8. puntuari zehaztutako 5 m baino gehiagoko sakonera duen okupazioa egon ahalko da, baina ezingo da inoiz partzelaren azaleraren % 75 gainditu.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 114 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

10. Eraikuntzaren gehieneko eta gutxieneko neurriak

Parametro horiek ordenantza honetako parametroak aplikatuz erregulatzeko dira, eta, azken aukera moduan, birpartzelazio- edo konpentsazio-proiektuen bidez.

11. Eraikinen profila edo gehieneko solairu-kopurua eta gehieneko altuerak

Gehieneko solairu-kopurua derrigorrez P.6 planoan eta/edo arau partikularrean zehaztuko da.

12. Beste baldintza batzuk

- Solairuen altuerari, fatxadako sargune eta irtenguneei, erlaitzei eta teilatu-hegalei, estalkiei eta partzelako patioei buruzko baldintzak 1.5.1 kapituluaren ezarritako orokorrak izango dira.
- Etxadietako patioetan, era berean, baimenduta egongo da etxadiko patioaren eraikuntza-lerroaren gainean 1.5.1.28 artikulua 2. puntuan adierazitako irtengune eta sargune berdinak egitea.
- Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.

13. Baimendutako erabilerak

- Erabilera nagusia:
 - Erabilera nagusia eraikuntza atxikiko familia anitzeko etxebizitzarena da.
 - Horietan guztietan sestra gaineko solairuak onartzen dira.
 - Eraikin esklusiboan edo beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean baimentzen da, hurrengo paragrafoan ezarritako baldintzen arabera.
- Baimendutako gainerako erabilerak:
 - Komunitatearen ekipamenduak: etxebizitzaren eraikinaren beheko eta lehenengo solairuetan, baldin eta eskailera propioa eta eraikinaren gainontzeko aldeekiko independentearen bitartez sartzen bada; eraikuntza esklusiboan eta beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean, hurrengo paragrafoetan ezartzen diren baldintzetan.
 - Bulegoak, aurreko paragrafoko baldintza berbertan.
 - Txikizkako merkataritza: etxebizitza, bulego eta ekipamenduen eraikinaren beheko eta lehenengo solairuetan, baldin eta eskailera propioa eta eraikinaren gainontzeko aldeekiko independentearen bitartez sartzen bada; eraikuntza esklusiboan eta beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean hurrengo paragrafoetan ezartzen diren baldintzetan.
 - Jatetxeak eta tabernak: etxebizitza, bulego, ekipamendu eta hotelen eraikinaren beheko eta lehenengo solairuetan.
 - Hotelak eta antzekoak: eraikin esklusiboan, eta goiko solairuetan, aurreko paragrafoetan zehazten denaren arabera.
 - Aparkalekuak (erabilera autonomo eta ez-osagarri gisa): edozein eraikinetako sestra azpiko solairuetan edo beheko solairuetan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 115 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- c) Edonola ere, 1.4.2.2 artikularen 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

1.5.2.6 artikulua. Eraikuntza irekiko a.4 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

1. Aplikazio-eremua

- a) Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, Dulantziko eta Egiletako hirigintza-eremuetan arau horiek proposatutako a.4 azpiguneen antolamendu xehatuarekin bat, garapeneko plangintza kalifikatu ahal izateko. Hala ere, dagokion hirigintza-jarduketarako eremuko arau partikularrak, arau-mailan lehentasuna izango duenak, hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- b) Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bidez arautuko dira.

2. Eraikigarritasuna

- a) Arau hauek xeheki antolatzen duten hiri-lurzoruan, eraikigarritasuna zuzenean arautuko da azpigune bakoitzerako hirigintza-eremuko arau bereziaren bidez, edo zeharka arautuko da eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren bidez eta P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan adierazitako gehieneko solairu-kopuruaren bidez.
- b) Garapeneko plan batez xeheki antolatu beharreko hirigintza-eremuetan, zuzenean arautuko da bere arau bereziaren bidez.

3. Aldez aurretik dauden partzelak

Finkatuta geratuko dira tresna hau behin betiko onartzeko ulean zeudenak, eta, beraz, horiek guztiak gutxieneko partzela eraikigarritzat hartzen dira.

4. Partzela berriak. Partzelazioak

- a) Partzelen forma (partzela bakoitzaren gutxieneko azalera, mugekiko tartearak, partzela berean dauden eraikinen arteko tartearak, mugen neurriak, etab.) tresna honen antolamendu xehatuak, dagokion plan bereziaren edo partzialaren antolamendu xehatuak zehaztuko du, eta, hori garatzeko, behar izanez gero egiten diren partzelazio- edo konpentsazio-proiektuek.
- b) Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak, xehetasun-azterketak edo garapeneko plangintzak esleituko dio partzela bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta, horrela, esleitutako batura

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 116 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

tresna honek eta garapenekoak emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.

5. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

- Lurzorua okupazioa P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan dauden eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren bidez arautuko da.
- Garapeneko plan batez xeheki antolatu beharreko eremuetan, zuzenean arautuko da bere arau bereziaren bidez

6. Eraikinaren formaren erregulazioa

- P-6 planoak definitzen du eraikinaren formaren erregulazioa (fatxada-lerroak, gehieneko solairu-kopurua, mugekiko tartekak, eraikinen arteko tartekak, etab.)
- Garapeneko plan batez xeheki antolatu beharreko eremuetan, garapeneko planak arautuko du.

7. Etxadi eta partzeletako patioak

Azpigune honetan ez da baimentzen ez etxadiko patioirik, ez partzelako patioirik.

8. Beste baldintza batzuk

- Solairuen altuerari, fatxadako sargune eta irtenguneei, erlaitzei eta teilatu-hegalei, estalkiei eta partzelako patioei buruzko baldintzak 1.5.1. kapituluaren ezarritako orokorrak izango dira.
- Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.

9. Baimendutako erabilerak

- Erabilera nagusia.
 - Erabilera nagusia familia anitzeko etxebizitza-multzo irekiena eta/edo dorreena da.
 - Horietan guztietan sestra gaineko solairuak onartzen dira.
 - Eraikin eskusiboan edo beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean baimentzen da, hurrengo paragrafoan ezarritako baldintzen arabera.
- Baimendutako gainerako erabilerak.
 - Komunitatearen ekipamenduak: etxebizitzaren eraikinaren beheko eta lehenengo solairuetan, baldin eta eskailera propio eta eraikinaren gainontzeko aldeekiko independentearen bitartez sartzen bada; eraikuntza eskusiboan eta beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean, hurrengo paragrafoetan ezartzen diren baldintzetan.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 117 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b.2 Bulegoak, aurreko paragrafoko baldintza berbertan.
 - b.3 Txikizkako merkataritza: etxebizitza, bulego eta ekipamenduen eraikinen beheko eta lehenengo solairuetan, baldin eta eskailera propio eta eraikinaren gainontzeko aldeekiko independentearen bitartez sartzen bada; eraikuntza eskusiboan eta beste erabilera batzuekin partekatutako eraikinean hurrengo paragrafoetan ezartzen diren baldintzetan.
 - b.4 Jatetxeak eta tabernak: etxebizitza, bulego, ekipamendu eta hotelen eraikinaren beheko eta lehenengo solairuetan.
 - b.5 Hotelak eta antzekoak: eraikin eskusiboan, eta goiko solairuetan, aurreko paragrafoetan zehazten denaren arabera.
 - b.6 Aparkalekuak (erabilera autonomo eta ez-osagarri gisa): edozein eraikinetako sestra azpiko solairuetan edo beheko solairuetan.
- c) Edonola ere, 1.5.2.2 artikularen 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

1.5.2.7 artikulua. Dentsitate txikiko eta eraikuntza irekiko a.5.1 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

1. Aplikazio-eremua

- a) Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, a.51 azpigune gisa kalifikatuak, tresna honek proposatutako antolamendu xehatuarekin guztiz bat datozenak. Hala ere, dagokion hirigintza-eremuko arau partikularrak hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- b) Printzipioz, etorkizuneko garapeneko planek aurreikusitako a.51 azpiguneetan ere aplikatuko dira, baina horiek egokituz jotzen dituzten aldaketak ezarri ahal izango dituzte.
- c) Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bidez arautuko dira.

2. Ordenantza hau eraikuntza irekiko a.40 azpiguneen ordenantzarekin parekatzea

Azpigune horretan a.4 azpigunearen eraikuntza- eta erabilera-baldintzak aplikatuko dira, hurrengo puntuetan deskribatzen diren berezitasunekin.

3. Partzelazioa aldatzea

- a) Behin partzelazioa definituta, aldaketak honela egin ahalko zaizkio: partzelazio-proiektu baten bidez eta/edo, aurretik dagoenaren kasuan, finkak normalizatzeko proiektu baten bidez.
- b) Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak, xehetasun-azterketak edo garapeneko plangintzak esleituko dio partzela bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta, horrela, esleitutako batura tresna honek eta garapenekoak emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 118 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Eraikuntza-tipologia

Eraikuntzak eraikin ireki atxikiak edo isolatuak izango ditu, gehienez ere 12 etxebizitza eraikin bakoitzeko eta 24 etxebizitza atxikitako eraikin-multzo bakoitzeko.

5. Partzela batean dagoen eraikin-kopurua

a) Partzela batean hainbat eraikin kokatu ahal izango dira, baimendutako erabilera baterako edo batzuetarako, eta komunitateak eratu ahal izango dira, erabilera komuneko espazio eta elementuekin, betiere hura eraikin adina partzelatan zatitu badaiteke, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera. Eraikinek sestra azpiko erabilera osagarrietarako edo zerbitzarietarako eraikuntzak eduki ahal izango dituzte, bai eta titulartasuneko eta erabilera komuneko beste espazio eta elementu batzuk ere.

b) Eraikuntza-proiektuak, edo, hala behar denean, partzelaren bolumenak antolatzen dituen xehetasun-azterketak, aurreko baldintza betetzen dela frogatzen duen idatzizko dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa edukiko ditu.

6. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

Lurzorua gehieneko okupazioa, gehienez ere, ehuneko 60koa izango da sestra gainean, eta ehuneko 80koa sestra azpian.

7. Partzela bereko blokeen arteko gutxieneko tartea

Partzela bereko etxebizitza isolatuen edo etxebizitza-multzoen arteko gutxieneko tartea 9 m-koa izango da.

8. Eraikinen profila edo gehieneko solairu-kopurua

Eraikinaren profila III (a edo b)/ II da: alegia, beheko solairua, goiko bi solairu, teilatupea, eta sestra azpiko bi solairu.

9. Beste baldintza batzuk

Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.

10. Baimendutako erabilerak

a) Erabilera nagusia.
Erabilera nagusia bi eraikin atxikiz edo gehiagoz edo eraikin isolatu bakarraz osatutako familia anitzeko bloke irekiko etxebizitzarena da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 119 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Baimendutako beste erabilera batzuk.
Etxebizitza-erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak baimentzen dira: komunitatearen ekipamendua (irakaskuntzakoak; aisiakoak eta sozialak, salbu dantzalekuak, ausazko jokoak eta antzekoak; kirol-instalazio txikiak; ospitaleak ez beste osasun-zentroak; gizarte-zerbitzuak; erlijioak; erakundeetakoak), hotelak, jatetxeak, bulegoak eta txikizkako merkataritza. Eraikin eskusiboan kokatuko dira beti, eta etxebizitza-multzo bakar baterako beharrezkoa den partzela bakar bat okupatuko dute.
- c) Edonola ere, 1.5.2.2 artikularen 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

1.5.2.8 artikulua. Dentsitate txikiko eta eraikin atxikietako edo ilaran dauden etxebizitzetako 5.2 azpiguñeetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

1. Aplikazio-eremua

- a) Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, a.52 azpiguñe gisa kalifikatuak, tresna honek proposatutako antolamendu xehatuarekin guztiz bat datozenak. Hala ere, dagokion hirigintza-eremuko arau partikularrak hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- b) Printzipioz, etorkizuneko garapeneko planek aurreikusitako a.52 azpiguñeetan ere aplikatuko dira, baina horiek egokitzen jotzen dituzten aldaketak ezarri ahal izango dituzte.
- c) Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bidez arautuko dira.

2. Gehieneko eraikigarritasuna

- a) Arau hauek xeheki antolatzen duten hiri-lurzoruan, eraikigarritasuna zuzenean arautuko da azpiguñe bakoitzerako hirigintza-eremuko arau bereziaren bidez, edo zeharka arautuko da eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren bidez eta P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan adierazitako gehieneko solairu-kopuruaren bidez.
- b) Garapeneko plan batez xeheki antolatu beharreko hirigintza-eremuetan, zuzenean arautuko da bere arau bereziaren bidez
- c) Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak esleituko dio partzela berri bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta, horrela, esleitutakoen batura tresna honek eta/edo garapenekoak emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.

3. Aldez aurretik dauden partzelak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 120 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Finkatuta geratuko dira tresna hau behin betiko onartzeko unean zeudenak, eta, beraz, horiek guztiak gutxieneko partzela eraikigarritzat hartzen dira.

4. Partzela berrien erregulazioa. Partzelazioak

- Partzelen forma (partzelaren gutxieneko azalera, mugekiko tartea, partzela berean dauden eraikin arteko tartea, muga neurriak, etab.) tresna honen antolamendu xehatuak (arau partikularra eta P-5 plano) eta, hala badagokio, dagokion garapenerako planak zehaztuko du.
- Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak, xehetasun-azterketak edo garapenerako plangintzak esleituak dio partzela bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta horrela, esleitutako batura tresna honek eta garapenerako emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.

5. Muga gutxieneko neurriak

- Partzelen aurrealdeko mugak gutxienez 6,5 m-koak izango dira etxebizitza bakoitzeko.
- Gainerako muga neurriak libreak dira.

6. Eraikuntza-tipologia

- Eraikina 1.3.1.8 artikularen 6. puntuan definitzen den familia bakarreko etxebizitza atxikiaren erabilera eraikuntza-motakoa da.
- Etxebizitza-multzo bakoitzak, eraikuntza bakarra eta isolatua osatuta, ezingo ditu 6 etxebizitza-unitate baino gehiago izan.

7. Partzela batean dagoen eraikin-kopurua

- Partzela batean hainbat eraikin kokatu ahal izango dira, eta komunitateak eratu ahal izango dira, betiere hura eraikin adina partzelatan zatitu badaiteke, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera.
- Eraikuntza proiektuak, edo, hala behar denean, partzelaren bolumenak antolatzen dituen xehetasun-azterketak, aurreko baldintza betetzen dela frogatzen duen idatzizko dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa edukiko ditu.
- Ondoriozko eraikin-multzoak sestra azpiko erabilera osagarrietarako edo zerbitzarietarako eraikuntzak eduki ahal izango ditu, bai eta titulartasuneko eta erabilera komuneko beste espazio eta elementu batzuk ere.

8. Mugekiko tartea

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 121 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Honako hauek dira eraikinen mugekiko tartekak:

- Aurrealdeko mugarekiko edo bide-lerrokadurarekiko: 3 m
- Gainerako mugekiko: 5 m

9. Partzela bereko eraikinen arteko tartekak

Partzela bereko eraikinen arteko gutxieneko tartea 6 m-koa izango da.

10. Sakonera eraikigarria

Gehieneko sakonera eraikigarria P-6 planoan edo arau partikularrean ezarritakoa izango da.

11. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

Lurzorua gehieneko okupazioa P-6 planoan edo arau partikularrean ezarritakoa izango da.

12. Eraikinen profila edo gehieneko solairu-kopurua

Bi eraikuntza-tipologietako eraikuntzaren profila honako hau da: II (b)/II, beheko solairua, goiko solairua eta teilatupea, eta sestra azpiko bi solairu.

13. Beste baldintza batzuk

- Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.

14. Baimendutako erabilerak

- Erabilera nagusia: familia bakarreko etxebizitza atxikia eraikin eksklusiboan.
- Gainerako erabilerak
Etxebizitza-erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak baimentzen dira: komunitatearen ekipamendua (irakaskuntzakoak; aisiakoak eta sozialak, salbu dantza-aretoak, ausazko jokoak eta antzekoak; kirol-instalazio txikiak; ospitaleak ez beste osasun-zentroak; gizarte-zerbitzuak; erlijioak; erakundeetakoak), hotelak, jatetxeak, bulegoak eta txikizkako merkataritza. Eraikin eksklusiboan kokatuko dira beti, eta etxebizitza-multzo bakar baterako beharrezkoa den partzela bakar bat okupatuko dute.
- Edonola ere, 1.4.2.2 artikulua 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.2.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 122 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

**1.5.2.9 artikulua. Dentsitate oso txikiko eta familia bakarreko etxebizitza isolatuko
6.1 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko
ordenantza orokorra****1. Aplikazio-eremua**

- Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, a.61 azpigune gisa kalifikatuak, tresna honek proposatutako antolamendu xehatuarekin guztiz bat datozenak. Hala ere, dagokion hirigintza-eremuko arau partikularrak hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- Printzipioz, etorkizuneko garapeneko planek aurreikusitako a.61 azpiguneetan ere aplikatuko dira, baina horiek egokitzen jotzen dituzten aldaketak ezarri ahal izango dituzte.
- Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bitartez arautuko dira.
- Arau partikularrak eta garapeneko plangintzak ezarriko dute zein multzo dagoen baimenduta azpigune bakoitzerako.

2. Gehieneko eraikigarritasuna

- Arau hauek xeheki antolatzen duten hiri-lurzoruan, eraikigarritasuna zuzenean arautuko da azpigune bakoitzerako hirigintza-eremuko arau bereziaren bidez, edo zeharka arautuko da eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren bidez eta P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan adierazitako gehieneko solairu-kopuruaren bidez.
- Garapeneko plan batez xeheki antolatu beharreko hirigintza-eremuetan, zuzenean arautuko da bere arau bereziaren bidez
- Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak esleituko dio partzela berri bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta, horrela, esleitutako batura tresna honek eta/edo garapenekoak emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.

3. Aldez aurretik dauden partzelak

Finkatuta geratuko dira tresna hau behin betiko onartzeko unean zeudenak, eta, beraz, horiek guztiak gutxieneko partzela eraikigarritzat hartzen dira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 123 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

4. Gutxieneko partzelak partzelazio-ondorioetarako

Partzela berriek gutxienez 800 m²-ko azalera izango dute.

5. Gehieneko partzelak partzelazio-ondorioetarako

Partzela berriek ez dute izango 1.500 m²-tik gorako azalera.

6. Partzelen mugen gutxieneko neurriak

- Bide-lerrokadurarekiko aurrealdeko mugek gutxienez 25 m-ko zabalera izango dute.
- Gainerako muga neurriak libreak dira.

7. Eraikuntza-tipologia

Eraikina 1.3.1.8 artikularen 4. puntuan definitzen den familia bakarreko etxebizitza isolatuaren kontzeptukoa da.

8. Partzela batean dagoen eraikin-kopurua

- Partzela batean hainbat eraikin kokatu ahal izango dira, baimendutako erabilera baterako edo batzuetarako, eta komunitateak eratu ahal izango dira, erabilera komuneko espazio eta elementuekin, betiere hura eraikin adina partzelatan zatitu badaiteke, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera.
- Eraikuntza-proiektuak, edo, hala behar denean, partzelaren bolumenak antolatzen dituen xehetasun-azterketak, aurreko baldintza betetzen dela frogatzen duen idatzizko dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa edukiko ditu.

Ondoriozko eraikin-multzoak sestra azpiko erabilera osagarrietarako edo zerbitzarietarako eraikuntzak eduki ahal izango ditu, bai eta titulartasuneko eta erabilera komuneko beste espazio eta elementu batzuk ere, a) paragrafoan zehaztutako azpizatiketa-baldintza bete badaiteke.

9. Eraikinen mugekiko gutxieneko tartea

Honako hauek izango dira eraikinen mugekiko tartea:

- Aurrealdeko mugarekiko edo bide-lerrokadurarekiko: 5 m
- Gainerako mugekiko: 3 m

10. Partzela bereko eraikinen arteko gutxieneko tartea

Partzela bereko eraikinen arteko gutxieneko tartea 6 m-koa izango da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 124 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

11. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

Lurzorua gehieneko okupazioa, sestra gainean eta azpian, arau partikularrean edo P-6 planoan ezarritakoa izango da. Bestela, ehuneko 20koa izango da.

12. Eraikinen profila edo gehieneko solairu-kopurua

Eraikuntzaren profila II (b)/II da: alegia, beheko solairua, goiko solairua, teilatupea, eta solairu bat sestra azpian.

13. Beste baldintza batzuk

- Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.
- Eraiki gabeko espazioan, estalkirik gabeko eta sestra gaineko obra-elementurik gabeko kirol-instalazioak edo jolas-instalazioak jarri ahal izango dira, hala nola joko-pistak, betiere mugekiko 3 metroko tartea mantenduta.
- 1.000 m²-tik gorako azalera duten partzeletan, halaber, baimenduta daude aisialdirako eta kirolerako eraikin estaliak, hala nola frontoiak eta antzeko beste instalazio batzuk, baldin eta ordenantza honetan ezarritako altuera-baldintzak eta mugekiko tartea betetzen badituzte.

Eraikuntza horiek partzelari esleitutako eraikigarritasunaren zati gisa zenbatu beharko dira, nahiz eta alboetan itxita ez egon.

- Nolanahi ere, debekatuta dago igerilekuak jartzea.

14. Baimendutako erabilerak

- Erabilera nagusia: familia bakarreko etxebizitza isolatua.
- Baimendutako gainerako erabilerak.
Etxebizitza erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak baimentzen dira: komunitatearen ekipamendua (irakaskuntzakoak; aisiakoak eta sozialak, salbu dantza-aretoak, ausazko jokoak eta antzekoak; kirol-instalazio txikiak; ospitaleak ez beste osasun-zentroak; gizarte-zerbitzuak; erlijioak; erakundeetakoak), hotelak, jatetxeak, bulegoak eta txikizkako merkataritza. Eraikin eskusiboan kokatuko dira beti, eta etxebizitza-multzo bakar baterako beharrezkoa den partzela bakar bat okupatuko dute.
- Edonola ere, 1.5.2.2 artikulua 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

1.5.2.10 artikulua. Dentsitate oso txikiko eta bi familiako etxebizitzako 6.2 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 125 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1. Aplikazio-eremua

- Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, a.62 azpigune gisa kalifikatuak, tresna honek proposatutako antolamendu xehatuarekin guztiz bat datozenak. Hala ere, dagokion hirigintza-eremuko arau partikularrak hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- Printzipioz, etorkizuneko garapeneko planek aurreikusitako a.62 azpiguneetan ere aplikatuko dira, baina horiek egokitzat jotzen dituzten aldaketak ezarri ahal izango dituzte.
- Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bitartez arautuko dira.
- Arau partikularrak eta garapeneko plangintzak ezarriko dute zein multzo dagoen baimenduta azpigune bakoitzerako.

2. Gehieneko eraikigarritasuna

- Arau hauek xeheki antolatzen duten hiri-lurzoruan, eraikigarritasuna zuzenean arautuko da azpigune bakoitzerako hirigintza-eremuko arau bereziaren bidez, edo zeharka arautuko da eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren bidez eta P.6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoan adierazitako gehieneko solairu-kopuruaren bidez.
- Garapeneko plan batez xeheki antolatu beharreko eremuetan zuzenean arautuko da bere arau bereziaren bidez
- Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak esleituko dio partzela berri bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta, horrela, esleitutakoen batura tresna honek eta/edo garapenekoak emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.

3. Aldez aurretik dauden partzelak

- Finkatuta geratuko dira tresna hau behin betiko onartzeko unean zeudenak, eta, beraz, horiek guztiak gutxieneko partzela eraikigarritzat hartzen dira.
- Partzelazioa aldatzen den kasuetan, partzelazioa formulatzen duen espedienteak esleituko dio partzela berri bakoitzari dagokion eraikigarritasuna, eta, horrela, esleitutakoen batura tresna honek eta/edo garapenekoak emandako jatorrizko partzelen multzoan baimendutako kopuruaren berdina izango da.

4. Gutxieneko partzelak partzelazio-ondorioetarako

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 126 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Partzela berriek gutxienez 400 m²-ko azalera izango dute etxebizitza-unitate bakoitzeko.

5. Gehieneko partzelak partzelazio-ondorioetarako

Multzo bakoitzeko partzela berriek ezingo dute gaintitu gutxienekoaren bikoitza den gehieneko azalera.

6. Partzelen mugen gutxieneko neurriak

- Bide-lerrokadurarekiko aurrealdeko mugek gutxienez 20 m-ko zabalera izango dute eraikin bakoitzeko.
- Gainerako mugen neurriak libreak dira.

7. Eraikuntza-tipologia

Eraikina 1.3.1.8 artikulua 5. puntuan definitzen den familia biko etxebizitzaren kontzeptukoa da edozein modalitatetan.

8. Partzela batean dagoen eraikin-kopurua

- Partzela batean hainbat eraikin kokatu ahal izango dira, eta komunitateak eratu ahal izango dira, betiere hura eraikin adina partzelatan zatitu badaiteke, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera.
- Eraikuntza-proiektuak, edo, hala behar denean, partzelaren bolumenak antolatzen dituen xehetasun-azterketak, aurreko baldintza betetzen dela frogatzen duen idatzizko dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa edukiko ditu.
- Ondoriozko eraikin-multzoak sestra azpiko erabilera osagarrietarako edo zerbitzarietarako eraikuntzak eduki ahal izango ditu, bai eta titulartasuneko eta erabilera komuneko beste espazio eta elementu batzuk ere, a) paragrafoan zehaztutako azpizatiketa-baldintza bete badaiteke.

9. Eraikinen mugekiko gutxieneko tartek:

- Aurrealdeko mugarekiko edo bide-lerrokadurarekiko: 5 m
- Gainerako mugekiko: 3 m

10. Partzela bereko eraikinen arteko tartek

Partzela bereko eraikinen arteko gutxieneko tartea 6 m-koa izango da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 127 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

11. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

Lurzorua gehieneko okupazioa, sestra gainean eta azpian, ehuneko 30ekoa izango da.

12. Eraikinen profila edo gehieneko solairu-kopurua

Eraikuntzaren profila II (b)/II da: alegia, beheko solairua, goiko solairua, teilatupea, eta solairu bat sestra azpian.

13. Beste baldintza batzuk

- Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.
- Eraiki gabeko espazioan, estalkirik gabeko eta sestra gaineko obra-elementurik gabeko kirol-instalazioak edo jolas-instalazioak jarri ahal izango dira, betiere mugekiko 3 metroko tartea mantenduta.
- 1.000 m²-tik gorako azalera duten partzeletan, halaber, baimenduta daude aisialdirako eta kirolerako eraikin estaliak, hala nola frontoiak eta antzeko beste instalazio batzuk, baldin eta ordenantza honetan ezarritako altuera-baldintzak eta mugekiko tartea betetzen badituzte.

Eraikuntza horiek partzelari esleitutako eraikigarritasunaren zati gisa zenbatu beharko dira, nahiz eta alboetan itxita ez egon.
- Nolanahi ere, debekatuta dago igerilekuak jartzea.

14. Baimendutako erabilerak

- Erabilera nagusia: familia biko etxebizitza, edozein modalitatetan.
- Baimendutako gainerako erabilerak.
Etxebizitza erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak baimentzen dira: komunitatearen ekipamendua (irakaskuntzakoak; aisiakoak eta sozialak, salbu dantza-aretoak, ausazko jokoak eta antzekoak; kirol-instalazio txikiak; ospitaleak ez beste osasun-zentroak; gizarte-zerbitzuak; erlijioak; erakundeetakoak), hotelak, jatetxeak, bulegoak eta txikizkako merkataritza. Eraikin eskusiboan kokatuko dira beti, eta etxebizitza-multzo bakar baterako beharrezkoa den partzela bakar bat okupatuko dute.
- Edonola ere, 1.5.2.2 artikulua 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

2. atala. Industria-azpiguenei buruzko baldintza orokorrak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 128 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.5.2.11 artikulua. Industria intentsiboko b.11 azpiguneetako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra**1. Aplikazio-eremua**

- Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, a.11 azpigune gisa kalifikatuak, tresna honek proposatutako antolamendu xehatuarekin guztiz bat datozenak. Hala ere, dagokion hirigintza-eremuko arau partikularrak hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- Printzipioz, etorkizuneko garapeneko planek aurreikusitako a.11 azpiguneetan ere aplikatuko dira, baina horiek egokituz jotzen dituzten aldaketak ezarri ahal izango dituzte.
- Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.3.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bitartez arautuko dira.

2. Eraikuntza-tipologia

- Azpigune honen eraikuntza-mota nagusia etxadiak eratzen dituzten eraikin atxikiak dira. Etxadi horiek zenbait partzelaz osatuta egongo dira.
- Nolanahi ere, etxadiak partzela bakarrarekin okupatzen duen eraikin salbuetsia onar daiteke.

3. Eraikigarritasuna

- Azpigune horietan, eraikigarritasuna zeharka arautzen da P6 "Eraikuntzaren baldintzak" planoko eraikuntza-lerroen diseinu grafikoaren eta gehieneko solairu kopuruaren bidez edo arau partikularraren bidez.
- Garapeneko plan edo xehetasun-azterketa bat eskatzen den eremuen kasuan, zuzenean arautuko da arau partikularrean.

4. Gutxieneko partzela eraikigarria

- Hiri-lurzoruan finkatuta geratuko dira tresna hau behin betiko onartzeko ukaneko zeudenak.
- Industria-erabilerako hirigintza-eremuen fitxak zehazten ditu partzelazio-ondorioetarako gutxieneko eta gehieneko partzelen baldintzak.

5. Eraikinaren mugekiko tartea

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 129 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a) Aurrealdeko mugarekiko tartea 5 m-koa izango da.
 - a.1 Eraikina kontrako bi kaleren aurrean badago, distantzia hori bi fatxadetan eskatuko da.
 - a.2 Eraikina izkinan dauden kaleen aurrean badago, distantzia hori eraikinaren aurrealdeko fatxadan bakarrik eskatuko da.
- b) Gainerako mugekiko tartea 3 m-koa izango da.

6. Eraikinaren gehieneko altuera neurtzea

- a) Eraikinaren gehieneko altuera 10 m-koa izango da.
- b) Berariaz justifikatu ondoren, ekoizpen-prozesuak direla eta, elementu zehatz batzuek altuera handiagoa behar badute, gehienez ere 15 m-ko altuera onartuko da.
- c) Eraikuntzaren gehieneko altuera espaloiaaren sestratik sostengu-egituraren behealderaino neurtuko da. Muturrek maila desberdinetan dauden kaleetara ematen duten partzeletan, behealdeko sestrako kaletik edo espaloitik neurtuko da.

7. Eraikinaren gehieneko solairu-kopurua edo profila

- a) Gehieneko solairu-kopurua eraikuntzaren gehieneko altuera-parametroek eta eraikuntzaren solairuen gutxieneko altuera-parametroek finkatzen dute.
- b) Ez da sestra azpiko solairurik onartuko.

8. Eraikineko solairuen gutxieneko altuera libreak

- a) Bulego-eraikinetan eta ekoizpenerako ez diren solairuetan eta solairuarreetan, gutxieneko altuera 2,60 m-koa izango da.
- b) Altuera hori gutxienez 3 m-koa izango da pertsona asko bildu daitezkeen tokietan (jantokietan, esaterako), baldin eta 70 m² baino gehiagoko lekuak badira.
- c) Ekoizteko pabiloi edo lantegietan gutxieneko altuera 4 m-koa izango da.
- d) Zaintzako etxebizitzetan gutxieneko altuera 2,5 m-koa izango da.

9. Hegal-elementuak

Hegal-elementuak debekatuta daude bide-lerrokaduren gainean.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 130 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

10. Estalkiak

Estalkiek ehuneko 10 eta 50 arteko malda izango dute, eta horiek estaltzeko edozein material erabil daiteke, baldin eta kokatuta dagoen ingurunea errespetatzen bada.

11. Beste baldintza batzuk

Edonola ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta aplikatu behar den sektoreko legerian oro har ezarritako xedapenak exijitu ahalko dira.

12. Baimendutako erabilerak

a) Erabilera nagusia: lantegi, biltegi, handizkako merkataritza eta artisautza eta lanbide artistikoen industria-erabilera.

Nekazaritza- eta basogintza-ustiategiei edo nekazaritzako elikagaien ustiategiei lotutako biltegiak ere onartu ahal izango dira, baldin eta jarduera lantegietako jarduerarekin bateragarria bada.

b) Baimendutako gainerako erabilerak:

b.1 Bulegoak: beheko solairuan eta lehen solairuan onartzen dira, betiere ekoizpen-prozesuari lotuta.

b.2 Txikizkako merkataritza: beheko solairuan onartzen da, gehienez 500 m²-ko azalerarekin eta bidera ematen duen gutxienez 15 m-ko aurrealdearekin. Eraikin eskusiboan, partzelaren gehieneko azalera 1.000 m²-koa eta bidera ematen duen aurrealdea 25 m-ka bada onartuko da.

b.3 Jatetxe eta tabernak, eta jantoki kolektiboak: beti eraikin eskusiboan.

b.4 Hotelak eta antzekoak: etxadi eta eraikin eskusiboan, edo jatetxe eta tabernekin partekatutako etxadian. Beti eraikin eskusiboan.

b.5 Komunitatearen ekipamendua:

Dantzalekuak eta diskotekak: etxadi eskusiboan, baldin eta azpiguenea B industria-gune batean integratzen bada. Osterantzean, hirigintza-jarduketarako eremuko arau partikularrak xedatutakoa bete beharko da. Zerbitzu publikoak: etxadi eskusiboan edo gainerako erabilerekin partekatutako etxadian, jarduerak bateragarriak badira.

b.6 Ibilgailuen zaintza: automobilak, karabanak eta autokarabanak.

c) Edonola ere, 1.5.2.2 artikularen 2. puntuan xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

13. Espazio eraikian, partzela-unitateari eutsita, azpizatiketa-eragiketak egiteko baldintza bereziak

a) Definizioa.

Partzela-unitateari eutsita espazio eraikia azpizatitzeko eragiketak dira jatorrizko bolumenak hainbat zatitan banatzea edo bereiztea, bolumen horietan propietate

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 131 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

desberdinak agertzen badira, baina partzela-unitatearen espazio libre pribatuaren jabetza mankomunatu bada.

- b) Aplikazio-eremua
- b.1 Aplikazio-eremua urbanizazioak finkatutako eta oro har B.1 Industria gune gisa kalifikatutako hiri-lurzorua da.
- b.2 partzela-unitateari eutsita azpizatiketa-jarduketak egin daitezke, bai eraikita dauden partzelen gaineko eraikinetan, bai hutsik dauden partzelen gaineko eraikinetan.
- b.3 Aurreko paragrafoko edozein kasutan, jarraian azaltzen diren baldintza partikularrak bete beharko dira, eta puntu honetan arautzen ez diren alderdiak artikuluko honetako baldintza orokorren arabera arautuko direla ulertuko da.
- c) Azpizatitutako espazioen gehieneko eta gutxieneko azalera.
Azpizatitutako espazioek gutxienez 200 m²-ko azalera eraikia izan beharko dute beheko solairuan.
- d) Partzelaren gutxieneko aurrealdea.
Egun dauden pabiloietan egungo aurrealdea finkatzen da.
- e) Eraikinaren mugekiko tartea.
e.1 Artikulu honetan oro har ezarritakoak izango dira eraikuntzaren mugekiko tartea.
e.2 Mugetatik eta fatxadetatik bereizteko baldintzen ondorioz espazio libreak erabat edo partzialki okupatzen badira, nahitaez eraitsi beharko dira eragindako zati eraikiak, azpizatiketa egin aurretik.
- f) Eraikinak okupatzen duen lurzorua
- f.1 Eraikinek edo instalazioek gehienez okupatuko duten partzelaren ehunekoa dokumentazio grafikoko lerrokadurek edo araudi partikularrak definitutakoa izango da, bai hutsik dauden partzelen gaineko oin berriko jarduketak direnean, bai gaur egungo eraikinetako edo eraikita dauden partzeletako jarduketak direnean.
- f.2 Aurretik ezarritako okupazio-baldintzen ondorioz espazio libreak erabat edo partzialki okupatzen badira, nahitaez eraitsi beharko dira eragindako zati eraikiak, azpizatiketa egin aurretik
- g) Espazio libre mankomunatuaren baldintzak.
- g.1 Partzelako espazio librearen era independentean eraikitako espazio guztiek osatzen duten multzoaren jabetza mankomunatuakoa eta zatiezina izango da. Beraz, ezin da espazio libre hori azpizatitzen duen itxiturarik egin; bai, ordea, sarbideko lurzoruko seinaleak, zamalanak eta ekoizpen- biltegiak. Espazio libre pribatu horren azalera osoa behar bezala urbanizatu beharko da.
- g.2 Partzela barruko bide pribatuek honako zabalera hauek izango dituzte gutxienez:
- Pabiloira sartzeko aterik ez duten noranzko bakarrek bideak: 4 ml.
Pabiloira sartzeko albo batean atea duten noranzko bakarrek bideak: 7 ml.
Pabiloira sartzeko bi alboetan atea duten noranzko bakarrek bideak: 10 ml.
Pabiloira sartzeko aterik ez duten noranzko biko bideak: 7ml

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 132 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Pabiloira sartzeko albo batean atea duten noranzko biko bideak: 10 ml.

Pabiloira sartzeko bi alboetan atea duten noranzko biko bideak: 13 m

g.3 Lehen adierazitako bideen zabalera libreei ez die eragingo horietan aparkaleku-plazak jartzeak.

g.4 Biraketa-erradioak bat etorriko dira partzelen barrutik zirkulatu ahal duten ibilgailuek egin ohi dituzten ibilbideekin.

g.5 Barruko bide nagusiekiko loturetara soilik mugatuko da sarbide kopurua.

1.5.2.12 artikulua. Industria intentsiboko b.12 azpiguneko eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

1. Aplikazio-eremua

- Ordenantza honek oin berriko eraikuntzak eta aurretik daudenen aldaketak arautzen ditu, a.12 azpigune gisa kalifikatuak, tresna honek proposatutako antolamendu xehatuarekin guztiz bat datozenak. Hala ere, dagokion hirigintza-jarduketarako eremuko arau partikularrak, hura aldatzeko zehaztapenak ezarri ahalko ditu.
- Printzipioz, etorkizuneko garapeneko planek aurreikusitako a.12 azpiguneetan ere aplikatuko dira, baina horiek egokitzat jotzen dituzten aldaketak ezarri ahal izango dituzte.
- Proposatutako antolamendu xehatura egokitzen ez diren eraikinak 1.4.7.2 artikulutik 1.4.7.5 artikulura bitarteko (biak barne) xedapenen bitartez arautuko dira.

2. Kontzeptua

Partzela batez edo gehiagoz osatutako azpiguneak dira, enpresa bakarra ezartzeko xedea dutenak, eta barruan eduki beharko dituzte sartzeko, aparkatzeko, maniobrak egiteko eta zamalanak egiteko behar diren espazio guztiak.

3. Eraikuntza-mota bereizgarria

Eraikuntza-mota bereizgarria eraikin isolatuarena izango da.

4. Eraikigarrtasuna

- Azpigune bakoitzerako eraikigarrtasuna zuzenean arautuko da hirigintza-jarduketarako eremu bakoitzeko arau partikularrean.
- Garapeneko plan batez xeheki antolatu beharreko eremuetan, planeko ordenantzak arautuko du.
- Halakorik ezean, 0,70 m²/m²-ko eraikigarrtasuna finkatzen da, eta azpigune guztien eraikigarrtasun osoak ezin izango du gainditu tresna honen arau partikularrak gunerako ezarritako eraikigarrtasuna.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 133 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

5. Gutxieneko partzela eraikigarria

Hiri-lurzoruan finkatuta geratuko dira tresna hau behin betiko onartzeko unean zeudenak.

6. Gutxieneko partzela partzelazio-ondorioetarako

Tresna hau behin betiko onartu ondoren sortutako partzela berri guztiek gutxienez 1.250 m²-ko azalera izango dute.

7. Partzelen aurrealdearen gutxieneko neurriak

Partzelaren bide-lerrokadurarekiko gutxieneko aurrealdea 25 m-koa izango da.

8. Eraikinaren mugekiko tartea

- Eraikuntzak bide-lerrokaduretatik gutxienez 6 m bereziko dira.
- Alboko eta hondoko mugekiko gutxieneko tartea 5 m-koa izango da.

9. Partzela bereko eraikinen arteko tartea

Partzela bereko eraikinen arteko tartea gutxienez 8 m-koa izango da

10. Eraikinak okupatzen duen lurzorua

Gehieneko okupazioa ehuneko 70ekoa izango da.

11. Eraikinaren gehieneko altuera

- Eraikinak gehienez 15 m-ko altuera izango du sestra-kotatik erlaitzeraino, teilatu-hegaletaraino, zerra-hortz estalkien edo antzeko soluzioen oinarriaino nabe eta biltegiatan, eta 10 metrokoa gainerako eraikinetan.
- Pabiloi industrialetan, produkzio-prozesuak hala eskatuta eta berariaz aurretik adierazita, elementu espezifikoei altuera handiagoa izatea behar bada, aurreko paragrafoan adierazitakoa gainditzea onartuko da, eta ez da gehieneko mugarik ezarriko.

12. Eraikineko solairuen gutxieneko altuera libreak

- Bulego-eraikinetan eta ekoizpenerako ez diren solairuetan eta solairuarteetan, gutxieneko altuera 2,60 m-koa izango da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 134 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b) Altuera hori gutxienez 3 m-koa izango da pertsona asko bildu daitezkeen tokietan (jantokietan, esaterako), baldin eta 70 m² baino gehiagoko lekuak badira.
- c) Ekoizteko pabiloi edo lantegietan gutxienezko altuera 4 m-koa izango da.

13. Espazio eraikian, partzela-unitateari utsita, azpizatiketa-eragiketak egiteko baldintza bereziak

- a) Definizioa.
Partzela-unitateari utsita espazio eraikia azpizatitzeko eragiketak dira jatorrizko bolumenak hainbat zatitan banatzea edo bereiztea, bolumen horietan propietate desberdinak agertzen badira, baina partzela-unitatearen espazio libre pribatuaren jabetza mankomunatu bada.
- b) Aplikazio-eremua
 - b.1 Aplikazio-eremua urbanizazioak finkatutako eta oro har B.1 industria-gune gisa kalifikatutako hiri-lurzorua da.
 - b.2 Partzela-unitateari utsita azpizatiketa-jarduketak egin daitezke, bai eraikita dauden partzelen gaineko eraikinetan, bai hutsik dauden partzelen gaineko eraikinetan.
 - b.3 Aurreko paragrafoko edozein kasutan, jarraian azaltzen diren baldintza partikularrak bete beharko dira, eta puntu honetan arautzen ez diren alderdiak artikuluko honetako baldintza orokorren arabera arautuko direla ulertuko da.
- c) Azpizatitako espazioen gehieneko eta gutxienezko azalera.
Azpizatitako espazioek gutxienez 200 m²-ko azalera eraikia izan beharko dute beheko solairuan.
- d) Partzelaren gutxienezko aurrealdea.
Egun dauden pabiloietan egungo aurrealdea finkatzen da.
- e) Eraikinaren mugekiko tartekak.
 - e.1 Artikulu honetan oro har ezarritakoak izango dira eraikuntzaren mugekiko tartekak.
 - e.2 Mugetatik eta fatxadetatik bereizteko baldintzen ondorioz espazio libreak erabat edo partzialki okupatzen badira, nahitaez eraitsi beharko dira eragindako zati eraikiak, azpizatiketa egin aurretik
- f) Eraikinak okupatzen duen lurzorua.
 - f.1 Eraikinek edo instalazioek gehienez okupatuko duten partzelaren ehunekoahuneko 60koa izango da, bai hutsik dauden partzelen gaineko oin berriko jarduketak direnean, bai gaur egungo eraikinetako edo eraikita dauden partzeletako jarduketak direnean.
 - f.2 Aurretik ezarritako okupazio-baldintzen ondorioz espazio libreak erabat edo partzialki okupatzen badira, nahitaez eraitsi beharko dira eragindako zati eraikiak, azpizatiketa egin aurretik
- g) Espazio libre mankomunatuaren baldintzak.
 - g.1 Partzelako espazio librea era independentean eraikitako espazio guztiek osatzen duten multzoaren jabetza mankomunatuakoa eta zatiezina izango da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 135 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Beraz, ezin da espazio libre hori azpizatitzen duen itxiturarik egin; bai, ordea, sarbideko lurzoruko seinaleak, zamalanak eta ekoizpen- biltegiak. Espazio libre pribatu horren azalera osoa behar bezala urbanizatu beharko da.

g.2 Partzela barruko bide pribatuek honako zabalera hauek izango dituzte gutxienez:

Pabiloira sartzeko aterik ez duten noranzko bakarreko bideak: 4 ml.

Pabiloira sartzeko albo batean atea duten noranzko bakarreko bideak: 7 ml.

Pabiloira sartzeko bi alboetan atea duten noranzko bakarreko bideak: 10 ml.

Pabiloira sartzeko aterik ez duten noranzko biko bideak:

Pabiloira sartzeko albo batean atea duten noranzko biko bideak: 10 ml.

Pabiloira sartzeko bi alboetan atea duten noranzko biko bideak: 13 m

g.3 Lehen adierazitako bideen zabalera libreei ez die eragingo horietan aparkaleku-plazak jartzeak.

g.4 Biraketa-erradioak bat etorriko dira partzelen barrutik zirkulatu ahal duten ibilgailuek egin ohi dituzten ibilbideekin.

g.5 Barruko bide nagusiekiko loturetara soilik mugatuko da sarbide kopurua.

14. Baimendutako erabilerak

a) Erabilera nagusia.

a.1 industria, erazteko industriak izan ezik. Partzela eskusiboan onartzen dira.

a.2 13. puntuari aurreikusitako kasu berezian, lantegiak, artisautza eta lanbide artistikoak, eta biltegiak (nekazaritzako elikagaienak izan ezik) baino ez dira onartuko.

b) Baimendutako gainerako erabilerak.

b.1 Bulegoak: beheko solairuan eta lehen solairuan onartzen dira, betiere ekoizpen-prozesuari lotuta.

b.2 Jatetxe eta tabernak, eta jantoki kolektiboak: Partzela eskusiboan eta hotel, dantzaleku eta diskotekekin partekatutako partzelan.

b.3 Hotelak: partzela eskusiboan, edo jatetxe eta tabernekin partekatutako partzelan.

b.4 Komunitatearen ekipamendua:

- Dantzalekuak eta diskoteka, partzela eskusiboan.
- Ikus-entzunezko ekoizpenak, ekoizpen artistikoak edo ikuskizunetakoak: partzela eskusiboan.
- Zerbitzu publikoak: partzela eskusiboan.

b.5 Ibilgailuen zaintza: automobilak, karabanak eta autokarabanak.

c) Edonola ere, 1.5.2.2 artikulua 2. puntuari xedatutakoa bete beharko da eta 1.3.1.3 artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

1.5.2.13 artikulua. Industria bereziko b.2 azpiguenerako eraikuntzari eta erabilerari buruzko ordenantza orokorra

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 136 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1. Hirigintza-jarduketarako eremuko arau partikularrak edo, hala badagokio, plangintza xehatuak ezarriko du berariaz azpigune horren eraikuntza-araubidea, baina aurreko artikuluetan jasotako b.1 azpiegurenen batera bidaltzea erabaki ahal izango dute.
2. Nolanahi ere, arau edo plan horiek erabilera-araubidea zehaztu beharko du esperesuki.

3. atala. Hirugarren sektoreko eta komunitatearen ekipamendu pribatuko erabileretarako azpiguneei buruzko baldintza orokorrak

1.5.2.14 artikulua. Eraikinaren baldintza orokorrak

1. Hirugarren sektoreko erabileretarako "c" eta komunitatearen ekipamendu pribatuko erabileretarako "d" azpiguneetako eraikuntza-baldintzak hirigintza-eremuko arau partikularraren eta/edo dagokion garapeneko planeko ordenantzen bidez arautuko dira, eta osagarri gisa, dagokion tresnako "Kalifikazio xehatua" eta "Eraikinaren ezaugarriak" planoetan jasotako zehaztapenen bidez arautuko dira.
2. Arau partikularrak edo, hala badagokio, garapeneko planeko ordenantzek horretarako baldintza zehatzak ezartzen ez badituzte eta baldintza horiek azpigune bereizgarri desberdina duen eremu batean kokatzen badira, arau partikularrak azpigune bereizgarri horretarako ezartzen dituen ordenantzak aplikatuko dira.

1.5.2.15 artikulua. Baimendutako erabilerei buruzko baldintza orokorrak

1. Bi azpigune-motetan, dagokion hirigintza-eremuko arau partikularrak edo, hala badagokio, dagokion garapeneko planeko ordenantzek ezartzen dituzten erabilera-baldintzak bete beharko dira.
2. Arau partikularrean edo garapeneko planean erabileren bateragarritasun-baldintzak ezartzen ez badira, azpigunea tresna honen edo, hala badagokio, garapeneko planaren "Kalifikazio xehatua" planoan esleitutako erabilerarako baino ez dela erabiliko ulertuko da.

4. atala. Komunitatearen ekipamenduko azpigune publikoei buruzko baldintza orokorrak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 137 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

1.5.2.16 artikulua. Eraikuntzari buruzko baldintza orokorrak

1. Komunitatearen ekipamendu pribatuko erabileretarako azpiguneetako eraikuntza-baldintzak hirigintza-eremuko arau partikularraren eta/edo dagokion garapeneko planeko ordenantzen bidez arautuko dira, eta osagarri gisa, dagokion tresnako "Kalifikazio xehatua" eta "Eraikinaren ezaugarriak" planoetan jasotako zehaztapenen bidez arautuko dira.
2. Arau partikularrak horretarako baldintza zehatzak ezartzen ez baditu, baldintzak libreak direla ulertuko da.

1.5.2.17 artikulua. Erabilerei buruzko baldintza orokorrak

1. Azpigune horietan, dagokion hirigintza-eremuko arau partikularrak eta/edo, dagokion garapeneko planeko ordenantzek ezartzen dituzten erabilera-baldintzak bete beharko dira.
2. Arau partikularrean edo garapeneko planean erabileren bateragarritasun-baldintzak ezartzen ez badira, azpigunea "Kalifikazio xehatua" planoan esleitutako erabilerarako baino ez dela erabiliko ulertuko da, salbu eta plan partzialen kasuan. Azken kasu horretan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoa bete beharko da.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 138 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

**SEIGARREN TITULUA.
LURZORU URBANIZAEZINAREN ERABILERARI ETA ERAIKUNTZARI
BURUZKO ORDENANTZAK****16.1 KAPITULUA. KAPITULU BAKARRA****1.6.1.1 artikulua. Kalifikazio orokorrak landa-eremuetan edo lurzoru urbanizaezineko kategorietan zuzenean baimendutako erabileren sailkapen orokorra**

Eremu horietako landa izaerari begira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen matrizea garatuz, bertan onartzen diren eraikigintzako erabileren ondorengo sailkapen espezifikoak ezartzen dira.

a. Lehen sektoreko baliabideen ustiategiak.**a.1. Nekazaritza-jarduerekin lotura zuzena duten eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak: nekazaritza-ekoizpenari laguntzeko eraikuntzak eta instalazioak. Honako hauek dira:**

- Nekazaritzako lanabesak eta produktuak kontserbatzea eta biltegitzea.
- Nekazaritzako produktuak lehortzea, erauztea eta sailkatzea.
- Nekazaritzako produktuak jasotzeko hondartzak.
- Xede bererako beste batzuk.

a.2. Berotegiak, haztegiak eta abar:

Artifizialki eta material gardenekin estali eta babestutako instalazio iraunkorretan garatzen den nekazaritzako jarduera hartzen du. Horren bitartez, nekazaritzako landaketa intentsiboak behartu edo babestu nahi dira (baratza, apaingarriak), eta barrualdeak landarearen zikloa osorik edo neurri batean egitea ahalbidetzen du. Pabiloi isolatuak izan daitezke, edo bata bestearen atzetik elkartutako pabiloi-multzoa bestela, batera bat eratuz. Landaketaren sistema lurzoruarekin edo gabe (hidroponia) izan daiteke, eta lurzoruan finko egon edo mugikorrak izan daitezke.

Nekazaritza erabilerari, orokorrean, lotutako jardueraz gain, hazitegienak, itzaltegienak, landare-ugalketenak, ureztapen ongarridunen sistemak, eta abarrenak ere sartzeko dira, jarduera honetan berezkoak baitira.

a.3. Produktuen lehenengo eraldaketari laguntzeko eraikuntza eta instalazioak, baldin eta produktuak nekazaritza-ustiategikoak baino ez badira: Honako hauek dira:

- landare-kontserbak, marmeladak eta konfiturak ekoiztea.

a.4. Abeltzaintza-jarduerari zuzenean loturiko eraikin, eraikuntza eta instalazioak. Honako hauek dira:

- Ukuiluak.
- Jezte-gelak eta esnea kontserbatzeko lokalak.
- Minden biltegi eta simaurtegiak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 139 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- Lanabesak eta produktuak kontserbatzea eta biltegitratzea.
 - Pentsua eta bazkarako siloak (abereentzako zerealak, lekadunak, aleak, pentsuak eta bazka biltzeko soilik diren eraikuntzak. Fabrikazko obrakoak edo metalezko xaflakoak izan daitezke).
 - Aterpeak eta bordak (mendi-larreetan kokatutako eta artzaintza ibiltari eta lekuz aldakorreko jarduerarekin lotutako eraikinak).
 - Askak (abereek bazkatzen duten larreetan beren elikadura osatzeko pentsu eta bazkak emateko eraikuntzak).
 - Erabilerarako eta osasunerako instalazioak (parasitoen kontrako tratamenduak, txertaketak, ugalketarekin lotutako zenbait jarduera, abereen sailkapena, ontziratzea, etab. egiten diren instalazioak. Elementu hauetakoren bat edo guztiak dauzkate: eskortak, belardiak, parasitoen kontrako bainuak eta ontziratze tokiak).
- a.5. Basogintza-jarduerari zuzenean loturiko eraikuntza eta instalazioak. Honako hauek dira:
- Lanabesak, makinak eta produktuak kontserbatzea eta biltegitratzea.
 - Titulartasun publikoko baso-masak zaintzen dituzten langileei ostatu emateko instalazioak.
- a.6. Ustiatetikiko nekazaritza-jarduera nagusiaren osagarri diren jarduerak gauzatzeko erabiltzen diren eraikin, eraikuntza eta instalazioak. Jarduera osagarritzat hartuko dira ustiatetian bertan egiten diren jarduerak, nekazaritza-jarduera nagusiaren osagarriak. Besteak beste:
- naturarekin eta landa ingurunearekin lotutako aisialdiarekin, gozamenarekin eta barreiapenarekin zerikusia duten ongi pasatzeko jarduerak (aisialdirako baratzeak, landaguneetako zaldi ibiliak, haurrentzako parkeak, bertako landare eta animalia arrazen erakusketak, etnografia-bildumak, eta abar).
- b. Interes publikoko eraikin, eraikuntza eta instalazioak. Izaeragatik eta ezaugarriengatik, nahitaez landa-ingurunean kokatu behar diren zerbitzuak emateko eraikin, eraikuntza eta instalazioak, betiere interes publikoaren izaera badute eta interes hori izatearen izendapena eskuratu badu, orokorrean, sektoreko legediaren edo lurralde plangintzaren aldetik eta Arabako Foru Aldundiaren hirigintzako organo eskudunaren aldetik., 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, gainera, ez dira sistema orokortzat hartutakoak izan behar. Honako hauek dira:
- b.1 Aurreko paragrafoetan adierazten diren inguruabarrak eta baldintzak betetzen dituzten komunitatearen ekipamenduak eta hirugarren sektoreko jarduerak.
- b.2. 4. puntuko 8. ataleko ("Aire zabaleko aisia eta jolaserako erabileraren edukia") 1.3.1.16 artikuluan ("Definizioa eta motak") definitutako erabilera hartzen duten jolas-eremu kontzentratuak. Horien artean daude hipodromoak, hipika-zentroak, kanodromoak, etab.
- b.3. Unean uneko instalazioen multzoa, hala nola: satellite bidezko irrati, telebista eta komunikazioko dorreak, antenak eta estazio igorle-hartzaileak, eta antzeko inpaktua duten beste komunikazio-instalazio batzuk.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 140 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- b.4 Energia berriztagarriak sortzeko parkeetako instalazio teknikoak.
- b.5 Erregaiez hornitzeko estazioak, errepidearen jabari publikoaren alboan, zerbitzu-eremutik kanpo.
- b.6 Interes publikoko beste edozein eraikin edo instalazio, bere izaera eta ezaugarriengatik landa-ingurunean kokatu behar bada.
- b.7 Eusko Jaurilaritzaren gune zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan definitutako gune zoologikoak.
- b.8 Beste abeletxe batzuk.
- c. B motako izaera ez-linealeko zerbitzuen instalazio teknikoak, baldin eta lurzoru urbanizaezinean kokatzen bada eta interes publikoko deklarazioa lortzen bada.

1.6.1.2 artikulua. Kalifikazio orokorrak lurzoru urbanizaezineko kategorietan baimendutako eraikuntzako erabilerak eta -jarduerak

1. Baldintza orokorrak

HAPOko lurzoru urbanizaezinenaren kategoriak bat datoz Foru Aldundiko guneen sistematizazioko landa-eremu batekin edo gehiagorekin (J.1 "Babes bereziko guneak" eta J.2 "Gune babestuak").

- 1.1. Artikulu honetan, kalifikazio orokorrak lurzoru urbanizaezineko kategorietan zuzenean baimendutako erabilera orokorrak arautzen dira.

Alde batera geratzen dira udalez gaindiko organoek, beren eskumen propioak baliatuz, gara ditzaketen lurralde-plan sektorialak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 59.2.c artikuluan jasotako plan bereziak aplikatzearen ondotik ezarri behar diren erabilerak eta jarduerak, hain zuzen ere 1.6.1.4 artikuluan (Beste erabilera batzuen ezarpena, lurralde edota hirigintza plangintza egin eta gero) arautu bezala.

- 1.2. Antolamendu orokorrak baimendutako eraikigintzako erabilerak zehazteko, kontuan hartu behar da baimenduko direla, hirigintza arau orokor hauetako 1.3.1 "Lurzoruaren erabilera" kapituluaren definitutakoetatik, artikulua hauetan aurreikusitako ezaugarri eta baldintzak betetzen dituztenak: 1.6.1.1 "Kalifikazio orokorrak landa-eremuetan edo lurzoru urbanizaezineko kategorietan zuzenean baimendutako erabilerekin sailkapen orokorra" eta 1.6.1.3 "Baldintza gainjarriak dituzten eremuetan erabilerei ezarritako muga gehigarriak".

- 1.3. Erabilera bat baimentzeko baldintza orokorrak.
Plangintza orokor honetako kalifikazio orokorrak erabilera bat zuzenean baimendu dezan, honako baldintza hauek bete behar dira:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 141 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a) Artikulu honetan baimendutako gisa aipatzea.
- b) LAGen 3. artikuluko ("Erabilera Matrizea") 3. paragrafoan ezarritako babes-baldintza orokorrak betetzea, bai eta lurralde-plan partzialetan jasotakoak ere.
- c) Plan eta araudi sektorialeak ezartzen dituzten betekizunak betetzea, aplikagarriak direnean.
- d) Ingurumen inpaktuaren ebaluazioak ezarritako neurri zuzentzaileak eta kautezlazkoak edukitzea, horiek exijitu daitezkeen kasuetan.
- e) 1.6.1.3 artikuluan ("Baldintza gainjarriak dituzten eremuetan erabilerei ezarritako muga gehigarriak") artikuluan ezarritako muga eta baldintza osagarriak betetzea.
- f) Plan Berezi bat egitea eta onartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan xedatutakoarekin bat, 5.000 metro koadrotik gorako lurzoruari eragiten dioten jardueretarako. Plan hori Foru Aldundiak onartu behar bada behin betiko, interes publikoko jakinarazpen zehatza inplizituztat joko da, baldin eta aldez aurretik jendaurrean ikusgai jarri bada.

2. 1. kategoria, babes bereziko lurzorua.

Arabako Foru Aldundiko araudiko sistematizazioko gune hauek hartzen ditu: J.11, J.1.2, J.14, J.16 eta J.21.

Honako hauek dira baimendutako eraikigintzako erabilerak eta jarduerak:

Eraikigintzakoak ez diren erabilera eta jarduerak

- Ekosistemak babestu eta hobetzea ahalbidetuko da, egungo egoera mantentzea eta oreka-egoera baliotsuetara aurrera egitea lagunduz.
- Era berean, nariatzeko fasean dauden edo gazteak diren baso naturalak berreskuratu eta hobetzeko jarduketak faboratuko dira, baita hutsik dauden edo kalitate baxukoak diren gertuko nekazaritza-lurren gainean baso horiek hedatzekoak ere.
- Baimenduta daude eremuaren osotasuna babestera bideratutako lurzoruko edo zorupeko jarduketak, zuhaitz-masetakoak eta fauna eta florakoak.
- Aisia estentsiboko jarduketak baimenduta daude, hala nola aisia, mendi-ibiliek eta mendizaletasuna; izan ere, horien intentsitateagatik, garatuko diren eremuaren osotasuna bermatzen dute.
- Basozaintza- eta larratze-jarduerak baimenduta daude. Jarduera horiek biak Arabako Lurralde Historikoko Mendiak Arautzen dituen Foru Arauaren xehetasunen mende daude.

Eraikigintzakoak diren erabilera eta jarduerak

- a) Gune horretan, aplikatu beharreko araudi sektorialetan xedatutakoa aplikatuko da.
- b) Halakorik ezean, honako hauek baimenduko dira:
 - b.1 ikerketa eta dibulgazio zientifikoarekin, eta ingurumen-hezkuntzarekin lotutako interes publikoko eraikuntza eta instalazioak.
 - b.2 Ingurunea bera babesteko eraikuntzak eta instalazioak.
 - b.3 Baso-masak mantendu, babestu eta aprobetxatzeari lotutako aldi baterako eraikuntza txikiak.
 - b.4 Seinaleztapen kartografikoko elementuak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 142 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

3. 2. kategoria, azaleko urak babesteko lurzorua.

(Arabako Foru Aldundiko araudiko sistematizazioko J.17 gunea hartzen du). Honako hauek dira baimendutako eraikigintzako erabilerak eta jarduerak:

Eraikigintzakoak ez diren erabilera eta jarduerak

- Eremu horiek mantendu eta hobetzea erraztuko da. Uren kalitatea eta emari ekologikoa mantentzen direla bermatuko da, ibilguak eta erriberak okupatzea ekidinez. Erriberako landarediaren birsorkuntza ahalbidetuko da.
- Ikerketa, dibulgazioa eta ingurumen-heziketarako jarduerak baimenduta daude.
- Aisia estentsiboko jarduerak baimenduta daude.
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak baimenduta daude.
- Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basozaintza-jarduerak baimenduta daude, baldin eta gunearen babesarekin bateragarriak badira.

Eraikigintzakoak diren erabilera eta jarduerak

- a) EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Araudiaren F.1 atalean aurreikusitakoak (Mediterraneoko isurialdea), uholdeak prebenitzeko eta eremua bera babesteko.
- b) Nekazaritza-jarduera bereziak: arrain-haztegiak.

4. 3. kategoria, baso-lurzorua.

(Arabako Foru Aldundiko araudiko sistematizazioko J.24 gunea hartzen du). Honako hauek dira baimendutako eraikigintzako erabilerak:

Eraikigintzakoak ez diren erabilera eta jarduerak

- Aisia publiko estentsiboari lotutako jarduerak, hala nola aisia, mendi-ibiliak eta mendizaletasuna; izan ere, horien intentsitateagatik, garatuko diren eremuaren osotasuna bermatzen dute.
- Larratzea baimenduta dago, Arabako Lurralde Historikoko Mendiak Arautzen dituen Foru Arauaren xehetasunen mende.
- Nekazaritza aldi baterako baimenduta dago, baina egun dauden aprobetxamenduetan baino ez. Aprobetxamendu horiek basoaren baliabideak eta babes-funtzioa mantentzen direla bermatu beharko dute.

Eraikigintzakoak diren erabilera eta jarduerak

- a) Ingurumenari lotutako ikerketa, dibulgazioa eta heziketarako eraikuntzak eta instalazioak.
- b) Ingurunea babesteko elementuak.
- c) Baso-masak mantendu, babestu eta aprobetxatzeari lotutako aldi baterako eraikuntza txikiak.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 143 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- d) Azpiegituren aireko eta lurrazpiko lineak.
e) Jarduera zientifiko-kulturaleko eta ingurumen-heziketa eta -interpretazioko jarduerekin lotutako onura publiko eta interes sozialeko eraikinak.

5. 4. kategoria, 1. azpikategoria, balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-lurzoruak eta landazabaleko lurzoruak.

(Arabako Foru Aldundiko araudiko sistematizazioko J.15 gunea hartzen du). Honako hauek dira baimendutako eraikigintzako erabilerak:

Eraikigintzakoak ez diren erabilera eta jarduerak

- Bidea emango zaio nekazaritzari, ingurunearen kontserbazioarekin eta hobekuntzarekin bateragarri eginez. Nekazaritza-jarduerak abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuan onetsitako Jardunbide Egokien Kodea bete beharko dute, udalerriko lurzoru ia guztiak nitratoekin kutsa daitekeen eremuan baitaude (Izendatutako eremua Dulantzi sektorerara hedatzeko 2008ko apirilaren 8ko Agindua).
- Ekosistemak babestu eta horietako ingurumena hobetzeko jarduerak.
- Abeltzaintza.
- Aisia estentsibo publikoko erabilera.
- Ingurumen ebaluazioaren aurretzako aisia estentsibo publikoko erabilera.

Eraikigintzakoak diren erabilera eta jarduerak

- a) Ingurumenari lotutako ikerketa, dibulgazioa eta heziketarako eraikuntzak eta instalazioak.
- b) Ingurunea babesteko elementuak.
- c) Administrazioak, kartografiako eta abarreko seinaleak.
- d) Garraiobideak: landa-bideak, mendi-bideak, etab.
- e) Azpiegituren aireko eta lurrazpiko lineak.
- f) B motako azpiegitura-zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak (LAG).
- g) Berotegiak.
- h) Jarduera zientifiko-kulturaleko eta ingurumen-heziketa eta -interpretazioko jarduerekin lotutako onura publiko eta interes sozialeko eraikinak.
- i) Aisialdirako baratzak. Udalak Ezartzeko Plan Berezia onartu ondoren, jardueraren ingurumen- eta paisaia-ebaluazioa barne hartuko duena. Plan Bereziaren hirigintza- eta eraikuntza-parametroak onura publikoko eta gizarte intereseko/komunitatearen ekipamenduko eraikinetarako ezarritakoetara egokituko dira.
- j) Aisialdiko landa-hipikak. Udalak Ezartzeko Plan Berezia onartu ondoren, jardueraren ingurumen- eta paisaia-ebaluazioa eta dagokion interes publikoko adierazpena barne hartuko dituena. Plan Bereziaren hirigintza- eta eraikuntza-parametroak onura publikoko eta gizarte intereseko/komunitatearen ekipamenduko eraikinetarako ezarritakoetara egokituko dira.

6. 4. kategoria, 2. azpikategoria, Nekazaritza- eta abeltzaintza-lurzoruak eta landazabaleko lurzoruak, trantsizioko landa-paisaia

(Arabako Foru Aldundiko araudiko sistematizazioko J.2.5 gunea hartzen du). Honako hauek dira baimendutako eraikigintzako erabilerak eta jarduerak:

Eraikigintzakoak ez diren erabilera eta jarduerak

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 144 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- Bidea emango zaio nekazaritzari, ingurunearen kontserbazioarekin eta hobekuntzarekin bateragarri eginez. Las diferentes prácticas agrícolas deberán prestar atención al Código de Buenas prácticas aprobado en el Decreto 390/1998, de 22 de diciembre (dado que la casi totalidad de los suelos del municipio se encuentran en zona vulnerable a la contaminación por nitratos (Orden de 8 de abril de 2008, por la que se amplía al sector Dulantzi el área declarada).
- Ekosistemak babestu eta horietako ingurumena hobetzeko jarduerak.
- Abeltzaintza.
- Basozaintza.
- Aisia estentsibo publikoko erabilera.
- Ingurumen ebaluazioaren aurretiatzko aisia estentsibo publikoko erabilera.

Eraikigintzakoak diren erabilera eta jarduerak

- a) Ingurumenari lotutako ikerketa, dibulgazioa eta heziketarako eraikuntzak eta instalazioak.
- b) Ingurunea babesteko elementuak.
- c) Administrazioiko, kartografiako eta abarreko seinaleak.
- d) Garraiobideak: landa-bideak, mendi-bideak, etab.
- e) Azpiegituren aireko eta lurrazpiko lineak.
- f) A motako azpiegitura-zerbitzuen instalazio teknikoak (LAG).
- g) B motako azpiegitura-zerbitzuen instalazio tekniko ez-linealak (LAG).
- g) Nekazaritza-, abeltzaintza- edo basozaintza-ustategi bati lotutako eraikuntzak (berotegiak, nekazaritza-biltegiak, basozaintza-ustategiei lotutako eraikinak, abeltzaintza-ustategiei lotutako eraikinak).
- h) Nekazaritza-industriak.
- i) Landa-eremuan jarri behar diren erabilera publikoko eta interes sozialeko eraikinak (ekipamendua).
- j) Aisialdirako baratzeak. Udalak aisialdirako baratzeak Ezartzeko Plan Berezia onartu ondoren, jardueraren ingurumen- eta paisaia-ebaluazioa barne hartuko duena.
- k) Aisialdiko landa-hipikak. Udalak Ezartzeko Plan Berezia onartu ondoren, jardueraren ingurumen- eta paisaia-ebaluazioa barne hartuko duena. Plan Bereziaren hirigintza- eta eraikuntza-parametroak onura publikoko eta gizarte intereseko/komunitatearen ekipamenduko eraikinetarako ezarritakoetara egokituko dira.

1.6.1.3 artikulua. Eraikuntza jarduerak egin aurreko baldintza

Udal-lurraldearen natura- eta paisaia-balioak kontserbatzeko, eta Ingurumen inpaktuaren-ebaluazioa behar duten plan eta proiektuei buruzko Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoa alde batera utzita, ezartzen da derrigorrezkoa dela udalerriko lurzoru urbanizaezinean egin nahi den

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 145 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

eraikuntza-proiektu orok ingurumen- eta paisaia-inpaktuaren azterketa bat izatea, dagokion proiektuaren garrantziaren arabera.

Azterlan horrek gutxienez honako hauek izango ditu:

- Eragindako guneen egungo egoeraren analisia (ingurune fisiko eta soziala).
- Jarduketek ingurune fisikoan (lurzoruak, landaredia, fauna, hidrologia, etab.), gizarte-ingurunean (jarduera ekonomikoak, kutsadura, higiena, osasuna, etab.) eta paisaian (dagoen paisaiara egokitzea, eragiten dituen aldaketak, etab.) izango litzaketen eraginen identifikazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.
- Inpaktuak saihestu edo murrizteko hartutako neurrien aurrekontua eta definizioa. Proposatutako lanen edo proiektuen gainerako jarduketan xehetasun-maila berarekin zehaztuko dira.

Udalak atzera bota ahal izango ditu proiektuak, baldin eta, haren ustez, eragin kaltegarri garrantzitsuak eta atzeraezinak eragiten badituzte.

Lurzoru urbanizaezineko oin berriko proiektuek nahiz eraikin eta instalazioen berritzeek justifikatu egin beharko dute ingurune naturalera egokitzen direla. Sistema orokorreko izaera duten azpiegituren instalazioek edo udalaz gaindikoek bermatu egin beharko dute ingurumenaren gaineko ondorio negatiboak murrizten direla.

1.6.1.4 artikulua. Gainjarritako baldintzatzaileak

Gainjarritako baldintzatzaileak zehazten diren eremuetako erabilerei ezarritako muga gehigarriak. Gainjarritako baldintzatzaileak hiru motatakoak dira:

A. Arrisku naturalei eta klima-aldaketari buruzko gainjarritako baldintzatzaileak:

1. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna duten eremuak

P-2 planoan daude mugatuta.

Debekatuta daude berotegiak eta lurzorua kutsa dezaketen jarduera guztiak, salbu eta jardueren arloan eskumena duen organoak kokapenaren berezitasunak berariaz kontuan hartu eta baimentzen baditu.

2. Higatu daitezkeen edo higadura-arriskua duten eremuak

P-2 planoan daude mugatuta.

a) Eraikigintzako erabilerak debekatuta daude, baldin eta obra-proiektuetan ez badira sartzen lurzoruaren egonkortasunean eta higagarritasunean inpaktu negatiborik ez dagoela bermatzen duten azterketa teknikoak.

b) Edonola ere, debekatuta daude:

b.1 Lurzoru urbanizaezinaren berezkoak ez diren erabilerak, lursail jakin bati ezinbestean lotuta daudenak izan ezik.

b.2 Lurzoru urbanizaezinak berezko dituen erabilerak izanik, lursail jakin bati lotuta ez dauden erabilerak, hala nola berotegiak eta abeltzaintza-jarduera intentsiboak.

3. Uholde- eremuak

P-2 planoan daude jasota.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 146 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a) 100 eta 500 urte bitarteko errepikatze-denborako uholde-lerroen arteko eremuak. Lehendik dauden eraikigintzako erabileretan, obra-proiektuek ingurumen aldetik onargarriak diren neurri zuzentzaileak jasoko dituzte, baina horiek errepikapenean ez dute inola ere larriagotuko lehendik zegoen uholde-arriskua.

Eraikigintzako erabilera berriak 500 urteko uholderako uholde-arriskurik gabeko kotan kokatu beharko dira, behar bezala justifikatutako ezintasun materiala dagoenean izan ezik; kasu horretan, arriskuari aurre egiteko banakako neurri zuzentzaileak hartu ahal izango dira.

- b) 10 eta 100 urte bitarteko errepikatze-denborako uholde-lerroen arteko eremuak.

Debekatuta daude ibai-ekosistema eta haren ahalmen hidraulikoa mantentzearekin eta gozatzearekin lotuta ez dauden eraikigintzako erabilera guztiak, salbu eta hiri-lurzoruan eta aurreko arau subsidiarioetan urbanizagarri gisa sailkatu ziren lurzoru urbanizagarrietan. Baimendutako eraikigintzako erabileren obra-proiektuek ingurumen aldetik onargarriak diren neurri zuzentzaileak jasoko dituzte, baina horiek errepikapenean ez dute inola ere larriagotuko lehendik zegoen uholde-arriskua.

- c) 10 urteko errepikatze-denborako uholdeek urpean utz ditzaketen eremuak. Debekatuta daude ibai-ekosistema eta haren ahalmen hidraulikoa mantentzearekin eta gozatzearekin lotuta ez dauden eraikigintzako erabilera guztiak.

Nolanahi ere, jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten edo haren babes-eremuetan (zortasun- eta/edo polizia-eremua) dauden jarduketek Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren alde aurreko administrazio-baimena beharko dute. Baimen hori Uraren Euskal Agentzian izapidetu beharko da.

4. Interes geologikoko tokiak

P-2 planoan daude adierazita.

Interes geologikoko toki gisa sailkatutako eremuetan garatzen diren hirigintza-jarduketek justifikatuko dute ez diotela kalterik egiten toki horien interes geologikoari.

B. Azpiegitura berdearen gainjarritako baldintzatzaileak

5. Interes komunitarioko habitatak

P-2 planoan daude adierazita.

Interes komunitarioko habitatak gisa sailkatutako eremuetan egiten diren hirigintza-jarduketek justifikatu beharko dute ez diotela kalterik egiten intereseko habitatak horiei.

6. Naturgune babestuak

P-2 planoan daude adierazita.

Vitoria-Gasteizko mendien inguruko erabilera eta jardueren erregulazioa behin betiko onesteko unean dagokion antolamendu-agirian ezarritakoa izango da.

7. Igarobide ekologikoak

P-2 planoan daude jasota.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 147 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Interes eta jabari publikoko eraikin, eraikuntza eta instalazioak baino ez dira baimenduko, baldin eta, beren izaeragatik, lursail horietan kokatu behar badira, eta ez beste batzuetan.

Partzelen itxiturak igarobide horien ibilgu publikoetatik 18 m-ra egongo dira Edonola ere, eraikigintzako jarduketa guztiak ingurumen-arloan eskumena duen foru-organoaren alde aurreko balorazio-txostena izan beharko dute.

8. Ustezko eremu arkeologikoak

P-2 planoan daude jasota.

Edozein eraikigintzako jarduketa egin aurretik, kultura- eta arkeologia-ondarearen arloko organo eskudunari Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitako azterlana eta, hala badagokio, proiektu arkeologikoa aurkeztuko zaizkio. Organo horren baimenik gabe, ezingo da eraikigintzako erabilerarik gauzatu eremu horietan.

9. Paisaia bereziak eta apartekoak

P-2 planoan daude jasota.

Arabako Lurralde Historikoko katalogoan (irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onartua) jasotako paisaia berezi eta apartekoetan eta paisaia nabarmenetan sartutako onura publikoko mendietan, eraikigintzako erabileren baimenak ingurumen arloko foru-organoaren aurretiazko txosten espezifiko bat beharko du, "Paisaia apartekoetan" eragina badu. Foru-organoak paisaia-eraginaren garrantzia baloratuko du, eta, hala badagokio, hartu beharreko neurri babesleak eta/edo zuzentzaileak proposatuko ditu.

Hori guztia Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta Paisaiaren tratamenduari buruzko LAGen gidalerro orokorrekin bat etorritz (8. kapitulua, 5.2.G atala).

C. Gainjarritako beste baldintzatzaile batzuk:

10. Kultura-ondarea

Lurzoru urbanizaezineko elementu katalogatuak P2 planoan adierazten dira, hiri-lurzorukoak eta lurzoru urbanizagarrikoak P6 planoan, eta horiek guztiak Babes Katalogoan.

11. Kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruen eremuak

P-2 planoan daude adierazita.

Lurzoru kutsatuan egiten diren hirigintza-jarduerek dagokien sektoreko araudia bete beharko dute, eta IHOBEn araudi berezia bete beharko dute.

12. Onura publikoko mendiak

P-2 planoan (Gainjarritako baldintzatzaileak) daude adierazita Eremu horietan egiten diren jarduketak Nekazaritza eta Basogintzarako LPSan eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan xedatutakora egokituko dira.

13. Bide-komunikazioak babesteko eremuak

P-1 planoan daude jasota.

Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko 20/90 Foru Arauaren 38., 39., 40. eta 42. artikuluetan ezarritakoaren arabera, jabari publikoko, zortasuneko eta afekzioko eremuek osatzen dituzte.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 148 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

14. Trenbidearen babes-eremuak

P-1 planoan daude jasota.

Trenbide sektoreari buruzko azaroaren 17ko 38/2015 Legearen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, jabari publikoko, zortasuneko eta afekzioko eremuak osatzen dituzte, eta lege horren 12. artikulutik 16.era bitartean eta uztailaren 6ko FOM 2230/2005 Aginduak (hiri-eremuetatik igarotzen diren interes orokorreko trenbide-sareko lineen tarteetan eraikitzeko muga-lerroa murrizten duena) ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Lege horretan jabetzari, jabari publikoko eremuari, babes-eremuari eta eraikuntza-lerroari ezarritako mugak bete beharko dira.

Oro har:

- Jabari publikoko eremua: 8 metro plataformaren alde bakoitzean, lurberdinketaren kanpoko ertzetik neurtuta. Trenbide Sektorearen Legeak honela definitzen du ertz hori: ezpondaren (lur-erazketa edo lubeta) edo eustehormaren arteko bidegurutze-lerroa, lursail naturalarekin mugakidea dena.
- Babes-eremua: 70 metro, lurberdinketaren kanpoko ertzetik neurtuta.
- Eraikitzeko muga-lerroa: 50 metro, plataformaren hurbilen dagoen kanpoaldeko ertzetik neurtuta. Plataformaren kanpoaldeko ertza da lautadaren gainean eraikitako egituraren kanpoko ertza, trenbidea eta trenen funtzionamendurako elementuak sostengatzen dituena.

Jabari publikoko eremuan, trenbideko zerbitzu bat emateko beharrezkoak direnean edo interes orokorreko zerbitzu bat emateko beharrezkoa denean baino ezingo dira egin obrak edo instalazioak, eta, horretarako, trenbide-azpiegituren kudeatzailearen alde aurreko baimena beharko da. Salbuespen gisa, eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, jabari publikoko eremua, airekoa zein lurpekoa, zeharkatzeko baimena eman ahal izango da interes pribatuko obra eta instalazioengatik. Kontuan izan behar da, Trenbide Sektorearen Erregelamenduaren 25. artikulua arabera, tunelak (hala nola aireztapena eta sarbideak) kontserbatu eta mantenduko direla ziurtatzeko behar diren lursailak jabari publikoko eremuaren parte direla.

Babes-eremuaren barruan ezingo da obrarik egin eta tren-trafikoaren segurtasunarekin bateragarriak diren erabilerak baino ez dira baimenduko, betiere trenbide-azpiegituren kudeatzaileak baimena eman ondoren.

Trenbide-azpiegituren kudeatzailearen alde aurreko baimena beharko da trenbide-azpiegituraren jabari publikoko eremuetan eta babes-eremuetan edozein motatako obra edo instalazio finko edo behin-behinekoak egiteko, obra edo instalazio horien xedea edo bertan egin daitekeen jarduera-mota aldatzeko, eta zuhaitzak landatu edo mozteko.

Eraikitzeko muga-lerrotik trenbideraino debekatuta dago eraikitzeko, berreraikitzeko edo handitzeko edozein obra egitea, salbu eta lehendik daudenak kontserbatzeko eta mantentzeko ezinbestekoak direnak. Era berean, debekatuta dago goi-tentsioko linea elektriko berriak jartzea eraikitzeko muga-lerroak hartzen duen azaleraren barruan.

Indarreko legeria sektorialak trenbide-lineen babes-eremuetan baimentzen dituen jarduera, obra edo instalazioak egiteko, trenbide-azpiegituren kudeatzailearen alde

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 149 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

aurreko baimena izan beharko da, hura arduratzen baita trenbide-azpiegitura, haren babes-eremua eta azpiegitura horretako tren-zirkulazioa kontrolatzeaz, zaintzeaz eta ikuskatzeaz.

15. Bide berdea babesteko eremua. Vasco-Navarro trenbidearen trazadura zaharra, GR25 eta Donejakue bidea.

P-1 planoan dago adierazita.

15 m-ko zabalerako babes-zerrendak hartzen ditu, bide berdeen bi aldeetan. Zerrenda horietan ezin izango da eraikigintzako jarduerarik egin, salbu eta bideari berari lotutakoak eta bideen edo beste azpiegitura batzuen arteko bidegurutzeari eta/edo konexioari dagozkionak.

1.6.1.5 artikulua. Beste erabilera batzuk ezartzea, lurralde- eta/edo hirigintza-plangintza egin aurretik

1. Plan orokor honen kalifikazio orokorrean baimendu diren erabilerekin eta jarduerekin gain, 2/2006 Legearen 28.5 artikuluan deskribatutako jarduerak baimendu ahalko dira, honako prozedura hauetakoren baten bidez:
 - a) Lurralde-plan sektorial bat eginez, baldin eta udalaz gaindiko administrazioak bere eskumenak zorrotz erabiliz gauzatzen bada.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 59.2.c) artikuluan aurreikusitako plan berezi bat eginez, zeina hori ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikulua garatzen duen, lurralde-plan batek hala eskatzen duelako edo erakunde sustatzailearen beraren ekimenez, betiere, azken kasu horretan sistema orokorra ez bada.
 - c) Lurralde-planik ez badago edo beharrezkoa ez bada, aipatutako jarduerak sistema orokorrekoak badira, Plan hau aldatu
2. Beti idatzi ahal izango da ingurune fisikoa babesteko plan berezi bat, 2/2006 Legearen 59.2.c) artikuluan adierazitako xedeak lortzeko. Tresna hori onartuz gero, zuzenean aldatuko dira Plan Orokor honetan proposatutako zonakatzea eta bere eraikuntza- eta erabilera-araubidea.

1.6.1.6 artikulua. Eraikigintzakoak diren erabileretarako hirigintza- eta eraikuntza-parametro komunak. Jabari publikoarekiko eta azpiegiturekiko distantziak.

1. Eraikigintzako erabilerek bete egin beharko dituzte sektoreko araudian ezarritako jabari publikoarekiko eta azpiegiturekiko distantziak.
2. Mugatzailea izan gabe, ondoren, tarterik ohikoena transkribatzen dira:
 - a) Errepideekiko distantzia:

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 150 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- a.1. Eraikinetatik: Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/90 Foru Arauaren 42. artikuluan ezarritakoak (1990eko uztailaren 9ko ALHAO, 78. zk.)
- a.2. Itxituretatik: 8 metro, lur-berdinketaren kanpoko ertzetik neurtuta.
- b) Landa-bideekiko distantzia:
- b.1 Eraikinetatik: Arabako Lurralde Historikoko landa-bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeko 6/95 Foru Arauaren 17. artikuluan ezarritakoak.
- b.2 Itxituretatik:
- Fabrika-obra ez badute eta gehenez ere 1,5 m-ko altuera badute: 0,50 metro, lur-berdinketaren kanpoko ertzetik neurtuta.
 - Bestelako kasuetan: 1,50 metro, lur-berdinketaren kanpoko ertzetik neurtuta.
- c) Trenbidearekiko distantzia: Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legean eta abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Trenbide Sektorearen Erregelamenduan jasotako baldintzak eta mugak beteko dira.
- d) Ibai, erreka eta urtegiekiko distantzia:
- Eraikigintzako erabilerek honako atzerapen hauek errespetatuko dituzte ibilgu publikoaren mugaketa-lerroarekiko:
- d.1 15 m. 15 m, 1 <C<Km² isurtze-arroa duten erreketarako (0 mailako tartea).
- d.2 1 Km²-tik beherako isurtze-arroa duten ur-jariatze edo -ibilguei (00 mailako tartea) Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/01 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuko zaie.
- d.3 Gainera, 100 m-ko distantzia gorde bazarako dute:
- Lurzoru urbanizaezinaren berezkoak ez diren erabilerek, lursail jakin bati ezinbestean lotuta daudenek izan ezik.
 - Lurzoru urbanizaezinaren berezkoak izanik, lursail jakin bati ezinbestean lotuta ez daudenek.

1.6.1.7 artikulua. Eraikigintzakoak diren erabileretarako hirigintza- eta eraikuntza-parametroak

1. Berotegiak.

- a) **Aurretiatzko baldintza:** titularrak alta ematea Nekazaritzako Gizarte Segurantzian.
- b) **Lotutako azalera:** eraikin atxikirik gabeko instalazioetan ez da gutxieneko partzela behar. Biltegiak edo baimendutako beste eraikin batzuk badaude, gutxieneko partzela eraikin horietarako eskatutakoa izango da.
- c) **Gehieneko okupazioa:** 80%.
- d) **Mugekiko tartea:** 2 m
- e) **Errepideekiko tartea:** Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko 20/90 Foru Arauan ezarritakoak.
- f) **Landa-bideekiko tartea:** Arabako Lurralde Historikoko landa-bideak erabili, mantendu eta zaintzeko Erregelamenduan ezarritakoak.
- g) **Materialak:** Egitura-elementuak edo arotzeriakoak egurrezkoak edo metalezkoak izango dira, eta estalkia eta fatxadak plastikozko edo beirazko materialezkoak izango dira.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 151 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

h) Beste baldintza batzuk

Kokapenak paisaia-balioak mantentzeko irizpideak errespetatu beharko ditu, eta ezingo dira toki nagusietan jarri.

Debekatuta dago lurzoruan lur-berdinketak egitea, baldin eta 3 m baino gehiagoko ezpondak sortzea badakarte. Sortzen diren ezponda edo lubeta guztiak belardiak eta zuhaiztiak landatuz tratatuko dira.

Instalazioaren proiektuak paisaia-diseinurako jarraibideak izango ditu, proposamena ingurunean behar bezala integratzen dela bermatzeko. Ildo horretatik, honako hauek hartuko dira baldintza lotesle gisa:

- Ibilguak eta horien ertzak behar bezala mantendu eta berreskuratzea (ez dira inoiz planteatuko horiek aldatzen dituzten kanalizazioak), baita jada dauden gainerako elementu naturalak ere.
- Antolamendu berriak gertuko ingurunean izan dezakeen ikusizko inpaktua arintzea, eta, behar den kasuetan, hori arintzeko neurri egokiak hartzea (landare-pantailak...).

2. Nekazaritza-biltegiak eta basogintza-ustiatzei lotutako eraikinak.

a) **Aurretiazko baldintza:** titularrak alta ematea Nekazaritzako Gizarte Segurantzian.

b) **Lotutako azalera:** 0,30 ULU partzela batean edo gehiagotan.

c) **Partzela hartzailearen azalera:** askea.

d) **Eraikigarritasuna:** 0,50 m²/m² partzela hartzailearen gainean.

e) **Gehieneko okupazioa:** partzela hartzailearen % 50.

f) **Gehieneko solairu-kopurua:** 1

h) **Erlaitz eta/edo hegalerainoko gehieneko altuera:** 7 m

i) **Mugekiko tartea:** 5 m

j) **Errepideekiko tartea:** Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko 20/90 Foru Arauan ezarritakoak.

k) **Landa-bideekiko tartea:** Arabako Lurralde Historikoko landa-bideak erabili, mantendu eta zaintzeko Erregelamenduan ezarritakoak.

l) Beste baldintza batzuk

Kokapenak paisaia-balioak mantentzeko irizpideak errespetatu beharko ditu, eta ezingo dira toki nagusietan jarri.

Debekatuta dago lurzoruan lur-berdinketak egitea, baldin eta 3 m baino gehiagoko ezpondak sortzea badakarte. Sortzen diren ezponda edo lubeta guztiak belardiak eta zuhaiztiak landatuz tratatuko dira.

Estalkiak inklinatuta egongo dira, eta % 20 eta 40 arteko malda izango dute, eta gorriak izango dira.

Instalazioaren proiektuak paisaia-diseinurako jarraibideak izango ditu, proposamena ingurunean behar bezala integratzen dela bermatzeko. Ildo horretatik, honako hauek hartuko dira baldintza lotesle gisa:

- Ibilguak eta horien ertzak behar bezala mantendu eta berreskuratzea (ez dira inoiz planteatuko horiek aldatzen dituzten kanalizazioak), baita jada dauden gainerako elementu naturalak ere.
- Antolamendu berriak gertuko ingurunean izan dezakeen ikusizko inpaktua arintzea, eta, behar den kasuetan, hori arintzeko neurri egokiak hartzea (landare-pantailak...).

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 152 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

3. Abeltzaintza-ustiategiei lotutako eraikinak

- a) **Aurretiazko baldintza:** titularrak alta ematea Nekazaritzako Gizarte Segurantzari.
- b) **Lotutako azalera:** 5.000 m² partzela bakar batean
- c) **Eraikigarritasuna:** 0,5 m²/m²
- d) **Gehieneko okupazioa:** partzelaren % 50
- e) **Gehieneko solairu-kopurua:** 1
- f) **Erlaitz eta/edo hegalerainoko gehieneko altuera:** 7 m
- g) **Mugekiko tartea:** 10 m
- h) **Errepideekiko tartea:** Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko 20/90 Foru Arauan ezarritakoak.
- i) **Landa-bideekiko tartea:** Erabili, mantendu eta zaintzeko Erregelamenduan ezarritakoak.
- j) **Beste baldintza batzuk**

Kokapenak paisaia-balioak mantentzeko irizpideak errespetatu beharko ditu, eta ezingo dira toki nagusietan jarri.

Debekatuta dago lurzoruan lur-berdinketak egitea, baldin eta 3 m baino gehiagoko ezpondak sortzea badakarte. Sortzen diren ezponda edo lubeta guztiak belardiak eta zuhaitziak landatuz tratatuko dira.

Estalkiak inklinatuta egongo dira, eta % 20 eta 40 arteko malda izango dute, eta gorriak izango dira.

Instalazioaren proiektuak paisaia-diseinurako jarraibideak izango ditu, proposamena ingurunean behar bezala integratzen dela bermatzeko. Ildo horretatik, honako hauek hartuko dira baldintza lotesle gisa:

 - Ibilguak eta horien ertzak behar bezala mantendu eta berreskuratzea (ez dira inoiz planteatuko horiek aldatzen dituzten kanalizazioak), baita jada dauden gainerako elementu naturalak ere.
 - Antolamendu berriak gertuko ingurunean izan dezakeen ikusizko inpaktua arintzea, eta, behar den kasuetan, hori arintzeko neurri egokiak hartzea (landare-pantailak...).
- k) **Higiene- eta osasun-baldintzak.**

Abeltzaintza-ustiategiek abeltzaintza-ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak beteko dituzte (EHAA, 203/2009 zk.).

4. Nekazaritza-industriak.

- a) **Lotutako azalera:** 5.000 m² partzela bakar batean
- b) **Eraikigarritasuna:** 0,5 m²/m²
- c) **Gehieneko okupazioa:** partzelaren % 50
- d) **Gehieneko solairu-kopurua:** 1
- e) **Erlaitz eta/edo hegalerainoko gehieneko altuera:** 7 m
- f) **Mugekiko tartea:** 10 m
- g) **Errepideekiko tartea:** Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko 20/90 Foru Arauan ezarritakoak.
- h) **Landa-bideekiko tartea:** Erabili, mantendu eta zaintzeko Erregelamenduan ezarritakoak.
- i) **Beste baldintza batzuk**

Kokapenak paisaia-balioak mantentzeko irizpideak errespetatu beharko ditu, eta ezingo dira toki nagusietan jarri.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 153 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

Debekatuta dago lurzoruan lur-berdinketak egitea, baldin eta 3 m baino gehiagoko ezpondak sortzea badakarte. Sortzen diren ezponda edo lubeta guztiak belardiak eta zuhaiztiak landatuz tratatuko dira.

Estalkiak inklinatuta egongo dira, eta % 20 eta 40 arteko malda izango dute, eta gorriak izango dira.

Instalazioaren proiektuak paisaia-diseinurako jarraibideak izango ditu, proposamena ingurunean behar bezala integratzen dela bermatzeko. Ildo horretatik, honako hauek hartuko dira baldintza lotesle gisa:

- Ibilguak eta horien ertzak behar bezala mantendu eta berreskuratzea (ez dira inoiz planteatuko horiek aldatzen dituzten kanalizazioak), baita jada dauden gainerako elementu naturalak ere.
- Antolamendu berriak gertuko ingurunean izan dezakeen ikusizko inpaktua arintzea, eta, behar den kasuetan, hori arintzeko neurri egokiak hartzea (landare-pantailak...).

5. Onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak / ekipamendu komunitarioa

- a) **Lotutako azalera:** 5.000 m² partzela bakar batean
- b) **Eraikigarritasuna:** 0,20 m²/m²
- c) **Gehieneko okupazioa:** 20 %
- d) **Solairu-kopurua:** 2
- e) **Erlaitz eta/edo hegalerainoko gehieneko altuera:** 7 m
- f) **Mugekiko tartea:** 5 m
- g) **Errepideekiko tartea:** Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko 20/90 Foru Arauan ezarritakoak.
- h) **Landa-bideekiko tartea:** 5 m

1.6.1.8 artikulua. Bide-sareetako eta azpiegituretako eraikigintzako erabilerei aplikatu behar zaizkien paisaia-baldintzak

1. Lurzorua ustiatzeko eta erabiltzeko egintza orok, helburua azpiegiturak edota ekipamenduak eraikitzea bada, honako alderdi hauek errespetatu beharko ditu beti:

- a) Bide-sareari eta gainerako bide-azpiegiturei dagokienez, tamaina handiko ezpondak saihestuko dira, bai horizontalak, bai bertikalak. Egokiagoa izango da harri lehor edo hormigoi armatuzko hormak eraikitzea, ageriko harrizko harlangaitzez estalita. Edonola ere, ezponda eta lur-erazketa guztietan paisaiaren aldetik tratamendua egin beharko da, eta baita horren mantentze-lanak bermatu ere.
- b) Bidearen baldintza teknikoek ahalbidetzen badute, proiektuan honako hauek sartu beharko dira: bazterguneak, oinezkoentzako bide-ertzak eta errepide ertzetako espezie erresistenteen sailak; espezie horiek, ahal izanez gero, autoktonoak eta bideak zeharkatzen duen landaretza maila berekoak izan behar dute.
- c) Linea elektrikoko kable-sorta lurperatu egin beharko da ahal den bakoitzean.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 154 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- d) Ur beltzentzat hartutako konponbide gisa, ahal denean putzu beltzak ezabatuko dira eta udalaren saneamendu-sarea garatuko da. Halaber, aintzat hartuko da kasuan kasuko araztegiak instalatzeko aukera.
- e) Ireki berri diren bideekin muga egiten duten guneeetan, landareen geruza desagertzea saihestuko da, eta, obren izaeragatik horiek ez galtzea edo ez hondatzea ezinezkoa izan den tokietan, birjarri egin beharko dira.
- f) Beharrezkoak diren lur-erazuketek edo lubetek ezin izango dute paisaia eraldatu, eta ingurunearekin bat egiten duen azaleko tratamendua egin beharko zaie, bai landaketen bidez, bai birlandaketen edo antzeko metodoen bidez.
- g) Ingurumenari buruzko legedian edo aplikatu beharreko beste edozeinetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, publizitate errotuluak jartzeko honako neurri hauek beteko dira:
- g.1. Ezingo dira iragarkiak, kartelak, publizitate-hesiak edo antzeko ezaugarriak dituzten instalazioak jarri, eta, bakar-bakarrik, administrazio eskudunak kasu bakoitzerako finkatzen dituen ezaugarriak dituzten kartel adierazleak edo informaziokoak baimendu ahalko dira.
- g.2. Debekatuta dago harkaitz, ezponda, mendi edo antzeko elementuetan izenak inskripzioak edo errotuluak jartzea, natura-inguruneari eraso egiten badiote.
2. Sakan edo ibai baten ibilguari erabat edo neurri batean eragiten dion edozein jarduerak jarduketek jariatze-urak hustea aurreikusiko du, eta uraren ibilbidearen lerroan oztupoak jartzea saihestuko da.

1.6.1.9 artikulua. Eraikigintzako erabilerei aplikatu behar zaizkien beste baldintza batzuk

1. Eraikigintzako erabilerak hartzen dituzten finken itxiturak 1.5.1.33 artikuluan ("Hesiak") ezarritako baldintzetan hesitu ahal izango dira. Eraikigintzako erabilerarik ez duten finken itxiturak alanbre leunekoak edo sare elektrifikatu gabekoak izango dira, 1,50 metroko altuerakoak, eta ez dute eragotziko fauna bi noranzkoetan ibili ahal izatea.
2. Gertaera natural batek edo eragindako gertaera batek lursail bat eremu jakin batean egoteko baldintzak galarazten baditu, inguruabar hori ez da nahikoa arrazoi izango kalifikazio hori aldatzeko; aitzitik, jatorrizko baldintzak leheneratzeko neurri egokiak gauzatu beharko dira.
3. Abeltzaintza-ustategien baldintza bereziak. Abeltzaintza-ustategiek abeltzaintza-ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak beteko dituzte (EHAA, 203/2009 zk.).
4. Aurkikuntza arkeologikoak, paleontologikoak, mineralogikoak, historikoak edo beste geologiko edo kultural batzuk gertatzen direnean horretarako zehaztapen egokiak ez dituzten eremuetan, eta alde zurretik erakunde edo entitate eskudunak hala erabakita, eraginpeko lursailetan esku hartzeko baimenak eta lizentziak kauteraz

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 155 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

etengo dira automatikoki, harik eta hirigintza-erregulazioa aldatzeko plangintzan egin beharreko aldaketa onartzen den arte, egoera berrira egokitzeko edo ukatzeko, interes orokorraren aurkakoa delako. Entitate edo erakunde eskudunei berehala eman beharko zaie aurkikuntza horien berri, egiaztatu, babestu edo ustia ditzaten.

5. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiei zuzenean lotutako eraikin, eraikuntza eta instalazioen baldintzak.
 - a) Eraikuntza baten obra-lizentzia eskatzen denean, ustiategiaren titularrak honako dokumentazio hau aurkeztuko du:
 - a.1 Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren ziurtagiria, eraikina justifikatzen duen nekazaritza-ustiategia Arabako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatuta dagoela eta ustiategiaren ULU kopurua egiaztatzen dituen.
 - a.2 Lotutako lursaila errentan ematen bada, lotura horren xede den lursailaren titularraren berriazko onarpena.
 - a.3 Ustiategiari atxikitako lursail oro, zonakatzea edozein dela ere, lotutako gutxieneko azaleraren ondorioetarako zenbatu ahal izango da.
 - b) Ustiategi batean 1.6.1.6 artikuluan ("Eraikuntza-erabilera bakoitzaren hirigintza-eta eraikuntza-parametro espezifikokoak") araututako eraikin bat baino gehiago eraikitzen bada, eska daitekeen ULUen gehieneko kopurua eraikuntza handienarena izango da.
 - c) Partzela hartzaileari gutxieneko azalera duen beste lursail bat atxikitzea eskatzen den eraikuntzetan, ustiategiko beste partzela batzuk lotu ahal izango dira, Arabako beste udalerrri batzuetan kokatutakoak barne.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 156 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

**ZAZPIGARREN TITULUA.
INGURUMENA ZAINTEKO PROGRAMA ETA JARRAIPENERAKO
AURREIKUSITAKO NEURRIEN DESKRIBAPENA****1.7.1 KAPITULUA. KAPITULU BAKARRA****1.7.1.1 Ingurumena Zaintzeko Programa. Kontzeptua.**

Ingurumena Zaintzeko Programa, alde batetik, Planean bertan ezarritako ingurumen-helburuak eta -irizpideak betetzen direla bermatzeko, eta, bestetik, azterlan honetan ezarritako prebentzio-neurrien eraginkortasuna eta betetze-maila kontrolatzeko dokumentua da. Horregatik, kontrolatu egin behar da Dulantziko Plan Orokorrak planteatzen dituen garapenak diseinatu egiten direla eta azterlan honetako 1.2 puntuan adierazitako helburuak betetzen dituztela.

Programak, gainera, 6.2 atalean identifikatutako inpaktuen kopuru zehatza egiaztatzeko eta ebaluatzeko aukera ematen du, behar izanez gero, neurri zuzentzaile berriak antolatzeko. Gainera, informazio-iturri garrantzitsua da prozedura honen mende dauden eta plan orokor honen ondoriozkoak diren proiektuen etorkizuneko ingurumen-azterketen edukia hobetzeko. Hasieran aurreikusi ez ziren inpaktuak antzemateko ere balio du.

1.7.1.2 Jarraipena egin behar zaien alderdiak

Hauek dira izaten duten eraginaren jarraipena egin behar zaien alderdi garrantzitsuenak:

- Landaredi autoktonoko guneen eta Batasunaren intereseko habitaten gaineko afekzioa.
- Espezie mehatxatuen intereseko eremuen gaineko afekzioa.
- Eremuko ur-ibilguen jabari publiko hidraulikoaren gaineko afekzioa.
- Nekazaritza-balio handiko lurzoruen gaineko afekzioa.
- Lurzoruaren artifizializazioa.
- Tokiko konektibitatearen alterazioa.
- Babes Berezia eta Azaleko Uren Babesa kategorian sartutako eremuen gaineko afekzioa.

1.7.1.3 Adierazleak

Honako hauek dira alderdien jarraipena egiteko adierazleak:

- Lurzoruaren okupazio-maila: hiri-lurzoruaren, lurzoru urbanizagarriaren eta sistema orokorrek hartzen duten lurzoruaren egungo azalera osoa kontabilizatuko da, plangintzaren aurretik eta ondoren.
- Zuhaitz-masa autoktonoaren bilakaera. Jarduketan aurretik eta ondoren dagoen azalera.

USANDIZAGA ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP

P201707 ED.07

Normativa Urbanística – Hirigintza Araudia - 157 -

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
ALEGRÍAHIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
DULANTZI

DICIEMBRE DE 2024 TEXTO REFUNDIDO

TESTU BATEGINA 2024KO ABENDUA

- Habitat bakoitzaren azalera eta bakoitzaren azaleraren bilakaera.
- Espezie mehatxatuen populazioaren bilakaera.
- Proposamenek hartzen duten jabari publiko hidraulikoaren azalera, ibaietako uraren kalitatea eta faunaren biodibertsitatea.
- Balio estrategiko handiko lurzoru okupatuen azalera, eraginpeko ustiategien bilakaera.
- Garapen berrien banaketa (%), lurzoruaren alde aurreko egoeraren arabera), planifikatutakoaren benetako bilakaera, erabiltzen ez diren lurzoruak (ha), erabiltzen ez diren lurzoruak berreskuratzea (ha).
- Tokiko konektibitatearen bilakaera, habitata zatitu zaien espezieak eta haien populazioaren bilakaera.
- Lurzoru urbanizaezinaren ehunekoa lurralde osoarekiko. Babes Bereziko, Ingurumen Hobekuntzako eta Azaleko Uren Babeseko lurzoru mota bakoitzaren azalera, planaren aurretik eta ondoren.

1.7.1.4 Ingurumena Zaintzeko Programaren edukia

Oro har, honako hau izango da Ingurumena Zaintzeko Programaren edukia:

- HAPOaren eraginpeko araudia eta legeria betetzen dela zaintzea. Egiaztatuko da Plan Orokorra planteatutako proposamenek ez dutela bateraezintasunik ez estatuko, ez autonomiako araudiarekin.
